



**ANDRAMAIXAK 2023**  
**LEINTZ GATZAGAN / 18**



## FUTBOLEAN EGITURAZKO ALDAKETAK ESKATU DITUZTE

Luis Rubiales Espainiako Futbol Federazioko presidente ohiaren aferak matxismoa, boterea eta futbola lotu ditu; Debagoieneko bost futbolari ohi batu ditu GOIENAK gaiari buruz jarduteko. Beharrezko ikusten dituzte aldaketa sakonak /30

Olatz Legarda, Sokoa Azkarate, Maitane Roa, Oihana Aldai eta Agurtzane Elkoro futbolari ohiak, eguaztenean Aretxabaletako Ibarra zelaian. XABIER URZELAI

**Fagor Herrigintza**  
programa abiatu du  
Fagor Taldeak, gizarte  
eragileen lana diruz  
laguntzeko / 3

**Antzuolako**  
pilotalekuaren 125.  
urteurrena ospatzeko,  
pilotari profesionalen  
jaialdia domekan / 24

**Bergaran hileta**  
zibilak egiteko lanak  
hasi dituzte,  
Laboratorium  
atzealdean / 20



**Kulturartetik JAMEra**  
lekualdatuta, sei  
musika proposamen  
Arrasateko Oreixe  
Akustikoan / 32



# 42 gradura heldu dira termometroak udan

Berotik eta bustitik izan du udak eta abuztuan bi aldiz ezarri zuen alarma gorria Euskalmetek; abuztuaren 23a izan zen egunik beroena; abuztuaren 9an Bergaran neurtu zen Gipuzkoako barnealdeko tenperaturatik altuena, 40,9 gradu

**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA Abuztuan protagonistetako bi izaten dira eguzkia nahiz beroa eta aurtengoan ere ez da gutxiagorako izan. Euskal Metereologia Agentziak abuztuaren 9an eta 23an alarma gorria ezarri zuen EAEn tenperatura altuen ondorioz. Abuztuaren 23a izan da azken asteetako egunik beroena eta Debagoieneko estazioetan Elorregin eta Arrasaten neurtu ziren tenperaturarik altuenak: 42,1 eta 42 gradu. Oñatin eta Urkulun 40ren bueltan ibili ziren maximoak.

Abuztuaren 9an, Elorregin neurtu zen Gipuzkoako barnealdeko tenperaturarik altuena: 40,9 gradu. Bailarako gainerako estazioetan ere, 37tik gora heldu ziren maximoak: Arrasaten, 39,9; Oñatin, 39, eta Urkulun, 37,8.

Euriari dagokionez, Euskalmeten arabera, Elorregiko estazioa gehienez ere bederatzi egun jarraian –abuztuaren 17tik 25era– egon da tanta bakar bat ere jaso barik –iaz 43 egun jarraian egin zuen ateri– eta maiatzaren 13tik hona astelehenean jaso ziren litro gehien: 23,8.

## Beherako joeran

Urkulu %56ko betetze mailan dago eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Aitor Irizarrek dio



Abuztuaren 23an Bergarako farmazia bateko termometroa. GOIENA

## Abuztuan egun beroenak

1 Abuztuak 23	42,1°
2 Abuztuak 9	40,9°
3 Abuztuak 24	40,9°
4 Abuztuak 18	37,2°
5 Abuztuak 19	33,5°

ITURRIA: EUSKALMETEK ELORREGIN HARTUTAKO DATUAK.

data hauetan ez dela horren baxu egon eta horren arrazoia dela 2022ko urtarriletik "oso euri gutxi" egin izana. Urkuluk 1995eko abenduan markatu zuen minimo historikoa, %47 azpitik.

## Abisu horia zaturako

Euskalmeten arabera gaur giro lasaia egingo du eta barnealdean maximoak igoko dira –Arrasaten 30 gradura heltzea espero da–. Bihar egun osorako abisu horia ezarri du prezipitazio handiagatik eta tenperatura 20 graduren bueltan geratuko da.



Hendaiatik etorritako talde bat Arantzazun. GOIENA

## Debagoiena bisitatu duten turista kopuruak gora egin du

Udan turismo eskaintza zabaldu dute eta irailean ere udako ordutegian egin ahal izango dira zenbait bisita

### I.A.A. DEBAGOIENA

Oraindik datu zehatzik eduki ez arren, sentsazio onak dituzte Debagoieneko Turismo Zentroan, iaz baino jende gehiago ibili dela igarri baitute. Ibarreko ondare kulturalak, alde zaharrak, monumentu historikoak eta ibilbideak ezagutu guran etorri dira Euskal Herritarrez gain, estatu espainiarreko eta Europako bisitariak. Espainiar estatuan, batik bat, Valentzia, Andaluzia edota Gaztela-Mantxa nabarmendu dituzte; Europan, berriz, Belgika eta Holanda. Hala, bulegotik pasa diren gehienak bikoteak nahiz familiak izan direla diote eta eskaerak parekatuak izan direla: "Dentarik egon da. Batzuk Santutegiagatik galdetzen dute, beste batzuk soilik mendiari buruz... Bada zuzenean zer egin daitekeen galdetu eta hainbat plan hautatzen duenik ere".

Bailara ezagutu bai, baina askok "freskotasuna" bilatu gura izan dute: "Askok komentatu digute bero handia pasatzen dutela hegoaldean. Orduan, Euskal Herria ikusten dute eta hauxe da haien salbazioa. Hemen gutxienez arnasa hartu eta lo egiten dutela esaten dute".

### Irailean ere bailara ezagutzen

Udara begira turismo eskaintza zabaldu dute Debagoienean. Hortaz, irailean zehar udako ordutegian egin ahal izango dira bisita gidatuak Oñatin, Bergaran –Laboratorium museoa, Bergara monumentala eta lorategi historikoak–, Arrasaten –hiri-bildu bizia, industria ondarea, mendi irteerak eta Galarrakobak– edota Arantzazuko Santutegian eta Parketxean, besteak beste. Informazio gehiago [www.turismodebagoiena.eus](http://www.turismodebagoiena.eus) webgunean dago eskura.



## EPA • HHE

# Helduen Hezkuntza



**EPA ARRASATE HHI**  
www.epaarrasate.hezkuntza.net  
Arrasate Pasealekua 1, 3, 5  
Tel: 943 77 11 72



**EPA BERGARA HHI**  
www.epabergara.hezkuntza.net  
Barrenkale 33  
Tel: 943 76 44 52

MATRIKULAZIOA: IRAILAK 1-15



debagoienerako euskal eskola publikoa





Txema Abarrategi, 2021ean hartutako irudian. GOIENA

## Txema Abarrategiren heriotzak hutsunea utzi du euskalgintzan

Aramaioarra abuztuaren 20an hil zen, 60 urte zituela; Azkoagan egin zioten hileta elizkizuna, auzotarrek in

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Txema Abarrategi Garaigordobil (Aramaio, 1963) hil zen abuztuaren 20an, 60 urte zituela. Euskalgintzan eta herrigintzan lan handia egindakoa, haren heriotzak samina eragin du, ez bakarrik Aramaion, baita Aramaiotik kanpo ere.

Abuztuaren 21ean, astelehen, egin zioten hileta elizkizuna Azkoaga auzoko elizan. Jende asko joan zen azken agurra ematera Abarrategiri. Izan ere, galera handia izan da haren heriotza.

### Euskara eta bertsolari-tza

Euskaltzale petoa, Txirritola euskara elkartearen sustatzaile eta kide aktiboa izan zen Abarrategi, orain dela 25 bat urte. Ofizialki, 2000. urtean eratu zuten Txirritola, baina aurrelana lehenago hasi zuten. Gainera, Txirritolaren urte zailenetan ere hor egon zen, Txirritola hauspotzeko lanetan. Goienaren sorreran ere jardun zuen Txirritolatik, 2000. urtean, eta Goienako Errektore Kontseiluko kide ere izan zen. Horregatik guztiatik euskaltzale fin gogoratuko da Goiena Komunikazio Taldean.

Bertsozalea ere bazen, eta ez hori bakarrik, baita herriko bertsozaintzaren bultzatzailea ere. Arabako Bertsozale Elkartearen zuzendaritzan Gorbeialdeko ordezkaria izan zen hainbat urtez. Gainera, bertsolari-tzarekiko maitasuna familian ere transmititu zuen: Peru,

Martin eta Sabin bertsolari- en aita da. Gaur egun, Peru da Arabako Bertsolari Txapelduna.

Profesionalki, Fagor Etxetresnak kooperatiban Euskara sailean urte askotan aritu ostean, Garabiden egiten zuen lan, munduko hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak bultzatzen.

Aramaioiko Udaleko zinegotzi ere izan zen eta, eta beti egon zen prest Udaleko Euskara Batzordeari laguntzeko.

### Ezagutzen zutenen erreakzioak

Aramaioarraren heriotzaren aurrean asko izan dira haren omenezko mezuak. Bertsozale elkarteak, esaterako, bere atarian egin zuen albistea, "eskerrik beroena Txemari eta besarkada estua etxekoei Arabako familia bertsozalearen izenean". Sare sozialetan ere asko izan dira mezuak. Manex Agirre: "Bertso-saioa noiz hasiko, liburu bat beti eskuan, oroitu zaitut. Ez adiorik, Txema"; Eneko Barberena: "Txema Abarrategi, umetan gure irakasle ikastolan eta euskalgintzako bidaide. Lurra arin bekizu"; Urtzi Urrutikoetxea: "Esaldi, mezu bakoitzean, hizkuntzari bihurritu bat, zirto bat, beti zorrotz eta eskuzabal, etxekoa munduratzan".

**EGUN GARABIDEN ZEBILEN, MUNDUKO HIZKUNTZA GUTXITUEN BIZIBERRITZE PROZESUEKIN**

## Fagorrek gizarte eragileen lana laguntzeko programa du abian

Gizarte eragileek gaur hasi eta irailaren 30era arte dute zabalik euren proiektuak aurkezteko epea, Interneten

### A.E.G. ARRASATE

Fagor Taldeak *Fagor Herrigintza* lankidetzara programa abiarazi du gaur. "Komunitatearen ahalduz eta indartzean sinesten du Fagor Taldeak, eta horretan ari dira gizarte eragi-

leak uneoro. Garrantzitsua da euren zeregina aitortzea, euren alde egitea, laguntzak eskainiz, euren jardunari bultzatzea", dio Aritz Otxandiano Kanpok, Fagor Taldeko Iraunkortasun arduradunak.

Fagor Taldeak hiru laguntza banatuko ditu: 60.000 eurokoa, 40.000 eurokoa eta 20.000 eurokoa. Gizarte eragileek euren aurreratu dute zein laguntza lerrotan aurkeztuko duten euren proiektua. Proposamenak euskara hutsean aurkeztu beharko dira *fagor.eus* atarian, irailaren 30erako. Abenduaren 6an argitaratuko litzateke erabakia. Iaz, Zaporeak, Aita Mari Itsas Salbamendu Humanitarioa eta Seaska Ikastolen Federazioa lagundu zituzten.

Udal Euskaltegiak. Publikoak, irekiak, guztiontzat.

**EUSKARA,**  
bidaia  
harrigarria

#euskarharrigarria



UDAL  
EUSKALTEGIAK

HADE

2023 - 2024

**MATRIKULA**  
epea zabalik

**BEDITA LARRAKOETXEA**  
UDAL EUSKALTEGIA  
Bidebarrieta 18  
Oñati.  
Tel.: 943 78 24 96  
euskaltegia@onati.eus

**ARRASATEKO**  
UDAL EUSKALTEGIA  
Nafarroa etorbidea 2  
Tel.: 943 79 70 77  
Whatsapp 688 78 09 31  
euskaltegi@arrasate.eus

**BERGARAKO**  
UDAL EUSKALTEGIA  
Barrenkalea 33  
(Irizar jauregia).  
Tel.: 943 76 44 53  
euskaltegia@bergara.eus

**LEINTZ**  
UDAL EUSKALTEGIA  
Nafarroa 2 - Arebabaleta  
Inbaubarueta 9 - Eskoriatza  
943 79 21 68  
idazkaritza@udaleuskaltegia.eus

# Iberdrolarekin bilera egiteko zain Garagartzan

Auzo elkarteko kideek kezkatuta jarraitzen dute Dikar kooperatibaren kokapen berria izango den eremuan egindako tentsio dorrearekin eta instalazio elektrikoarekin. Iberdrolarekin irailerako agindutako batzarraren zain daude auzotarrak

**Larraitz Zeberio Lekuona** ARRASATE Dikar kooperatibak irailaren zehar eraman nahi du bere jardueraren zati bat Garagartzara, eta egokitzapen lanak martxan dira Fagorrena zen fabrika zaharren eremuan.

Uztail amaieran eman zuten auzo elkarteko ordezkariak bilagunen artean areagotzen ari zen kezka berri. "Egun batetik bestera tentsio dorrea eraikitza agertu zen auzoan, inork ezer jakin barik. Erositako eremu guztiatik bizilagunen etxebizitzetatik hurbilen dagoen puntua aukeratu du Dikarrek tentsio dorrea eraikitzeko, lan jarduera garatu behar den tokitik punturik urrunena".

Instalazio berriaren inguruko kezka publiko egin eta *Dikar, auzoak ez du nahi dorre hau hemen* irakur daitekeen pankarta jarri zuten auzotarrak tentsio dorretik gertu. Batzordetik gaineratu dute bilera bat egin dutela Dikarreko zuzendaritzarekin eta obren ardura guztia daraman LKS Krean-ekin, eta beste leku egokiago batzuk proposatu dituztela instalazio berria kokatzeko. "Baina Krean-ek Iberdrolaren gain uzten du ardura guztia. Argudiatzen du, Iberdrolaren arabera, puntu hori dela toki egokiena eta bakarra tentsio dorrea eraikitzeko".

Irailerako Iberdrolarekin agindutako batzarraren zain daude orain auzotarrak. "Dikar kooperatibak konpromisoa hartu zuen Iberdrolarekin batzar bat antolatzeke. Esan digute instalazio hori puntu horretan kokatzeko arrazoi teknikoak emango dituela Iberdrolak", azaldu du Garagartzako auzo elkarteko kide Gari Madinabeitiak eta Garagartzako auzotarrak haserre jarraitzen dutela azaldu du. "Ez dugulako tentsio dorrearen berri izan eraikita ikusi dugunera arte, eta ez zaigulako aukerarik eman beste leku batzuk



Gorritz kendutako transformadore zaharren kokapena eta berdez berriarena. DIKAR

proposatzeko. Ez gaituzte kontuan hartu erabakitze orduan".

## Dikar "denen mesedetan"

Dikarreko arduradunek uztailaren bertan eman zituzten gai honekin lotutako lehen adierazpenak, eta egunotan azaldu diote GOIENARI oraingoz ez dutela berrietasunik gehitzeko. Berretsi dute oinarritzko bi premiarekin ari direla lanak egiten: "Araudia betetzea eta egungo instalazioak hobetzea elementu horiek eragiten duten isuri elektrikoak murriztuz".

Azaldu dute hasiera batean kanpoko transformadoreak kendu eta linea elektrikoak barrualdera lekualdatzea eta lurperatzea erabaki zela. "Proiektua garatu bitartean, Iberdrolako teknikariek egungo araudia betetzen zela ziurtatzeko beharrezko jarraibideak adierazi zituzten.

## DIKARREK AZTERKETA INDEPENDENTE BAT ORDAINTZEKO KONPROMISOA HARTU DU

Tekniko horiek erabaki dute partzelako eremu barruan dagoen kanpoko aldeko puntu batean zutoina eta koadro elektrikoak instalatu behar zirela, araudiak ezartzen baitu sarbide publikoa izan behar dutela instalazioen kanpotik". Koadro horien kokapen berriak hasiera batean aurreikusitako inbertsioa nabarmen handitzea ekarri duela azaldu du Dikarreko gerente Esther Kortak. Dikarretik gaineratu dute proiektua jendaurrean egon zela ikusgai eta erreklamazioaldia egon arren ez zela inolako alegaziorik aurkeztu.

Hori horrela izanda ere, azterketa independente bat ordaintzeko konpromisoa hartzen dutela azaldu dute Dikarretik. "Hobekuntzak suposatzen duena ziurtatzeko, eta zutoinak eta koadro elektrikoak araudi guztiak betetzean instalakuntza berriek ez dutela inplikaturako inoren ingan inolako eragin negatiborik" izango ziurtatzen dute.

Arrasateko Udalak ere badihar du auzi honetan. Bi aldean arteko konponbide adostu bat bilatzeko bitartekari lanak egiten jarraitzen dutela azaldu dute.

## Anbulantzia medikalizatua mediku barik ez uzteko eskaera

Hainbat erakundek agertutako kezka aurrean Osasun Sailak dio zerbitzua "uneoro" dagoela ziurtatuta

**L.Z.L. ARRASATE**

ESK sindikatuaren eta EH Bilduren salaketa astelehenean heldu zen; eguaztenean, berriz, Oñatiko, Bergarako, Antzuolako, Elgetako, Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz-Gatzagako alkateena. Kezkaz salatu dute Debagoienari zerbitzua ematen dion Arrasateko ambulanzia medikalizatuak mediku profesionalik gabeko zerbitzua eman zuela abuztuaren 5eko eta 27ko gauean, 21:00etatik 09:00etara. ESK sindikatutik gaineratu dute Osakidetzako larrialdi zerbitzuetan "ohitura" bilakatu dela, eta bestelako murrizketak ere salatu dituzte; Osakidetzako zentro batzuetako larrialdietako txandetan, 112 telefono zerbitzuan zein hainbat Etengabeko Arreta Gunetan.

EH Bilduko Rebea Ubera legebiltzarkide elgetarrak, bere aldetik, azalpenak eskatu dizkio Osasun sailburu Gotzone Sagarduiri. "Osakidetzan murrizketak normalizatzen ari dira, herritarrei agintzen zaizkien hainbat zerbitzu ez dira behar bezala eskaintzen eta Emergentziak ESIaren dotazioa eta egitura husten ari dira osasun arretaren kalitatearen kaltetan".

Eskualdeko zortzi alkatek ere azaldu dute beraien kezka eta ezinezona. Idatzi bateratu baten bidez eskatu dute halakorik berriz ez errepikatzeke neurriak hartzeko, eta halako ez-ohiko egoerak gertatzeko balira udal

ordezkariak aurrez jakinaren gainean jartzeko.

## Osasun Sailaren erantzuna

Osasun Sailatik ziurtatu dute osasun-arreta "ziurtatua" egon dela eta dagoela Debagoiena "osoan" eta "uneoro". Gaineratu dute Osakidetzak sarean lan egiten duela eta osasun-laguntza bere baliabide guztiakin planifikatzen duela, ambulanzietako medikuen estaldura barne. "Osakidetzak, sarean lan egiten duenez, behar adina baliabide ditu eremu horretako herritar guztiei zerbitzua emateko. Beharrezkoa izan den une batean ere ez da medikurik gabeko laguntzarik eman", adierazi dute. Azaldu dute Gipuzkoan bost ambulanzia medikalizatu daudela –Donostia, Bidasoa, Arrasate, Elgoibar eta Tolosa– eta Arrasateko dispositiboak okupatuta badago, Elgoibarkoak ematen duela laguntza aurreratua, eta baita ere HEM helikopteroak –Arrasaten dago heliportua–. "Beraz, une oro dago bermatuta medikalizaturako ambulanzia baten zerbitzua, medikuarekin. Elgoibarko SVAm da, hurbilena delako, edozein premiaren aurrean inguru hau guztia babesten duena".

Osasun Sailak gaineratu du abuztuaren 5eko gaueko txandan –21:00etatik 09:00etara– ez zela inolako abisurik egin, eta abuztuaren 27an abisu bakarra izan zela txanda horretan. Ospitaleen arteko lekualdaketa bat izan zela zehaztu dute.

## FestVal 2023ko EITB saria jasoko du Tokikomek

Euskal Herriko tokiko hedabideen sareak jasoko du aurtengo EITB saria. Hamar urteko ibilbidea du, 250 profesionalak eta 76 toki komunikabidek osatzen dute, eta horien artean da Goiena Komunikazio Taldea. Tokikometik pozik hartu dute albiste. "Mundu mailan tokikoak hartzen ari diren lekua aitortzen dute EITBtik ere eta sektorekoek

aitortzea oso pozgarria da". Tokikomeko zuzendari Alaitz Artolazabalen esanetan, euskara hutsezko hedabideak aitortzea ez da egunero gertatzen. "Txikitik egiten dugun ahalegin hau EITB moduko enpresa handi batek ikusi izana positiboa da eta indarrak ematen dizkigu beste hainbeste urtetan jarraitzeko".

Irailaren 9an egingo da FestVal gala Gasteizko Principal antzokian. Gainontzeko sarituak jakinarazi dituzte FestValetik.



# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

## Goi Mailako

## Heziketa Zikloak

- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika industrialia
- | Automatizazio eta Robotika Industrialia

## Espezializazio

## ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa **Berria!**

#LanerakoGertu

**Eman  
izena!**

664 29 87 04  
onarpena.lhm@mondragon.edu

**PLAZA LIBREAK**



[mondragon.edu/lanbideheziketa](https://mondragon.edu/lanbideheziketa)





ZABALIK

IÑAKI CASAS

## Urteko lau urtaroen alde

A ze uda! Meteorologoek egunero errepikatzen dute inoiz gurutzatu gabeko hesiak gaintzen ari garela eta agertoki ezezagunetan mugitzen garela. 40 gradu inguruko temperaturak, lehorte luzea, baso osoak kiskaltzen dituzten suteak, gero eta gorreragoak diren denboraleak... Dena, bide batez, gizakiaren *adimenaren* ondorio da. A ze paradoxa!

Besoak gurutzatuta jarraitzen dugu klima aldaketaren aurrean? Zer behar du gizarteak mobilizatzeko? Barka diezadala jada mobilizatu denak; are gehiago, nire aintzatespena eta begirunea. Baina, objektiboak izanik, portaera orokorra da aieneka ibiltzea. Esaerak dioten bezala, trumoiak jotzen duenean bakarrik gogoratzen gara Santa Barbaraz; hori bai, tximistak pasatuta, aurrera egiten dugu, ezer gertatu ez balitz bezala.

### BIRZIKLATZEA, URA AURREZTEA, ALFERRIKAKO KONTSUMOA SAIHESTEA...

badakigu, zergatik ez dugu egiten? Nork ez du entzun birziklatzeaz, ura aurrezteaz, alferrikako kontsumoa saihesteaz, gure saskietan zero kilometroko produktuak erosteko apustuz, paperontziak eta edukiontziak erabiltzeaz eta abarrez?


Izan gaitezen zorrotzak geure buruarekin, eta ez dezagun horri buruzko lizentzia bakar bat ere onartu; izan ere, salbuespenak barkatzen badizkiogu geure buruari –ez da ezer gertatzen behingoagatik...–, ez dugu aurrera egingo. Atzerapausorik ez! Lehen pertsona hartu behar da konpromisoa, eta domino-efektua berez etorriko da –hori pentsatu gura dut–. Oraingoz, berekoikeria soberan dago, eta gizarte-kontzientzia eta komunitate-sentimendua falta dira. Euskadi beti izan da egitekoagoa esatea baino.

Ez dakit zuk, baina nik ez dut horrelako udarik nahi. Lau urtarook bereizten eta gozaten jarraitu nahi dut.

Atsekabe horrek, sikiera, ekarriko balitu ingurumena errespetatzeko ekintza zehatzak, horren eragina nabaritu genuke. Ezagutzen ditugu eta ez ditugu aplikatzen. Ondo informatuta bagaude, kontziente bagara eta arazoari nola aurre egin

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Dindili-danbalaka

ALAZNE ARRUTI BENGOTXEA  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/ASNQS](https://labur.eus/asnqs)

Zorabiatutako txorimalo balantzati bat dirudi beso zabalik aurrerantz abiatzean. Oinak tenk, bata bestearen atzetik daramatza proban, lehen urratsak egiten hasitako moxal jaio berri baten antzera. Keinu, imintzio eta marruka hasten denean, urte bete eta lau hilabete eskaseko gorputz txikiak inguruko pertsona gehientsuenen begirada atzeman eta urteko gaitasuna du. Eta esango nuke etxean ez dela halako une gozo eta alairik sortu aspaldian.

Bitxia da azaltzen haur txikiak euren inguruan pizten dutena. Besoetan hartu nuen lehen aldian, hozkia ematen zidan. Ikasi gabeko lezioen pisuaz, nire hauskortasunak bera era hautsiko zuelakoan edo. Anaiak berak ere, denbora behar izan zuen alaba jira-biraka algaratan astintzen hasteko. Baina haurrekin batera ikasten eta berrikasten du inguruak ere.

Eta orain hementxe gabiltza, bere erritmora egokitzen. Tarteka eta behar duenean, hatzen bat luzatzen helduleku gisa balia dezan. Soka askatzen eta zirrara betean korrika bere kasa abiatzen uzten, ostean erori eta

zutitzen ikasten duen bitartean.

Ni neu ere halaxe sentitzen naiz, dilindan, olatuen joanean eta etorrian. Iraganari begira, esne-mamizko oroitzapenei hautsa arrotzen. Garai bateko nire haurraren itzuli eta oraingo orbanak miazkatzen. Inguru zalantzan jartzen, maitasunez eta pazientziak, lehengoak orain ez duela balio ulertarazi nahian.

Heziketaren baitan, guraso izan gabe ere gure inguruan eragiteko gaitasunaz jabetzen, bere on eta txar guztiekin.

Eta eskerrak ahulak garen. Zartatu, desikasi eta hazten jarraitzeko gai garen.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantxabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 18.500 ale  
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK

**Banderak "bueltan"**

**IÑAKI IDIGORAS IGARTUA (OÑATI),  
RAFA SANTXEZ MUXIKA (BERGARA),  
BEÑI AGIRRE (HERNANI) ETA IÑIGO  
LARRAMENDI (GASTEIZ)**

OÑATI

Bandera oihal zati bat da; talde, komunitate edota pertsona juridiko bat identifikatzen duena: nazioa, lurraldea, hiria, erakundea... Batzuen esanahia ia unibertsala da; horrez gain, bandera, seinale edo markaren erabilera giza arlo askotara hedatu da. Komunitate nazional bati edo Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak definitu duen moduan "objektiboki identifikagarria den pertsona-talde" bati eragiten dionean, pertsona-talde edo komunitate horren identitatea adierazteko sinbolo bihurtzen da.

Ikurrina ez da Eusko Jaurlaritzarena, ez eta "Euskal" Autonomia Erkideko jendearena soilik. 1936ko lehen Eusko Jaurlaritza baino lehenagokoa da eta Euskal Herriko biztanleriak beretzat hartu zuen foruen kontra Madrildik zetorren erasoari aurre egiteko.

Nafarroako banderarekin, gauza bera: ez da Nafarroako (Garaiko) Foru Aldundiaren edo Nafarroako (Garaiko) Gobernuaren ikurra. Euskal herritarrok -7 probintzietako eta bertze anitz lekutakook- bildu gintuen Nafar Erresuma subirano, independente eta homologatuaren ikurra izan zen 1620ra arte Europako Estatuaren kontzertuan.

Batean zein bestean, ikur biak erakundeen ikur partikular bezala aurkezteko ahalegina sumatzen da azken urteetan. Bistakoa da ahalegin hori euskalnafarren batasunaren kontrako bidetik doala.

2023ko Baztandarren Biltzarra festa egunean, esaldi hau zegoen Baztango Udalaren balkoi nagusitik zintzilik:

*Frankismoan bezala, ikurriña Udaletxean paratzea debekatu dute.* Gauza bat da derrigorrez ipinaraztea eta bestea debekatzeko. Badu zilegitasunik Nafarroa Garaiko Gobernuak berea ez den ikurra jartzera derrigortzeko ala debekatzeko? Eta Jaurlaritzak Erkidegoko udaletan nafar ikurra debekatzeko? Frantziako Ipar Euskal Herrian ez, ez bata ez bestea, biak libre. Biak beharko lirakeke elkarren ondoan. Gero eta gehiago gara hori uste dugunok. Horrela ikusi genuen Tourrean eta hala ikusteko esperantza dugu hurrengo bueltan. Barka, Vueltan.

**Presentismoa?****BALEN TRAMON**

ARRASATE

Uztailaren 21eko GOIENA aldizkari honetara bidalitako gutunean, Kepa Sebal Lazpiur bergararrak Amerikaren konkista zuritu eta gertaera edo pasadizo aseptiko gisa azaltzen zuen, edozein hondamendi naturalen pareko. *Oraingo* gerrak, basakeriak eta injustiziak deitoratzen ditugu. Baina *iragane*ko genozidioak,

kultura suntsiketak edo esklabotza salatzea sinplifikazio hutsa omen da; haren ustez, "presentismo politikoaren" ondorioa. Noiz, ze urtetan amaitu zen *iragana*, *oraina*-ri lekua egiteko? Alfonso VIII.aren ala Cisneros kardinalaren sasoiaren ez? Hernan Cortesekin ezta ere? Borboiekin, Canovasekin ala frankismoarekin, akaso? Hiroshiman? Vietnamen? Galindorekin? NATOren edozein urtetako bonbardaketekin? Noiztik, ze urtetatik aurrera da zuzena gertaera historikoak aztertzerakoan ikuspegi etikoak ere kontuan izatea?

Gutunaren egileak *dominatu* eta *kolonizatu* aditzak nahiago ditu *inbaditu*, *esklabizatu* eta *sarraskitu* baino. Aipatzen du, halaber, espainiar buruzagiek kazike batzuekin itundu, odolkidetu eta beraiekin batera (menpe) gobernatzeko aukera eskaini zietela. Jokabide hori inperio guztiek erabilitako estrategia da. Zipaio eta kolaboratzaileak beharrezko dituzte, bereziki askoz ere ugariago diren jatorrizko populazioak kontrolatzeko, makurrarazteko. Ahaztu gabe elizgizonen papera, adituenak espioitarako eta jatorrizko biztanleak mehatxatu eta mantsozteko.

1492an abiatutako eraso, ankerkeria, urre eta zilar lapurreta, esklabotza eta zabalduak izurriteek 1600. urterako bertako biztanleen %90en esterminioa eragin

zuten. Eta ezin aipatu gabe utzi Afrikatik erazitako eta hildako milioika esklaboak. Genozidio anker horiek ezin dira azaldu historiaren anekdota edo kontakizun epiko gisara; are gutxiago, parte hartzaileak heroizat hartu eta monumentu eta kaleak eskaini. Ezta aipatzen duen Martinez de Irala bergararraren kasuan. <https://labur.eus/Lclua>

**Haurreskola Partzuergoaren sistema berriak ez ditu gurasoen beharrak asetzen**

**MAIALEN BARRENA, ANGEL LERA,  
XABIER NARBAIZA, ANDER ZABALETA,  
ANE ANDUAGA, JOSUNE BENITO ETA  
HAIZEA ETXEBARRIA**

OÑATI

Datorren urtean Haurreskolak Partzuergoa doakoa izango da, eta Oñatiko Txiki Txokoko familia batzuek gure kezka azaldu nahi dugu, atzean letra txikiz idatzitako aldaketa asko baititu.

Aldaketa horien artean, alde batetik, matrikulazioa egiteko orduan gurasoen lan egoeraren menpekotasuna dugu; hau da, umearen matrikulazioa egiteko, gurasoek derrigorrez lanean egon behar dute eta ezin dira gurasotasun-baimenean edota haurren zaintzagatik eszedentzian egon.

Bestalde, barematzeko erabiltzen diren irizpideak zentzugabeak dira, askotan. Adibide moduan, herrian edo herritik kanpo lan egitearena

daukagu. Lehenengoak gehiago puntuatzen du bigarrenak baino, baina beharra bigarren kasuan handiagoa da.

Horretaz hain, ordutegian eta haren malgutasunean murrizketa esanguratsuak egingo dituzte, eta familien kontziliazioa erabat baldintzatuko dute. Eta, azkenik, gutxieneko asistentzia baten betebeharra ere egongo da kaleratua ez izateko.

Hori horrela, Oñatiko Txiki Txoko Haurreskolako egoera ekarri nahi dugu orain aditzera, eta hango kasuistikak azaldu:

0-1 urteko gelan matrikulatua izan nahi zuen ikasle baten aitak lau asteko aitatasuna oraindik hartu gabe duenez, ez da onartua izan. Egoera horrek familia behartzen du lau aste horiek irailean hartzea edota hirugarren pertsona baten beharra izatera. Matrikulazio kopuruaren hazkundearen ondorioz Partzuergoak beste gela baten irekiera onartu duen arren, plaza guztiak beteta egongo lirakeke 1-2 urteko haurrentzat. 0-1 urteko haurrentzat hamar plaza geldituko lirakeke.

Hortaz, agindu berri horrek urteetan kontziliaziarako lortu diren aurrerapauso guztiak blokeatzen dituen zantzia dugu. Zerbitzu publikoa eta unibertsala behar dugu izan, eta doakotasunak ezin du ekarri familiak kanpoan uzteko pentsatuta dagoen proposamen baztertzaila eta mugatzaile bat. Are gutxiago, familien eskubideak urratzen dituen bat.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





# Mojategiko zelai berria, eguaztenetik erabilgarri

Musakolako kiroldegian eta Mojategin egin dituzten esku-hartzeen berri eman du Udal Gobernuak. Mojategiko berdeguneetako bat berri egin dute eta erabilgarri dago jada. Gainera, errugbiaz gain, hamaikako futbola praktikatzeko ere egokitu dute

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Errugbiko zelaia aldatzeko lanak ia bukatuta daude, nahiz eta detaile txiki batzuk falta diren oraindik: banderak jartzeko zuloak egin eta futboleko atek eta errugbiko zutabeak jarri. Izan ere, berrikuntzetako bat da hamaikako futboleko marrak ere jarri dituztela eta, beraz, bi kirolak praktikatu ahal izango direla zelai berrian. Modu horretan, atek eta zutabeak mugikorak izango dira, Auzoak, Obra, Zerbitzu eta Mantenu Saileko zinegotzi Kepa Urteagak azaldu duenez.

Irailaren 11n jarriko dituzte, hain zuzen, atek eta zutabeak, eta hilaren 15erako zelai berria erabat prest egongo da herriko taldeentzat, denboraldi berriari ekiteko. Edozelan ere, zelaia erabilgarri dago eguaztenetik, entrenatzeko, esaterako.

410.647,12 euroko aurrekontua izan dute lanek, nahiz eta "kostu gehigarri txiki" bat izan duten, hasiera batean ez zutelako aurreikusten zelaia futbolean jokatzeko egokitzea eta, era horretan, atek eta zutabeak berriak izango direlako. Zortzi urteko bermea izango du zelai berriak eta aluminiozko takoak "guztiz debekatuta" egongo dira, "zelaiaren egoera eta jokalarien osasuna zaintzeko helburuarekin", Urteagaren esanetan.

## Pista, datorren udan

Atletismoko pistari dagokionez, 2024ko udan eraberrituko dute, Arrasate Atletiko Taldeak hala eskatu ostean, Urteagak azaldu duenez. "Edozelan ere, konponketa txiki batzuk egin beharko ditugu, pistaren egoera ez delako egokiena".

## Mantenuaren garrantzia

Bestalde, Maider Morras alkateak adierazi du orain arte egin ez diren mantenu lan batzuk egiten ere ari direla. "Mantenu lanak

ez dira egin behar bezala azken urteetan eta kirol klubek eskatu digute instalazioak zaintzeko. Hala, abuztuaren zehar horien egoera aztertu dugu eta hainbat lan egiten ari gara: harmailak aulkiak garbitu, sareak jarri,

aldagelak behar bezala garbitu eta abar". Bide batez, garbitasunaren kulturarekin pedagogia egin beharko dutela gaineratu du, "Mojategi oso zikin baitago eta instalazioak azkarrago zahartzen baitira horrela".



Maider Morras, Kepa Urteaga eta Mikel San Miguel, Mojategin. E.A.B.



Aldagela ondoko pasabidea eta eskailerak ere berri egin dituzte. E.A.B.

## Kiroldegian, hainbat egokitze lan

Musakolako igerilekuko aldageletan ere hainbat lan egin dituzte, lurzorua aldatuz, paretak margotuz eta armairu berriak jarri, besteak beste. Halaber, igerileku itxietarako pasabidea eta eskailerak ere berri egin dituzte, zonalde guztia uniforme izan zedin.

## Arrasatear bat ikertzen ari dira, Lezetxikin kalteak egiteagatik

Ondare historikoaren aurkako kaltea eta espolioazio arkeologikoa leporatu dizkiotela azaldu du Ertzaintzak

### E.A.B. ARRASATE

Lezetxikin lagin-zulo klandestinoak, pintaketak eta grafitiak egiteagatik ikertzen ari dira arrasatear bat. Otsailean abiatu zuen Ertzaintzak ikerketa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saileko adituek kalteak antzeman zituztenean. Hain justu, ondare historiko-artistikoaren eta artxiboen zerbitzuko arkeologoen izan zuten egitateen berri, eta diputazioko ardura-dunek salaketa jarri zuten.

2022tik Babes Bereziko Kultur Ondasun izendatuta dago kobazuloa, eta bertan sartzeko Alundiak emandako berariazko baimena behar da. Ertzaintzak jakinarazi duenez, ordea, iker-tutako gizonetako ez zuen horretarako baimenik eta, hala ere, kobazuloan sartuta egon zen hainbat orduz, espeleologia-ko materialarekin.

### Azken erabakiaren zain

Gaur-gaurkoz, Gipuzkoako Probintzia Fiskaltzaren eskuetan dago kasua, eta azken erabakia jakiteko dago oraindik. Edozelan ere, Ertzaintzak jakinarazi du ondare historikoaren aurkako kalteak zigor kodearen 323. artikuluan daudela jasota, eta sei hilabetetik hiru urtera arteko espetxe zigorra ezar dezakeela, edo hamabi hilabetetik 24 hilabetera arteko isuna.

Horrez gain, arkeologia-aztarnategi batean baimenik gabe sartzea Euskal Kultur Ondarearen legearen aurkako arau-hauste administratiboa izan daitekeela ere nabarmendu du Ertzaintzak. Kasurik arinenetan, 100.000 euro arteko isunak ezarri daitezke; larrietan, handiagoak, 250.000 euro artekoak; eta, oso larrietan, milioi bat eurora arte iritsi daiteke.

## Datorren eguenetik zapatara egingo dute Merkemerkaua

Ibai-arte merkatariak kalera aterako dituzte udaberri-udako produktuak, establezimendu aurrera edo komertzio guneetara, "prezio ezin hobean": moda, lentzeria, osagarriak, oinetakoak, ilarako produktuak, eta abar.

Eguenean eta egubakoitzean, 16:30etik 20:00etara izango da azoka eta zapatuan, berriz, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00eta-

tik 20:00etara. Honako hauek izango dira parte hartuko duten komertzioak: BC, Bea lentzeria, Beinke, Ennea, Errekamendi, Garraxi, Intersport Loramendi, Itxaso mertzeria, Josle, Kapikua, Kids&Us, Kili-Kolo, Lizarralde Kirolak, Luko, Maitia, Markiegi, Promise, Sikol, Tipi-Tapa, Troko, Txuri Beltz eta Zubia.

Horrekin batera, Hauspo Eguna ere egingo dute egun horietan (Ikus 12. orria). Halaber, Trikingin lehiaketa ere egingo dute, gin-tonic onena norik prestatuko.

## OHARRAK

### 'Arrasate Hiribildu Bizia' bisita, bihar

11:00etan Biteri plazatik abiatuko dute bisita gidatua eta izena eman beharko da, [arrasate.eus-en](http://arrasate.eus-en).

### Galarrako kobara irteera domekan

09:30ean izango da euskarazko espeleologia irteera, eta izena eman beharko da aurrez, udal webgunean. Gaztelerazko irteera 11:30ean egingo dute, baina taldea osatuta dago jada.

### Arrasate-Arantzazu ibilaldia, hilaren 10ean

PR-Gi 106 Arrasate-Arantzazu Erromes bidea egingo dute irailaren 10ean, domeka, Herriko Plazatik irtenda. Horretarako ere izena eman behar da aurrez, udal webgunean.







# Aikidoa, kenpoa eta judoa probatzeko dei egin dute

Denboraldi berria hastear dutela, Arrasate Aikido Taldeak, Ziorla Kenpo Elkartek eta Arrasate Judo Elkartek deialdi berezia egin diete arrasatearrei, kide berriak lortzeko asmoz; Musakola kiroldegian izango dira datorren astetik aurrera, interesa dutenentzat

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Arrasate Aikido Taldeak irailaren 6an, eguaztena, abiatuko du 2023-2024 ikasturtea eta, urteroko ohiturari jarraituz, ate irekien jardunaldiak egingo dituzte egun horretan, jende berriak probatzeko aukera izan dezan. Hala, 17:30etik 18:30era haurrei zuzendutako saioak egingo dituzte eta 18:30etik 20:00etara, aldiz, helduei zuzendutakoak. Orduetegi dagokionez, Jose Manuel Matas entrenatzaileak aurreratu du astelehen eta eguaztenetan egingo dituztela saioak; 17:30ean haurrek eta 18:30ean, helduek. Haurren klaseetan, aikidoa lantzeaz gain, psikomotrizitate eta meditazio ariketak egingo dituzte. Helduenetan, honako atal hauek landuko dituzte: aikido poliziala, aikibudoa, jiu-jitsu artearen oinarriak, arma zurien erabilera (jo, bokken, tanto...) edota meditazio ariketak.

## Kenpo taldea ere martxan

Ziorla Kenpo Elkartea ere martxan da jada. Eric Martin, Yeray Martin eta Sara Cabezas taldekideak izan dira lehenak entrenamendu saioekin hasten, Espainiako Txapelketa prestatzeko asmoz. Gainontzeko taldekide guztiak irailaren 5ean hasiko dira, eta haurrak, berriz, irai-



Ziorla Kenpo taldeko hainbat kide, entrenamendu saioetako batean. ZIORLA KENPO

laren 12an. Alberto Narro, Aitor Mondragon eta Iker Letona izango dira entrenatzaileak eta kenpoko borroka alorra eta kata alorra landuko dute ikasturte berrian, baita defentsa pertsonala ere. Kirol apur bat egiteaz gain, erresistentzia eta malgutasuna bezalako gaitasunak lantzen dituzte kenpoarekin, eta norbere burua defendatzen ere ikasten dute. "Hori guztia, ondo pasatuz eta barre batzuk eginez", dio Iker Letona entrenatzaileak.

Kenpokoek ere nabarmendu dute jende berriarendako ateak

zabalik dituztela eta borroka arte hori probatu nahi duten guztiei Musakolako kiroldegira joateko dei egin diete. Martitzen eta eguenetan entrenatzen dute helduek, 18:30etik 19:45era. Haurrek, berriz, eguenetan egiten dituzte saioak, 17:30etik 18:30era.

**Judokak asteartean hasiko dira** Arrasate Judo Elkartekoak ere irailaren 5ean, martitzena, hasiko dira eta martitzen eta eguenetan egingo dituzte saioak, Julio Gallegoren eskutik, 17:00etatik 20:00etara (ikus [Goiena.eus](http://Goiena.eus)).

## Mondranbike martxan izena eman daiteke, hilaren 21era arte

Besaide Mendizale Elkartek Artgazkiren laguntzarekin antolatzen duen martxa irailaren 23an egingo dute, 09:00etan Arizmendiarririetan plazatik abiatuta, eta dagoeneko eman daiteke izena, [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com)-en. 300 parte-hartzaileko muga ezarriko dute eta prezioari dagokionez, 15 eurokoa da federatuentzat eta 20 eurokoa, aldiz, federatu

gabekoentzat. Hiru ibilbide egongo dira aukeran: motza (30 kilometro eta 1.100 metro desnibel); luzea (37 km eta 1.400 m) eta *extrem* (41 km eta 1.700 m). Antolatzaileek azaldu dutenez, ibilbidearen markaketa "minimoa" izango da eta, beraz, derrigorrezkoa izango da GPS eramatea (edo ibilbidea mugikorrean deskargatuta izatea). Ibilbidean zehar anoa postu bat ere egongo da eta amaieran dutxak eta mangerak egongo dira, jateko paellarekin batera.

## Mondra, Beasain eta Touring, Arrasate Hiria torneoan, bihar

Bihar, zapatua, jokatu dute Arrasate Hiria 40. edizioa. Lagunarteko torneoarako Hirugarren mailako bi talde gonbidatu dituzte, Beasain eta Touring. Lehen partiduan, arrasatearrek Touring izango dute aurrean; 17:30ean, kanpotarren arteko lehia izango da, eta azken partiduan Mondra eta Beasain ariko dira nor baino nor gehiago.

## Arrasate Atletiko Taldeak zabalik du izena emateko epea

Kadete, gazte eta junior mailako atletak hasi dituzte saioak eta benjamin, alebin eta infantil mailakoak, bestalde, irailaren 11an hasiko dira. Benjamin eta alebin mailakoek astelehen eta eguaztenetan izango dituzte saioak, 17:00etatik 18:00etara eta infantil mailakoek, 18:00etatik 19:00etara. [Arrasateatletiko.com](http://Arrasateatletiko.com)-en eman daiteke izena.



## Debagoieneko AEK

A1, A2, B1, B2, C1, C2 mailak

Mintzapraktika taldeak

Autoikaskuntza

Programa + tutoretzak + praktika

Presentzialak eta on-line

Matrikula zabalik: 2023/09/4 - 2023/9/28

Orduetgia: 10:00 - 14:00 18:00 - 20:00

Iturriatz 21, beheko, (Herriko plazan) Arrasate

943 77 03 69 - [arrasate@aek.eus](mailto:arrasate@aek.eus)

[twitter.com/debagoienekoAEK](https://twitter.com/debagoienekoAEK)

[www.facebook.com/debagoieneko.aek](https://www.facebook.com/debagoieneko.aek)

DIRULAGUNTZAK

Bekak Arrasateko Udakaren eta HABEren laguntzaz!

ARRASATE • Garibai etorbidea 6  
[elVelocimetro.com](http://elVelocimetro.com) 640 33 22 48 • [info@elvelocimetro.com](mailto:info@elvelocimetro.com)  
[www.elvelocimetro.com](http://www.elvelocimetro.com)

**Maisu**  
e-Learning

**GIDABAIMEN OSOA**  
**899€**  
**BEZ-A BARNE**

Eskaintza urte amaiera arte





Kids&Us-en, Natural English metodoak ama-hizkuntza eskuratzeko prozesua erreplikatzeko du, haurrei modu natural eta espontaneoan ikasteko aukera emanez.

Kids&Us metodologia erabiltzeko ezinbestekoa da zentroetako edozeinetan 7 urte bete baino lehen hastea, etapa horretan baitago garuna modu naturalean eta espontaneoan ikasteko prestatuago; horregatik, eskainiko dituzten jarduerak 1 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude. Kids&Us ez da hizkuntzak irakasteko akademia tradizionala; haren metodologia hizkuntza berri bat eskuratzeko printzipio naturalean oinarrituta dago. Horregatik, Babies & Kids-eko etapa guztietan, jarduera guztiek jolasa, musika eta dantza erabiltzen dituzte ikasleen adin kognitibora egokitutako eguneroko egoera ugariri erantzuteko.

#### JARDUERAK

Honako jarduera hauek burutuko ditu Kids&Us Arrasatek irailean:

- Ateak zabalik: irailaren 1ean eta 15ean zentroa irekita egongo da 12:00etatik 20:00etara, intresa duen orok bere instalazioak

## Kids&Us Arrasate ezagutzeko doako jarduerak irailean

Irailean zehar, ingelesa irakasten duen Kids&Us Arrasate zentroak doako jarduerak batzuk egingo ditu bere metodologia iraultzailea ezagutarazteko

ikusi ahal izan ditzan eta metodologia ezartzeko erabiltzen dituzten materialak eta tresnak ezagutu ahal izan ditzan. Hamabi gela eta 250 m<sup>2</sup> baino gehiago, non ehunka haurrek ingelesa modu atsegina eta dibertigarria ikasten duten.

- Sukaldaritza osasuntsuari buruzko jolasak eta tailerrak:

**KIDS&US  
METODOLOGIAN  
EZINBESTEKOA DA 7  
URTE BETE BAINO  
LEHEN HASTEAN**

irailearen 8an Merkemerkaian eta 9an Gelmako jaietan. Bi egun horietan interesdun guztiak Babies ikastaroetako protagonistekin jolatu ahal izango dira: Mousy, Linda eta Bunny. Gainera, jolasak izango dira hareztzetan, arkatx magikoa, eta zure txikiarekin eta chef batekin errezeta goxoa prestatu ahal izango duzu.

- Doako proba-eskolak: irailaren 22an, ikasteko metodo berritzaile bat deskubritu ahal izango da barrutik; Natural English metodologia lehen pertsonan ikusi eta esperimendu ahal izateko erakustaldi-eskolak egingo dira.

- Haurrentzako antzerkia: irailaren 29an, 18:00etan, Mousyk -landa-sagu atsegina bat- Lindari -hiriko sagutxo bat- bisita egiten dionean zer gertatzen den jakingo duzue. Jarduera hori 1 eta 4 urte bitarteko umeentzat da.

Kids&Us munduan liderra den ingelesa irakasteko zentroa

**HIZKUNTZAREKIKO  
TREBETASUN  
HANDIENAK  
KONFIANTZAZ  
LORTZEA DA NAHIA**

da 1 eta 18 urte bitarteko haurrentzat. Materialak adin bakoitzaren errealitateari egokitzen dira, eta ikastaroak oso talde txikietan ematen dira. Kids&Us-en helburu nagusia haurrek hizkuntzarekiko trebetasun handienak konfiantzaz lortzea da. Kids&Us-en Natural English metodoak ama-hizkuntza eskuratzeko prozesua erreplikatzeko du, haurrei modu natural eta espontaneoan ikasteko aukera emanez. Halaber, haien emozioak kontuan hartzen ditu eta ikaskuntza-tresna esanguratsu bihurtzen ditu.

Sukalde-tailerretarako, erakustaldi-eskoletarako eta antzerkirako tokiak erreserbatu daitezke: QR kodearen bidez, posta elektronikoa bat bidalitz [arrasate@kidsandus.es](mailto:arrasate@kidsandus.es) helbidera; 943-05 15 46 telefono-zenbakira deituz edo whatsapp bat bidalitz 656 74 05 78ra. Edota Zentroa bisitatuz Euskal Herria plazako 13. atartean, Arrasaten.



# DISCOVER

## KIDS&US

my English





Kids&Us Arrasate - Euskal Herria Pl. 13 - 20500 Arrasate  
943 051 546 / 656 740 578 - [arrasate@kidsandus.es](mailto:arrasate@kidsandus.es)  
[@kidsandusarrasate](https://www.kidsandus.es)



# Trikitiaren doinuek hauspotuko dute kalea

Hauspo Eguna hiru egunez ospatuko dute: irailaren 7tik 9ra bitartean. Trikiti eskolako ikasleen kalejirez eta emanaldiez gain Xabier Solano Maiza trikitilariaren eta O Val das Mouras taldearen kontzertuez gozatzeko aukera egongo da Arrasateko kaleetan



2022ko Hauspo Egunean, trikitilariak herriko plazan. GOIENA

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARRASATE Ibai-arte merkataritza elkarteak eta Arrasate Trikitixa Eskolak, Udalaren laguntzarekin, elkar-lanean antolatuta, laugarren Hauspo Eguna ospatuko dute datorren astean, irailaren 7an, 8an eta 9an, hain zuzen. Hiru eguneko egitarau zabala prestatu dute. Trikitilari gazteenetatik hasi eta profesionaletaraino, askotariko doinuek entzungo dira Arrasateko kaleetan.

## Eguenean hasiko dute jai

Eguenean, irailaren 7an, trikiti eskolako kideen kalejirarekin emango zaio hasiera Hauspo Egunari, 18:00etan; baina, egitarauko zati mardulena, egubakoitzean izango da. *Eskola Plazara* egitasmoaren barruan, 18:00etan trikiti eskolatik plaza-iraino egingo dute kalejira ikasleek. Plazan, trikiti doinuez gain beste hainbat ekintza egongo dira, besteak beste, *Gurozuna jo* trikitilariarentzat, panderoak

egiten dituen artisaua, umeendako jolasak edo taloa jateko aukera. Era berean, datorren ikasturterako matrikulatzeko aukera ere egongo da, hori baita Eskola Plazara egitasmoaren helburu nagusia, etorkizuneko ikasle berriak erakartzea.

## Solano eta O Val das Mouras

Txikiaren trebetasunak pasoko emango die trikitilari profesionalen kontzertuei. Egubakoitzean, irailaren 8an, 20:00etan hasita, Xabi Solano Maizak, besteak beste, Esne Beltzako ikurrak, kontzertua eskainiko du Portaloian. Solanorena, ordea, ez da izango Hauspo Eguneko emanaldi esanguratsu bakarra. Zapatuan, irailaren 9an, 19:30ean, O Val das Mouras talde galiziarrrak kontzertua egingo du herriko plazan. Zelta-folk musika egiten duen taldeak Rosalia de Castro idazlearen poesia du oinarri. Bost lagunek osatzen dute taldea.

## Eskaintza zabalarekin dator Doke Antzerki taldea

Antzerki eskolarako izen-ematea zabalik dute; gainera, helduendako ikastaro trinkoa eskainiko dute

## A.E.G. ARRASATE

Doke Antzerki taldeak ikasturte berrirako eskaintza aurkezten du. Batetik, antzerki eskolako izen-ematea zabaldu dute. 2023-2024 ikasturtean antzerkiaren nondik norakoak ezagutu nahi dituenak eta taula gainera xarmaz gozatu nahi duenak aukera izango du Doke taldearekin. 8 urtetik 17 urtera bitartekoendako ikastaroa izango dute, irailetik ekainera bitartean emango dutena; gainera, helduendako ikastaro trinkoak izango dituzte urtean zehar. Informazio

gehiago jasotzeko eta izena emateko, [dokeikastaroak@gmail.com](mailto:dokeikastaroak@gmail.com) helbidean izango dute aukera.

Bestetik, helduendako interpretazio ikastaroa izango dute Amaia Lizarralde aktorearekin. Chejov teknikaren hastapenak eskainiko ditu Lizarralde. Kulturolan izango da ikastaroa: 10:00etatik 14:00etara bitartean: urriaren 21ean eta 28an; azaroaren 4an, 11n, 18an eta 25ean; eta, abenduaren 2an eta 16an. Izena emateko idatzi behar da [dokeikastaroak@gmail.com](mailto:dokeikastaroak@gmail.com) helbide elektronikora.



Irailak  
**1**  
ostirala

Irailak  
**2**  
larunbata

# GUZTIAREN

# BEZa

## oparituko dizugu

90 €-tik gorako erosketetan.



EROSKI App-a lehen aldiz deskargatzen baduzu

## 5€\*\*

opari



Irailaren 30era arte baina ez!



\* EROSKI clubeko bartzide baxaria, EROSKI hipermerkatuetan sustapenera abiltzako ataletan erosita produktuak BEZaren zenbatekoa sartuko dizugu EROSKI club bartelean, EROSKI club bartelean gehienez 250 € sartuko dira. Sustapenetik kanpo daude bitxigintza, testu-liburuak, esperientzia-paketeak, telefono-kargatzeak, E-pay aurreordaintza-bartelak, errebelatu digitala, entrega- eta instalazio-zerbitzuak eta zigilu bideko fidelizazio-sustapenetako produktuak. Kontsumatu gainerako baldintzak zure ohiko dendan. Baita [supermercado.eroski.eus](http://supermercado.eroski.eus) webgunean ere.

\*\* Irailaren 1etik 30era App-a lehen aldiz deskargatzen duten eta lehen aldiz izena ematen duten bezeroentzat, 5x40€ erosketa-kupoa App-a deskargatu denetik gehienez ere 7 eguneko ajean egongo da eskuragarri.



ARRASATE

Musakola z/j ARRASATE,  
Tel.: 943 71 10 30



Saioa Baena Abian fisioterapia zentroan, eskeletoa eskuan duela. A.E.G.

## Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa egingo dute

Saioa Baena fisioterapeutak emango du ikastaroa, irailetik azarora bitartean, astelehenetan, Aramaioko udaletxean. Emakumeendako ikastaroa da, bereziki, 20 eta 35 urte bitartekoendako. Izena eman behar da irailaren 8a baino lehen

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa egingo dute irailetik azarora bitartean Abian fisioterapia zentroko Saioa Baenaren eskutik. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da, astelehenetan, 18:30etik 20:00etara bitartean. Izena emateko epea irailaren 8an amaituko da eta saioak hasiko dira irailaren 11n -izena emateko idatzi berdintasuna@gorbeialdea.eus helbidera-. Aramaioko Udalak Laia eskolarekin elkarlanean antolatutako ikastaroa da.

Emakumeei zuzendutako ikastaroa izango dela dio Baenak, bereziki, 20 eta 35 urte bitartekoei: "Are gehiago, haurdun geratzeko asmoa duten emakumeei; izan ere, prebentziorako ikastaroa izango da. Gihar indartsuak izatea ezinbestekoa da haurraren pisua jasateko eta etorkizuneko disfunczioak saihesteko". 10 saioko iraupena izango du eta teoria eta praktika uztartuko ditu. "Helburua da emaku-

me guztiak heztea, kontziente izatea, euren buruak balioestea eta irtenbideak bilatzea; izan ere, bizitzan zehar, pubertaroan, amatasunean, menopausian..., modu batera edo bestera, euren pelbisaren anatomiak aldaketa fisiologikoak izango ditu". Gaineratu du oso garrantzitsua dela emakumeei behar dituzten tresnak izatea arazoari aurre hartzeko; edo, arazorik izanez gero, arazoa konpontzeko.

### Egingo dituzten ariketak

Zoru pelbikoaren muskulatura indartzeko Kegel ariketak, abdominal hipopresiboak, abdomen pelbikoa normalizatzeko ariketak, bola txinatarrak... erabiliko dituzte.

### PELBISAREN ANATOMIAK ALDAKETA FISILOGIKOAK IZATEN DITU BIZITZAN ZEHAR

Ariketak egiteaz gain, zoru pelbikoaren balorazio bat egingo zaio parte-hartzaile bakoitzari. "Postura, sabeleko muskulatura, diafragma... ere baloratuko dira, muskuluetan, lotailuetan eta faszietan izan ditzaketen alterazioak bilatzeko".

### Gernu galerak

Zoru pelbikoa indartzeko beharra dagoela adierazten duten seinaleak asko izan daitezke: "Eztula egitean, barre egitean edo korrika egitean gernu galera dutelako, sexu-harremanetan mina edo eragozpenak dituztelako, gernu-infekzioak, idorreria, edo baginan bola sentsazioa dutelako...". Zoru pelbikoari buruz tabu handia dagoela uste du Baenak: "Ikastaro hauetan, emakumeak identifikatu egiten dira beste emakumeekin eta konfiantza giroa sortzen da". Modu horretan, gaia normaltasunez tratatzen dutela dio. Baenak Udala eskertu nahi du horrelako ikastaroak babestearren.

## Formakuntza ikastaroak egingo ditu Gorbeialdeko Kuadrillak

Irail eta urria bitartean izango dira ikastaroak. Sare sozialak eta enpresen kudeaketa landuko dute, adibidez

### A.E.G. ARAMAIO

Gorbeialdeko Kuadrillak, Arabako Aldundiak diruz lagunduta, hainbat ikastaro antolatu ditu. Zazpi ikastaro antolatu dituzte guztira; horietatik bi ekainean egin zituzten eta irail eta urria bitartean egingo dituzte gainontzeko bostak.

Ikastaroak enpresaburuei, negozioen kudeatzaileei, langileei, langabetuei eta ekintzaileei zuzenduta daude. Ikastaroak izango dira: *Web, Seo posizionamendua eta erreserba kudeatzailea*, 16 ordukoa, Dani Arrilucea-

rekin; *Sare sozialen kudeaketa aurreratua*, 16 ordukoa, Dani Arrilucea irakaslearekin; *Nire enpresaren oinarriko kudeaketa*, 16 orduko ikastaroa, Eduardo Cespedesekin; *Nire negozioaren zerga-kudeaketa*, Eduardo Cespedes irakaslearekin, 16 ordukoa; eta, *Ostalaritzan eta komertzioetan lehen laguntza eta emergentzien aurreko jarraitbideak*, 15 orduko ikastaroa, Formazio Funtseko irakasleen eskutik. Informazio gehiago [ekonomia@gorbeialdea.eus](mailto:ekonomia@gorbeialdea.eus) helbidean eta 945 43 01 67 telefonoan.

## Argazki lehiaketara urriaren 18ra arte aurkez daitezke lanak

Gorbeialdeko Kuadrillak XXI. argazki lehiaketa deitu du, *Orain Gorbeialdea, inoiz baino gehiago* izenarekin. Lehiaketan, Gorbeialdeko Kuadrillan hartutako argazkiak bakarrik onartuko dituzte: Aramaio, Arratzua-Ubarandia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia. Argazkiak aurkezteko epea urriaren 18an amaituko da.

Argazkien formatua horizontala izan beharko da; izan ere, 2024ko egutegian erabiliko dituzte; argazkiak lehenago argitaratu gabeak eta beste lehiaketaren batean saritu gabekoak izan beharko dira. Sarituko dituzte lehiaketako irabazlea, eta herri bakoitzeko bi argazki. Sariak izango dira: lehenengo saria 150 euroko txartela Gorbeialdeko establezimenduetan gastatzeko; herriko argazki onenak 100 euroko txartela, eta bigarrenak 75 euroko txartela.

## Marixekako jaiak ospatuko dituzte etzi, domeka

Etzi, irailaren 3an, domeka, Marixekako jaiak ospatuko dituzte. Iraileko lehenengo domekan ospatzen den jaia preziatua izaten da aramaioarrendako; bada, egun osoko egitaraua antolatu dute. 11:00etan, salda, txorizoa eta edatekoa izango dute ermitaren aurrealdean; 12:00etan, meza esango du apaizak; 12:45ean, kantu poteoa egingo dute eguerdi aldean alaitzeko; 14:30ean, bazkaltzeko ordua izango da; eta arratsalde partean umeendako jolasak izango dituzte ermitaren aurrealdeko zelaian. 18:00etan hasita, poniak eta egurrezko jolasak egongo dira Marixekan etxeko txikiak gozamenarako.

## Irakurle klub feministako ateak zabalik dituzte

Aramaioko euskarazko irakurle klub feministak ikastaro berria hasiko du irailean. Taldean parte hartu nahi duenak mezua idatz dezake [berdintasuna@gorbeialdea.eus](mailto:berdintasuna@gorbeialdea.eus) helbidera irailaren 11a baino lehen. Irakurle taldea hilean behin elkartzeko da, bi orduz, irakurri duten liburuz hitz egiteko. Taldeko dinamizatzailea Ainhoa Aldazabal da, Skolastika enpresa feministako kidea. Interesa duen edozein emakume, taldean parte hartzera animatu nahi dute.

Emakumeen historia, ondarea eta ondare-literarioa ezagutzeko lekua izaten da irakurle kluba. Ikasi, partekatu, hausnartu eta ahalduzko gunea.





Udal ordezkariak ikurrinaren agurrean.



Haurrentzako jolas-parkea.



Milagroko bandako hainbat kide kontzertuko une batean.



Gazteak bazkaltzen txosnagunean.



**MATRIKULAZIOA ZABALIK**

📞 660 585 477 / 658 714 864

✉ [inlingua.languages@gmail.com](mailto:inlingua.languages@gmail.com)

Jose Arana 19  
Eskoriatza

Andra Mari auzunea 2  
Aretxabaleta

## Askorako eman dute aurtengo andramaixek

Aurten ere festa giro ederra izan dute aretxabaletarrek. Eguraldia lagun izanda, orotariko ekintzak, kontzertuak eta ikuskizunak izan dira herritarren gozamenerako. Udal ordezkariak jai "anitz" eta "parte-hartzaileak" nabarmendu dituzte

**Oier Zumarraga** ARETXABALETA  
Gozatu ederra hartu zuten jaietako bost egunetan, beste behin, eta, askotariko egitarauaren baitan jendetza elkartu zen herriko kaleetan. Kuadrillan, familian edo lagunartean herritarrek ikuskizun, ekintza eta orotariko kontzertuekin gozatu zuten. Horren harira, Gari Iturbe alkateak eskerrak eman zizkien jaiak ospatzeko laguntzen jardun zuten eragileei, boluntarioei eta langileei: "Gazteengandik hasita, ikusten da herriarentzako nolako lana egiten duten, eta, beste behin, antolakuntza handi bati esker gauzak aurrera ateratu dituzte". Geroz eta herritar gehiago itzultzen

dela etxera abuztuaren erdian ere nabarmendu zuen.

**Txupina Aretxartekoek**  
Aretxarte merkatarien elkarteak botatako txupinarekin eman zieten hasiera jai ofizialei eta urteroko ekitaldiek harrera beroa izan zuten: ikurrinari agurrak, herri bazkariak, Milagroko bandaren emanaldiak eta sokamuturrak, esaterako. Txosnaguneko ekitaldiak ere arrakastatsuak izan ziren; hala, Albina Stardust eta Divina Comediaren ikuskizunak eta Zopilotes Txirriaos eta Bizkardunak taldeen emanaldiek jendetza batu zuten eta sekulako giroa sortu. Kuadrillen Eguneko jola-

sek, ostera, gazte bete zuten Herriko Plaza.

**Txirringularitza lasterketa**  
Kirol ikuskizunek ere eman zuten zeresana, bereziki, Leintz Bailarako Itzuliak. Ezjakintasunez eta zalantzez beteriko egunen ondoren, lasterketa gorabeherarik gabe egin ahal izan zen eta Laboral Kutxa taldeko Ander Ganzabalek irabazi zuen 84.egun egin zen proba. Pilota partiduek eta bola-txapelketak ere ikusmin handia eragin zuten.



Andramaixetan jasotakoa ikusteko, eskaneatu QR kode hau eskuko telefonoarekin.

**GUREA TABERNA**

Durana 32 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 20 64





Herriko merkatarien pregoia udaletxeko balkoitik.



Kuadrillen arteko jolasak.



Herritar bat paellarekin.



Herriko musikariek osatutako Bizkardunak taldearen emanaldia txosnagunean.



84. Leintz Bailarako Itzulia txirringuluri lasterketako irabazleak.

**GORABEHERARIK  
GABE EGIN ZEN 84.  
LEINTZ BAILARAKO  
ITZULIA, ZALANTZA  
ASKOREN ONDOREN**

**BIZKARDUNAK  
TALDEAK TXOSNA  
BETE EGIN ZUEN ETA  
IKUSLEAK DANTZAN  
JARRI ZITUEN**



Durana kalea zezenezalez beteta sokamuturreko une batean. ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO

**EUSKAL  
OGIA**

GURE GARIA, GURE OGIA  
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN

**K** EUSKAL LABE  
EUSKAL LABE, GARAZ EDINAKO OGIA  
ESPECIALIZATUAK TROIA  
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN  
PAN ELABORADO CON TRIGO (EUSKAL LABE)

**BEROA OKINDEGIA**  
Basabe poligonoa 2 / Loramendi 6  
Aretxabaleta

**hazi**

**IOSU**  
harategia • taberna

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08

**ANDRA MARI**  
ASESORIA / AHOLKULARITZA

Fiskala  
Kontablea  
Juridikoa eta laborala

Araba ibilbidea 20A, behea • Aretxabaleta  
943 79 29 26 • joseluis@asesoriaandramari.com

**MAKAI**  
S. COOP. ETOA

Barruko eta kanpoko lorategiak  
sortu eta zaintzen ditugu  
Ureztatze-sistema automatikoak  
instalatzeko ditugu

Basabe ind. D-2-1, Aretxabaleta  
943 79 78 45 • makai@makaiscoop.com





Adinekoendako gizarte zentroa izango den komentu zaharraren eraikina. IÑIGO BARRENA

# "Pozik" adinekoen zentrorako laguntzarekin

Miloi bat euroko dirulaguntza jasoko du Udalak komentuan egokitzen dabiltzan adinekoentzako gizarte zentro berriaren lanentzat; Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zaintza eta Gizarte Politiketako Sailarekin izandako "lankidetzaren" ondorioa da

## Mirari Altube ARETXABALETA

Agustindar mojen komentua izandako eraikinean adinekoentzako gizarte eta komunitate zentro berria eraikitzen dihardute iazko azarotik. Esandako epeak betetzen ari direla adierazi dute Udaletik, eta ondo bidean, urte amaierarako bukatuta egotea espero dute. Urdinberri, Viuda de Sainz eta Gertek enpresek osatutako aldi baterako elkarteari eman zion lanen ardura aurreko agintaldiko Udal Gobernuak 2.093.080 eurotan, eta orain, abuztuan, jakin dute miloi bat euroko dirulaguntza jasoko duela Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

## Proiektu "estrategikoa"

Udalean ordezkaritza duten bi alderdiak pozik agertu dira laguntzarekin. EAJko bozeramaile Mikel Uribebarriak bi arrazoi eman ditu: "Batetik, Aldundiarekin aurrez egindako lanari balioa ematen dio. Eta bestetik, gure programan zehaz-

tutako proiektu garrantzitsuenetakoa da. Horregatik, gu, lanean jarraitzeko guztiz prest gaude". Gaineratu du Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako Sailarekin "lankidetzaren" hasitako hartu-eman baten ondorio dela dirulaguntza.

Garikoitz Iturbe alkatea ere gustura agertu da: "Halako laguntza jasotzea Udalarentzat oso garrantzitsua da. Proiektua babestera dator bai ekonomiko, bai estrategikoki ere". EH Bilduko ordezkariak, baina, hasierako hausnarketa eta beharrik identifikatzeko lana beste modu batera egin behar zirela uste du. Eta gaineratu du hainbat puntutan zehaztasuna falta dela: "Ez dakigu oraindik taber-

**HAINBAT PUNTUTAN ZEHAZTASUNA FALTA DELA DIO EH BILDUK; EAJ PREST AGERTU DA LAGUNTZEKO**

naren kudeaketa zelakoa izango den, eguneko zentroa ere erabat definitu gabe dago... Kontu bat da bilgarria; eraikin txukuna eta laguntza politarekin datorrena, baina gero, denboraz estu ibiliko gara gainerako guztia zehazteko. Gurako gure hori guztia, ahal den neurrian, herritarrekin eta erabiltzaileekin kontrastatzea eta aurrera egitea".

Ildo horretatik, EAJkoak "prest" daude proiektua bukatu bitartean "hartu beharreko erabakietan laguntzeko" Uribebarriaren esanetan: "Eraikina diseinatzerakoan pentsatu da emango duen zerbitzuetan. Eta aukera egongo da zerbitzuak pausoz pauso martxan jartzeko. Gure babesa izango du EH Bilduk, eta aurretik egindako guztia partekatuko dugu".

Bi alderdietako ordezkariak azpimarratu dute estrategikoa dela proiektua. Han kokatuko dira eguneko zentroa, Basotxoren taberna eta bulegoak eta areto bat.

## Lehiaketa deitu du Aretxartek poltsatako irudia aukeratzeko

Poltsak banatu gura ditu merkatarien elkarteak bezeroen artean eta irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du. Komertzio txikien aldekoak izan beharko dute horiek, eta irabazleak 100 euroko bonua jasoko du. Parte hartu ahal izango dute 16 urtetik gorakoek, eta marrazkia, honako helbidera bidali beharko da: [aretxarteelkartea@gmail.com](mailto:aretxarteelkartea@gmail.com). Horretarako azken eguna irailaren 15a da.

Bestetik, Ixadebalde merkealdien azoka egingo dute irailaren 7tik 9ra bitartean. Saltokien aurrealdean izango dituzte merkaturako produktuak honako hauek: Asensio, Kilima, Tak, Amaia ume denda, Belar Meta, Hankabeltz eta Almila Shop.

Eguenean eta egubakoitzean goizez eta arratsaldean izango dituzte produktuak kalean (10:00-13:30 eta 16:30-20:00) eta zapatuan, bakarrik goizez (10:00-14:00). Gainera, bezeroen artean 100 euroko hiru bonu zozketatuko dituzte Aretxarteko kideek.

## Espetxean, bi pertsona tiroz zauritzeagatik

Uztailaren 31n suzko arma batekin bi gizonen zauritu zituen 39 urteko aretxabaletarra espetxeratzeko agindua eman zuen epaileak giza hilketara eta armak legez kanpo edukitzea leporatuta. Ertzaintzaren esanetan suzko armak, aire konprimatuko armak, arma zuriak eta lehergailuak egiteko erabili ohi diren substantziak aurkitu zizkioten.

## Tomatearen lehiaketaren izen-emate epea bukatzen

Bertako tomatearen Euskal Herriko lehiaketa egingo da lehenengo irailaren 10ean. Parte hartzeko aurrera eman behar da izena eta azken eguna hilaren 6a da. Horretarako, mezu bat bidali behar da, datu guztiakin, [kultura@aretxabaleta.eus](mailto:kultura@aretxabaleta.eus) helbidera. Tomateak hilaren 10ean, 09:30etik 10:30era, aurkeztu beharko dira.

**ASENSIO • KILIMA  
TAK • AMAIA UME DENDA  
BELAR META • HANKABELTZ  
ALMILA SHOP**

**IXADEBALDE**  
*Aretxabaletako XXV. merkealdien azoka*

**Irailak 7 eta 8**  
10:00 - 13:00  
16:30 - 20:00

**Irailak 9**  
10:00 - 14:00

**100 euroko 3 bonu**

**POSTUAK DENDEN KANPOALDEAN**

EUSKALDE  
Aretxabaletako Udala



# "Emakumeen futbolak indar dezente du hemen"

**MAIDER AZKARGORTA** IRAKASLEA ETA UME-ZAINTZAILEA

Australian bizi da duela zazpi hilabetetatik; ingelesa ikastera joan, eta lanean dabil gaur egun, haurrak zaintzen. Munduko futbol txapelketa bertatik bertara jarraitu du

**Hasier Larrea** ESKORIATZA

Belgikan Erasmusa egin zuenetik mundua ezagutzeko gogo sartu zitzaion Maider Azkargortari (Eskoriatza, 1998). Pandemia ostean ez zuen bitan pentsatu, eta joan den otsailean Brisbanera (Australia) joan zen.

**Ze helburrekin joan zinen hara?**

Ingelesa ikasteko ikastaroa egitea zen hasierako asmoa. Sei hilabete iraun zuen eta dagoneko bukatu dut. Egia esan, gehiago ikasten da kalean edota lanean, eskolan baino. *Slang*-a darabilte, bertako ingelesa, nolabait. Adibidez, *breakfast* esan ordez, *brekkie* esaten dute, eta *afternoon* beharrean, *arvo*.

**Lan egiteko aukerarik izan duzu?**

Azkenaldian murriztu egin dira aukerak, kanpotar asko etorri garelako. Edozein lan egiteko tituluren bat atera behar da. Bizitza garestia da hemen, beraz, hasieran toki guztietara deitzen nuen lan egiteko: garbitzaile, zerbitzari... berdin zitzaidan. Baina irakaskuntza ikasi dudanez, ume-zaintzaile aritzeko nahia nuen, eta Facebook taldeen bitartez familia batengana iritsi nintzen. Astean hiru egunez zaintzen ditut euren haurrak, eta beste bi egunez beste familia batenak. Asteburuetan atsedean hartzen dut.



Brisbane-ko Suncorp estadioan. M.A.

**Nolakoa da jendea?**

Oso jatorra. Kontziente dira kanpotarrok euren hizkera ulertzen ez dugunean, eta eskertzen dute guk euren hizkuntza ikastea. Elebakarrak direnez, inbidia dute. Gainera, ondo datorkie gu hona etortzea, egin nahi ez dituzten lanak egiten ditugulako. Okerrago portatzen dira aborigenekin, nabari da arrazismoa kalean.

**Munduko Kopa jarraitu duzu?**

Brisbanen partidu batzuk jokatuta dira eta futbol zelaia bizi naizen etxearen alboan dago.

Lagunei esan nien joan beharko ginela partidu bat ikustera, behintzat. Ingalaterra eta Nigeriaren artekoa ikusi genuen zuzenean. Esan behar da Australian errugbiak mugitzen duela zalegoa bereziki; hala ere, emakumezkoen futbolak indar dezente dauka, bertako selekzioari *Matildas* deitzen diote.

**Norbere selekzioa animatzera jende asko joan al da?**

Ikusi ditudan gehienak Australian bizi diren kanpotarrak izan dira. Australiarrek ere asko jarraitu dute euren taldea. Estadio kanpoan postuak, jokoak eta publizitatea jarri dituzte, eta hirian zehar bi pantaila handi. Espainia eta Ingalaterraren arteko finala horietako batean ikusi nuen, giro ederrean.

**Sari banaketan gertatukoaren oihartzuna nolakoa izan da han?**

Rubiales aferak ez du zarata handirik atera. Nire ingurukoek ez didate horri buruz galdetu. Jokalari askok eman dute euren iritzia, baina herritarrek, dirudenez, ez. Irakasle batek behin esan zidan hemengo gobernuak dena estaltzen duela, kanpora begira irudi segurua eta perfektua erakusteko.

**Ze asmo duzu aurrera begira?**

Printzipioz, beste urtebete egingo dut hemen, gustura bainago.



Kokein taldeko kideak. KOKEIN

## Errekan Gora jaialdiko zazpi musika taldeak baieztatuta

Kokein, Irati Etxebarrieta, Pasadena, BBBB, Xiberoots, AM Big Band eta Nevadah, irailaren 15etik 17ra

**H.L.** ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkartearen eskutik, iraileko hirugarren asteburuan goi mailako zazpi euskal musika taldez gozatzeo aukera izango dute zaleek. Herriko Plaza izango da oholtza bakarra, Broken Brothers Brass Band taldeak kalejira estiloan jotzen duela kontuan hartuta. Iruñeako funk, gospel eta jazz musikariaren hotsak zapatuan, hilak 16, entzungo dira erdigunean zehar, 19:00etan hasita.

Gainontzean, Eibarko Kokeinek irekiko du jaialdia ostiralean, *Atomika* diskoa, ibilbideko zaz-

pigarrena, aurkeztuta. Zapatarako lau kontzertu daude programatuta, BBBBrena barne. 12:00etako herriko artista batek, Irati Etxebarrietak, emango du, ZeDemontre lehiaketako irabazleak. Jarraian, Gasteizko Pasadena taldearen txanda izango da; Izaki Gardenak taldeko hainbat kide daude atzean. 22:30ean, Xiberoots-en reggae doinuek dantzazaziko dute publikoa.

Arrasate Musikal Big Band-en eta Nevadah durangarren kontzertuekin agurtuko da Errekan Gora domekan; 13:00etan izango da bata, eta 19:30ean bestea.

## Merkatariek opor bueltako parrillada antolatu dute biharko

Axtroki elkarteko saltzaileek lehen aldiz egingo dute oporren bueltako ongi etorri jaialdia. Herriko plazan izango da bihar, zapatua, 19:00etan. Eskoriatzako harakinen okela errea dastatzeko aukera emango dute, "herritarrei hemen gaudela esateko", Eider Kortazar merkatariaresanetan. Musika, Burrunbazale txarangak jarriko du.

## Intxaurtxueta eta San Pedroko bazkarirako izen ematea zabalik

Bi auzoetako jaiak datorren asteburuan ospatuko dira, hilaren 8tik 10era. Askotariko ekitaldien artean, auzo bazkaria egingo dute zapatuan kiroldegian, eta bertaratu gura dutenek izena eman beharko dute. Auzoko tabernetan egongo dira tiketak salgai irailaren 3rarte. Gaur arratsaldean Partxis plazan ere erosi ahaliko dira.

## Haurdun daudenei eta jaioberriak dituztenei zuzendutako tailerra

Asteazkenean, hilak 6, *Mugimendu askea eta kalitatezko zaintza* izeneko tailerra eskainiko dute Esti Aguado eta Miren Segura irakasleek Jose Arana gunean, 17:00etan. "Pikler-en ideietatik abiatuta, Arizmendi Ikastolan konfiantzaren pedagogia lantzen dugu, eta asmoa da gurasoekin esperientzia hori elkarbanatzea", azaldu dute.



ISABEL VILLAR

## Umorea eta musika Mazmellan

Mazmela elizateko jaiak San Bartolome egunaren bueltan izaten dira, abuztuaren 24aren ondorengo zapatuan. Aurten abuztuaren 26an tokatu denez, bazkaria egin zuten Basauria elkartean, "umoreak eta musikak lagunduta", elkarteko presidente Isa Villarren hitzetan. Bazkal ostea trikitilariak girotutakoa izan baitzen.



# Jaien atzerako kontaketa abian

Datorren astean ospatuko dituzte herriko jai nagusiak, Dorletaren omenezko Andramaixak. Eguenetik domekara bitartean, makina bat ekitaldi daude antolatuta

**Hasier Larrea** LEINTZ GATZAGA

Aretxabaletako Andramaixei Gatzagakoei hartzen diete erreleboa irail hasieran, ikasturtea hasi bezain pronto. Herrigintza izaten dute ardatz, Udalaren eta Gatza City Krew, Sorginak, txirringintza elkarteak, jubilatuen eta Gurel moduko eragileen arteko elkarlana, alegia. Hala, "euskal giroan, falta zaizkigunak eta egoterik ez dutenak oroituz", ospatuko dituzte jai egunak, Dorleta Elkorobarrutia alkateak herritarrei bidalitako mezuan azpimarratu bezala.

Eta urtero legez, esku zabalik hartuko dituzte bailaratik eta Otxandio ingurutik bertaratu-ko diren bizilagunak.

Eguenean, hilak 7, egingo dute jaien baitako lehen ekitaldia; 19:00etan nobena amaiera ospatuko dute, eta ordu erdi geroago ogi eta gazta mokadutxo zain izango dute herriko plazan.

**Ostiral bete-betea**

Hurrengo egunean emango diote hasiera ofiziala Andramaixei, 12:00etan. Oinez etorriko diren

otxandiarrei ongi etorri beroa egingo diete lehenengo: "Hango haurrak ere espero ditugu, jai hartuko baitute eskolan", aipatu du Aiora Elkorobarrutia Kultura zinegotziak. Segidan, Aretxabaletako abesbatzak girotuko duen mezarako bidea hartuko dute.

13:00etarako salda eta pintxoekin bete ahalko dute sabela. Etxeko txikienei dibertitzeko aitzakiarik ez zaie faltako ordurako: buruhandi, askotariko jolas eta bonba japoniarrekin entretenitzeko aukera izango



Joan den urteko dantzaldian. GOIENA

dute bazkal aurretik, eta ostean, 17:30ean, bainu jantzia jarrita azalduko dira kalera, apar festaz gozatzeko.

Ilundu ahala beste tonu bat hartuko du egitarauak. Uztaileen Eugenio Otsoa izena jarri zioten bolatokia 21:00etarako irekiko dute, eta 23:00etan bolo txapelketari ekingo diote.

**Autobusak gauerako**

Bien bitartean, herriko plazan punk-oi! kontzertuak bereganatuko du arreta, 22:00etan hasita. Gatza City Krew-ko

antolatzaileen ekimenez, Erne, Kaleko Urdangak, Azken Sustriak eta Lehen Lerroa taldeek berotuko dute giroa abesti sutsuekin. Hortaz, tokiko musika talde entzutetsuei oholta eskainiko diete osterara ere Andramaixek, eta jarraitzaileen aldetik harrera jendetsua espero dutenez, joan-etorria Lurraldebusko autobusetan egiteko zerbitzu berezia egongo da 21:00etatik 05:00ak arte. *Food-truck* bat ere jarriko dute ordu txikitik afaldu ahal izateko.

**sormen ODD**  
We design products



**Ondo pasa  
Andramaixak!**

943 71 49 52  
[www.gureametsa.es](http://www.gureametsa.es)



**Zapatuan, afaria eta dantza**

Hurrengo egunean txistulariek esnatuko dituzte parrandazaleak 10:00etarako. 11:30ean, Potx magoak ikuskizuna eskainiko du, eta 13:00etan Los Tenampas mariatxien kantu itsaskorrek mugituko dituzte askoren gerrak. Bezperakoen ildotik, haurrek oraingoan puzgarrietan egin ahalko dute jolas, 16:00etan hasita. Kartazaleei, berriz, briska eta mus txapelketetan jokatzeke tenorea 17:00etan iritsiko zaie. Arratsaldean musikaz janzteko ardura Arizmendi Ikastolako txarangak izango du zapatuan, 18:00etarako.

Zalantza barik, gatzagarrek gogo handienarekin hartzen duten ekitaldietako bat da herri afaria. 21:30ean eseriko dira frontoiko mahaien bueltan, entsalada, haragi-errea eta flana jateko. Afal ostean erromeriara

## KONTZERTUAK, AFARI HERRIKOIA ETA HERRI KIROLAK DIRA EKITALDI ESANGURATSUENAK

batuko dira, Ken Bat taldeak joko dituen kantuak ez baitira oharkabeen pasako inorentzat: "Jendea ez dadila Ken Zazpi taldearekin nahastu", adierazi du Elkorobarrutiak.

**Herri kirolak bukaeran**

Domekak zapatuaren tankeran argituko du, txistularien kalejirarekin. Azken eguneko plater nagusia, ohi bezala, 12:30ean hasiko diren herri kirolak izango dira. Goi mailako aizkolari eta harri jasotzaileen indar erakustaldiek txundituta utziko dituzte ikusleak, beste behin.

Ekitaldiaren ostean, 13:30ean, trikiti doinuekin alaitutako pintxo-poteoan murgilduko dira herritarrak. Flamenco eta euskara uztartuko dituen emanaldi akustiko goxoarekin amaituko dituzte aurtengo jaiak, Alarma Morea hirukotearen eskutik, 18:30ean.

**Gatz Museora bisitak**

Bestalde, herriaren jatorria saskon ezagutzeko parada ere izango dute jaietara doazen bisitariek. Izan ere, ostiraletik domekara bisita gidatuak egingo dituzte

Gatz Museoa, 12:00etan euskarazkoak eta orubete berandua gaztelerazkoak.

**"Errespetuz gozatu"**

Gatzagako Udala eskertuta agertu da jaiak aurrera ateratzeko ekarpena egin duten guztiekin, eta honako mezua helarazi du: "Betaurreko moreak aldean ditugula, jaietako aterkirik politena gure herriko mendi magaletan marrazten den ostadarra izan dadila; arduraz eta errespetuz goza dezagun".



Neska-mutilak apar artean jolasten. GOIENA

## Ostiral gaueko autobus zerbitzu berezia

Oñati	Arrasate	Aretxabaleta	Eskoriatza	Leintz Gatzaga
21:00	21:15	21:25	21:35	21:45
22:30	22:45	22:55	23:05	23:15
00:00	00:15	00:25	00:35	00:45
Leintz Gatzaga	Eskoriatza	Aretxabaleta	Arrasate	Oñati
01:00	01:15	01:25	01:35	01:45
02:30	02:45	02:55	03:05	03:15
05:00	05:15	05:25	05:35	05:45

**ANDRAMAIXAK 2023**

**LEINTZ GATZAGA**

ALARMA MOREA

POTX MAGO

Inailak 8, 9 eta 10  
Jai zoriontsuak gatzagan guztiei!



# Ekitaldi zibiletarako gune berrirako lanak martxan

Laboratorium atzealdean jarriko dute hileta edota bestelako ekitaldi zibilak egiteko gune berria, eta horretarako lanei abuztu hasieran ekin zieten Goitu Eraikuntzak enpresako langileek; dena ondo bidean, 2024. urtearen hasieran erabilgarri egongo da eraikina

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Abuztu hasieratik martxan dira Bergaran ekitaldi zibilak egiteko gune berrirako obrak. Laboratorium museoaren atzealdean kokatuko dute zerbitzu berria, garai bateko zalditegia zegoen lekuan. Proiektua nondik datozen eta kokapena nola aukeratu den azaldu du Udaleko Lurralde batzordeko ardura-

dun-zinegotzi Markel Azkargortak: "Herritarren eskaera bati erantzutera dator proiektua. Gero eta eskari gehiago dago ekitaldi zibilak egiteko, izan ezkontzak, agurrak, hiletak edota bestelakoak. Gaur egun, adibidez, Bergaran hileta zibiletarako leku bakarra dago, Oxirondo plaza eta Katabia kale bitartean, Santa Marina elizaren

ondoan. Herritarren eskura dagoen baliabide bat da, baina nahiko leku hotza da halako ekitaldietarako. Horregatik, zenbait buelta eman ondoren, Errekalde jauregiaren atzeko aldeko zalditegiek erabilerarik ez zutela ikusi zen. Kokapena ere egokia da, erdigunetik gertu dagoelako eta inguruak ematen du nolabaiteko intimitatea,

esaterako, hiletak ospatzeko. Badu bere xarma, eta goxoa da".

## Abuztuan hasita, bost hilabete

Obraren helburua da Laboratorium museoaren atzealdeko zalditegiaren estalkia berritzea eta herritarrei baliabide berri bat eskaintzea ekitaldi zibiletarako, izan hiletak edo bestelakoak. Hala, estalkiaren azpian geratzen den espazioa erabat irekita geratuko da, alboko eraikinaren ondoko eremuan izan ezik. Eremu horretan komunak eta atzeko biltegi txiki bat planteatzen dira, eta ez da aurrekusten eraikina fatxada baten bidez ixtea, baizik eta arkupe gisa irekita geratuko da. Goitu Eraikuntzak enpresari esleitu zion Udalak proiektuaren exekuzioa; lehiaketa publikora irten zen aurrekontua 208.350 eurokoa bazen ere, lehiaketa amaitu ostean kontratuaren prezioa izan da 202.121 eurokoa, BEZ barne.

Esandako moduan, enpresa eraikitzaileko langileek abuztu hasieran ekin zieten lanei –idatzitako proiektuan aldaketa batzuk egin behar izan zituzten– eta aurreikuspena da bost hilabetetan amaitzea; oraingoz, lanak aurreikusi moduan doaz. Beraz, dena ondo bidean, 2024. urtearen hasieran erabilgarri egongo litzateke ekitaldi zibiletarako gune berria.

## Ordenantza irailean, Udalean

Zerbitzu berrirako ordenantza ere lantzen ari da Udal Gobernua, Azkargortak adierazi duenez: "Gaur egun badago udalbatzak onartutako ordenantza bat, 2010eko dena, Bergaran hileta edo omenaldi zibilak egiteko. Ordenantza hori berritu egin beharko da; zirriborro bat ba-

dugu esku artean eta irailean landuko da gaia Udalean. Bestalde, erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei ekitaldi zibilak egitea erraztu asmoz beste hainbat gune bideratzea ere aurrekusten dugu. Boluko frontoi estalia edota auzoetako gainerako frontoiak izan daitezke horren adibide".

## "Garrantzitsua" EH Bildurentzat

Udal Gobernuarentzat proiektu garrantzitsua den galdetuta, honako hau adierazi du EH Bilduko zinegotziak: "Premia herritarrengandik sortu bada ere, kontuan izanik herri ez-konfesional eta laiko baten bizi gara, erakundeok halako eskaerei bide eman behar diegu. Beraz, bai, proiektu garrantzitsua da Udal Gobernuarentzat".

Horrez gain, Azkargortak dio "ahalegin handia" egin duela Udalak azken urteetan hainbat eraikinei erabilera berri bat emateko: "Ahalegin handia egiten ari da Udala eraikin ezberdinak berritzen herritarrei zerbitzu hobek emateko asmoz: hilerriko kapera eta Arrizuriaga jauregia dira horren adibide garbiak, eta orain, Errekaldeko zalditegi zaharra berritzea tokatzen da. Nabarmenduko nuke badaukagula nahikoa udal eraikin, berriak altxatu beharrean berrituz gero, bergararren beharrak asebate eta herri bizigarriago bat eraikitzen lagundu dezaketena. Eta horretan ari gara".

**AURREKONTUA DA 202.121 EUROKOA, BEZ BARNE; EXEKUZIO EPEA, BERRIZ, BOST HILABETEKOA DA**



Garai bateko zalditegian, Laboratorium atzealdean, ari dira ekitaldi zibilen gunerako lanak egiten. JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU

## Instrumentu ugari ostu dituzte Labegaraietako lokal batetik

Jabeak astelehenean ohartu ziren lapurretaz; bateria bat, gitarra bi eta hiru biolin lapurtu dizkiete, besteak beste

**J.B.L.** BERGARA

Labegaraietako Telleria kalean kokatuta dagoen lokal baten sartu dira lapurrak, eta hainbat musika instrumentu ostu dituzte. Lokalaren jabeak astelehenean, abuztuak 28, ohartu ziren

lapurretaz: "Atzeko teilatuaren ondoko leiho bat apurtuta zegoen, eta alarma bere lekutik aterata. Ez dugu kalkulatu zenbateko zehatza, baina kaltea handia da". Astelehenean bertan jarri zuten salaketa Ertzaintzan.

## Lokaleko jabeak, "harrituta"

Hainbat instrumentu lapurtu dizkietela salatu dute lokaleko jabeek. Besteak beste, honako material hau falta zaie: bateria oso bat –estalki, plater eta gainerako elementu guztiek–, gitarra bat –eta umeendako beste gitarra elektriko bat–, biolin elektriko bat, biolin akustiko bat, tronboi bat, zenbait aplikadore –tarrean, baxu baten aplikadorea eta dagokion buruko– eta hiru mikrofono. Lapurretaz ohartu eta berehala



Ostutako biolinetako bat. M.E.

jarri zuten salaketa Ertzaintzan: "Harrituta gaude aspaldian ez dugulako entsegu lokal moduan erabili; uste dugu inork gutxi dakiela bertan instrumentuak zeudela. Musika estudio bat dago ondoan eta pentsatu dugu akaso bertan lapurtzeko asmoa zutela, baina ziur ez dakigu ezer. Itxaropena dugu Bulgarian erositako, zuriz margotutako, eta beraz, bakarra den biolina nonbaiten aurkitzeko; eta horrekin batera ostu diguten gainerako materiala berreskuratzeko".





Bergarako Udal Artxiboko arduradun Arantzazu Oregi artxiboko deposituan, eguazten goizean. JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU



Artxiboaren Misterioa ihes-gelako mikro-filmaren erronka. ARTXIBOA

## Irtetea oso zaila, baina ez ezinezkoa

Artxiboaren Misterioa ihes-gela probatu nahi duena [bergarakoartxiboa.eus](http://bergarakoartxiboa.eus) atarira sartu beharko da eta erronkari ekiteko alde aurretik gordeta ez dagoen izen bat idatzi besterik ez da egin behar. Misterioa argitzea oso zaila da, baina eskatu daiteke laguntza.

# Gazteak harrapatzeko, ihes-gela birtuala ere bai

Udal Artxiboak abuztuan eman zuen ezagutzera 'Artxiboaren Misterioa' izeneko ihes-gela edo 'scape-room'-a, bereziki jende gaztea erakartzeko asmoa duena. Leku fisikorik ez dutenez, online jolasteko egin dute, 'bergarakoartxiboa.eus' webgunean

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Goizeko ordutegian izan bada ere, zabalik egon da abuztuan Bergarako Udal Artxiboa. Eta Bergarako artxiboaren ezaugarri berezietako bat aipatu beharko balitz, esan daiteke etengabe berrasmatzen ari direla; horren adibide da abuztuan zehar ezagutzera eman duten Udal Artxiboko ihes-gela edo

*scape room*-a. "Egunerokotasunetik apur bat irten eta jende gaztea ere artxibora gerturatzeko dugun asmoaren barruan ulertu behar da *scape room*-a. Artxiboan bertan ez dugu leku fisikoa halako joko baterako, baina *online* egitea bururatu zitzaigun. Ekintza ezberdin bat da, lehen aldiz antolatu duguna; Tarragonako artxiboan, adibi-

dez, halako bat egin zuten eta guk gurea ere egitea erabaki genuen", dio artxiboko arduradun Arantzazu Oregik.

**Artxibozainen laguntza, beti** *Artxiboaren Misterioa* izena jarri diote ihes-gelari, eta [bergarakoartxiboa.eus](http://bergarakoartxiboa.eus) webgunean aurki daiteke. Ihes-gelatik irtetea lortzea "zaila" dela aurrera-

tu du Oregik: "Guk lortu dugu ihes-jokotik irtetea, baina badakigu ez dela batere erraza. Artxibotik kanpoko herritarren batek ere lortu du, baina badakigu zaila dela. Hori bai, misterioa argitzen saiatzen denari laguntzeko prest gaude". Horrez gain, artxiboko arduradunak aipatu du buruan dutela ekimen honetatik lehiaketa bat ere abiatzea, baina horretarako herritarrek animatu beharko lirateke eta beste aplikazio bat sortu beharko lukete: "Saiatzen gara gauza berriak egiten, baina baliabideak mugatuak ditugu gero buruan dugun hori martxan jartzeko".

**Digitalizatutako argazkien datuak** Ihes-gela sortzearen ekimen berritzaileaz harago, Oregik azpimarratu du garai bateko argazkiak digitalizatu eta herritarren

eskura uzteak izan duen arrakasta: "Argazki horiek webgunean jarri genituenean jende asko sartu zen, herritarrek gustura hartu zuten ekimena. Eta argazkien aitzakian artxiboko beste edozein kontsulta egiteko grina sortzen bazaie, gu pozik". 2022ko memorian jasota utzi dutenez, iaz "500.000 sarrera inguru" izan zituzten digitalizatutako argazki horien bueltan: "Datua itzela da, sarrera asko dira. Eta deskargen datua ere izugarria da". Datuak zehazki honako hauek dira: 567.844 bisita izan ziren eta 34.218 deskarga.

**EGUNEROKOTASUNETIK IRTEN ETA JENDE GAZTEA ERAKARTZEA DA EKIMENAREN HELBURU NAGUSIA**

## Auzolandegien eredu berezia

Estatu espainiarretik eta Euskal Herriatik iritsitako 20 bat gazte auzolandegian aritu ziren abuztuaren 1etik 14ra, Mizpirualde egoitzan. Gazteak eta nagusiak elkartzuta, belaunaldi nahasketa eragitea da egitasmoaren helburu nagusia. Mizpirualdeko egoiliarrek esan zuten "harro" daudela egungo gazteriaz eta egoitzako arduradunek ere gazte horien borondatea txalotu zuten.



GOIENA

## Bertso saioa antolatu dute euskaltzaleen topaketak aurkezteko

Euskaltzale independentistek urriaren 7rako eta 8rako Billa-bonan egingo dituzten topaketak aurkezteko bertso saioa antolatu dute irailaren 8an Kartzela Zaharrean: Amets Arzallus, Janire Arrizabalaga, Asier Galarza eta Koldo Muñiz etorriko dira. Ateak 22:00etan irekiko dituzte eta saioa 22:30ean hasiko da. Sarrera sei euro izango da.



# Nazioarteko tropelaren tentsio berezitik ikastera

Lokatza Ziklismo Eskolako Igamo Packaging taldeko Itxaso Plazak eta Edurne Ormaetxeak Britainian jokatu den UCI mailako Plouayko sari nagusian hartuko dute parte bihar, zapatua, junior emakumezkoen kategorian; esperientzia hartzea izango da haien helburua

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Lokatza Ziklismo Eskola barruko Igamo Packaging taldeko Itxaso Plazak eta Edurne Ormaetxeak zita bereziki garrantzitsua izango dute bihar, irailak 2, Britainian. Hain zuzen ere, zapatuan eta domekan jokatu den UCI mailako Plouayko sari nagusian hartuko dute parte, junior mailako emakumezkoen kategorian.

## Tropelean ondo kokatu beharra

Bestelako lasterketa bat izango dela dio Plazak: "Berezia izango da eta zirkuitu itxi bat da, gainera. Tropelean ondo kokatuta joatea izango da gakoetako bat, tentsio berezia egongo da-eta. Ezin da ahaztu nazioartekoa izango dela eta ohikoa baino maila altuagoa egongo dela, hain zuzen ere, tropelean ondo kokatuta joateko". Uztailean lehiatu ziren lehen aldiz nazioarteko proba baten Ormaetxea eta Plaza. "Estatuko

gainerako ziklistekin alderatuta nahiko ondo ibili nintzen baina nazioartekoekin aritzea beste kontu bat da, ez du zerikusirik ohituta gauden lasterketekin. Maila, nabarmen da altuagoa", dio Plazak.

Horregatik, batez ere ikastera joango dira Britainiara: "Esperientzia berriaz gozatzera joango gara, betiere lanak ahalik eta ondoen egiteko asmoz. Ikasi eta bertan aurkituko dugun giroaz disfrutatu nahi dugu". Izan ere, asteburura begirako beste pizgarrietako bat izango da ziklista profesionalak gertu izango dituztela, Plazak aitortu duenez: "Ez dakit ziklista profesionalekin elkartzeko aukerarik izango dugun. Uste dut profesionalek hurrengo egunean dutela lasterketa eta ez dakit egun bat lehenago zirkuituaren bueltan egon diren edo ez, baina ederra litzateke eurekin egon ahal izatea".

Britainiako proba bereziarekin amaituko dute denboraldia; oro har, pozik dago Plaza amaitzera doan denboraldian egindakoarekin: "Esango nuke denboraldi polita egin dugula; nire kasuan, esango nuke irregularra izan naizela. Lasterketa batzuetan oso ondo aritu naiz eta beste batzuetan gaizki, baina hori ziklismoaren parte ere badela ulertzen dut. Esperientzia hartu dut eta jende asko ezagutu; hori bai, denboraldia amaitu eta deskantsua hartzeko gogotsu nago". Azaroan ekingo dio Plazak denboraldi berrirako prestaketei, eta 23 urtez azpiko kategorian lehiatuko da.

## HAMAHIRU ITZULI EMAN BEHARKO DIZKIOTE 6,3 KILOMETROKO ZIRKUITU ITXI BATI



Lokatza Itxaso Plaza eta Edurne Ormaetxea. LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

## "Ibilbide gaiztoa" izango dute

Balio handia eman diote Lokatzako Ziklismo Eskolakoek Plazak eta Ormaetxea UCI mailako Plouayko sari nagusian izateari: "Britainian korrituko duten lasterketa berezia da. Berezia da, batetik, nazioarte mailako lasterketa bat delako eta, bestetik, asteburuan zehar, maila guztietako lasterketak antolatzen direlako. Esaterako, Igamo Packaging-eko neskek lehiatuko diren zirkuituaren bueltan, baina beste ibilbide bat burutuz, emakumeen World Tour mailako taldeak arituko dira. Bertan izango da, esaterako, Lotte Kopecky munduko txapelduna".

Lokatza ziklista gazteak Urretxuko Zatika taldearekin elkartzeko joango dira Europako

talde indartsuenekin batera lehiatzera; Lokatzakoek gogoratu dutenez, baina, ez da lehen aldia izango: Uztailean, Bizkaian antolatutako Munduko Kopan izan ziren biak eta maila altuko lasterketetan egoteko gaitasuna dutela erakutsi zuten. Helburua oraingoan ere ziklistei esperientzia berriak eskaintzea da eta euren hazkundeak urratsak ematea izango da".

Lokatza arduradunen arabera, "ibilbide gaiztoa" izango dute Plazak eta Ormaetxeak. Hamahiru itzuli eman beharko dizkiote 6,3 kilometro eta 1.248 metroko desnibel positiboa izango dituen zirkuitu bati. "Britainian eguraldia oso aldakorra izan ohi da eta horri ere aurre egin beharko diote bi ziklistek".



BERGARAKO ERRALDOI TALDEA

## Arrastoa utzita, baita Bilbon ere

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Bergarako Erraldoi Taldeak parte hartu du Bilboko Aste Nagusian. Bilboko jaietan erraldoiak egunero irteten badira ere kalejiran, Aste Nagusiko azken eguna berezia izaten da, Euskal Herriko hainbat txokotatik joandako erraldoien zenbait

konpartsa elkartu ohi dira-eta. Hala, Bergarako erraldoiak abuztuaren 27an ari ziren dantzan Bilboko kaleetatik eta, diotenez, "arrakasta handia" izan zuten; bereziki, Gutiren eta Felixinen irudiek. Argazkian, kalejira amaitu osteko familia argazkia.

## OHARRAK

### San Martin jaiak: danborradan izena ematea

Hilaren 15ean egingo den helduen danborradan izena emateko azken eguna da gaur, irailak 1. Parte hartuko duen taldearen izena, taldekide kopurua –gutxienez 20 lagun eta gehienez 36–, taldeak danborra edo barrika joko duen eta zuzendariaren kontaktua jakinarazi beharra dago: [gazteria@bergara.eus](mailto:gazteria@bergara.eus).

### Laboratorium: saguzarrez ikasteko aukera

Museoaren eskutik *Gure bizilagunak onenak* izeneko saioa egingo dute irailaren 5ean Laboratoriumen bertan eta herrian zehar. Saguzarrak hobeto ezagutzeko familiei zuzendutako jarduera da. Izena emateko: 943 76 90 03.

### Saskibaloia saila: izena emateko epea zabalik

BKEko saskibaloia saila "ilusio handiarekin" dago 2023-2024 denboraldira begira. Partidu ofizialak urrian hasiko dituzte, eta zuzendaritzatik gogora ekarri dute izen-ematea oraindik zabalik dagoela: [bergarasaski@gmail.com](mailto:bergarasaski@gmail.com) edo 696 53 07 71.

### Eleder magoaren ikuskizuna

Irailaren 7an izango da, San Martin plazan (19:30). Eurria egiten badu Oxirondo azokaren atariko karpan egingo da.



# Hareharria oinarri duen erakusketa Aroztegin


Domekara bitarte dago aukera Eva Kareaga algotarraren 'Lerroak' bildumako eskulturak, grabatuak eta argazkiak biltzen dituen erakusketa ikusteko; hilaren 8tik aurrera, berriz, llatargi astronomia elkartearen argazkiak egongo dira ikusgai

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Algortan bizi den lagun oñatiar batek animatu zuen Eva Kareaga (Algorta, 1992) *Lerroak* Bergaran aurkeztera. Eskulturak, grabatuak eta argazkiak uzartu ditu artistak Aroztegi aretoan domekara arte ikusgai dagoen erakusketan. Duela bi urte hasi zen bere jaioterriko hareharri hormak behatuta pieza ezberdinak egiten, baina denborarekin hasierako ideiak bilakaera izan duela aitortu du algotarrak: "Moldeekin hasi nintzen, baina eboluzionatzen joan naiz. Zenbait teknika ikasi ditut eta horien bilduma bat da".

Arkitektura ikasi bazuen ere, txikitatik izan du zeramikarekin lan egiteko zaletasuna. Horren ondorioz, zeramikako masterrarekin osatu zituen ikasketak, eta haiek amaituta hasi zen eskulturak sortzen. Hala ere, betidanik gustatu izan zaizkio eraikuntza lanak edota hormak: "Txikitan obren aurretik pasatzen nintzenez arreta handia jartzen nien". Bilduma hau, zehazki, Algortako hareharrizko hormen behaketekin hasi zen. Hormigoia, zeramika, beira, morteroa, altzairua, zura eta antzeko materialak nahastu ditu.

Prozesuaz galdetuta azaldu du buztinarekin hartu dituela ha-



Eva Kareagaren *Lerroak* erakusketa Aroztegin. GOIENA

reharri hormen moldeak eta ondoren, labean sartu. "Pieza arkitektonikoagoak" ere sortu dituela dio: "Hormigoiarekin lan egiteko egurrezko enkofratua egin behar da, nahastu, sartu, lehortzen utzi... Egurrearekin ere idulkiak egin ditut tailerrean".

## Algorta herriari keinua

Erabili dituen materialek Algorta sinbolizatzen dute Kareagaren hitzetan: "Algorta hareharri gainean dago eraikita, eta gero, gainean eraikuntza modernoa du; hau da, hormigoia.

Kontuan izan behar da harri hura zela lehenengo hormen eraikuntza materiala. Materialak ere modernizatu dira eta horregatik erabili ditut hormigoia, kristala edota metala, besteak beste".

## Domeka azken eguna

Abuztuaren 18tik Aroztegin dagoen erakusketa domekara arte ikusi ahal izango da: gaur, 18:00etatik 20:30era; zapatuan, 12:00etatik 14:00ra eta 18:00etatik 20:30era; eta, azkenik, domekan, 12:00etatik 14:00ra.



Iazko Kofraixak jaietan auzotarrak mozorrotuta. GOIENA

## Osintxuko eta San Lorentzoko jaiak izango dira asteburuan

Kofraixak gaur hasiko dira Martiritxoren jaitsierarekin; San Lorentzon bihar arte itxaron beharko dute

**I.A.A.** BERGARA

18:00etan Martiritxoren jaitsierarekin hasiko dira Kofraixak eta ondoren, ohiko mozorro bizikleta martxa egingo dute Soraluzera. 20:30ean poteoa egingo dute mariatxien laguntzaz. *Zeuk egin eta zeuk jan* afari herrikoia 21:45 aldera izango da, eta, ostean, berritasun modura, kontzertuak –Arima Galduek eta DBQ– eta DJak izango dira.

Zapatuan, 11:00etatik aurrera jarraituko du festak sukaldaritza lehiaketarekin eta haur nahiz helduen jolasekin. Herri bazkarian 120 lagun inguru espero dituzte antolatzaileek eta heste-beteek, paellak eta postreak osatuko dute menua. Halaber, antolatzaileek jakinarazi dute nobedade modura oilaskoa halal erara dastatzeko aukera ere egongo dela Osintxuko musulmanen komunitatea auzoan integratzeko helburuarekin.

Bazkalostean haurrentzako puzgarriak jarriko dituzte eta iluntze-gauean Skapaie elektrotxaranga, Laket taldeak eta DJ Arnok girotuko dute auzoa.

Domekan gaupasero eta goiztiarrenek salda hartu ahal izango dute eta eguerdian, harri jasotzaile eta aizkolarien saioarekin bukatuko dira Kofraixak.

## San Lorentzo auzoko jaiak

Asteburuan San Lorentzen ere jaiak ospatuko dituzte. 19:00etan jaurtikiko dute suzeria eta jarraian auzo poteoa egingo dute musikarekin. Gaua biribiltzeko, berriz, barbakoa herrikoia eta ilargi behaketa. Domeka goizean puzgarriak, trikipoteoa eta toka antolatu dituzte; arratsaldean, apar festa, zenbait txapelketa, txokolatada, buruhandiak, sardina dastaketa, bingoa, DJak eta azkenik, kulero eta galtzon-zitilo lasterketa.

## Unibertsoa begien aurrean

Debagoiena mailako llatargi astronomia elkartearen *Unibertsoari begirada; unibertsoa mirariak kameratik ikusita* erakusketa izango da ikusgai hilaren 8tik 24ra bitartean Aroztegin. Argazkilaritza gustuko duten elkarteko kideek ateratako argazkiak jasotzen ditu bildumak eta protagonista zerua bada ere, hainbat gai daude

irudi batean harrapatuta; hala nola, astroak, konstelazioak, kometak edota ilunabarrak. Mikel Lasa da elkarteko kide eta parte-hartzaileetako bat eta adierazi du urteetan zehar atera dituzten eta gordeta zituzten argazkiak direla.

Lasak gaineratu du datozen asteetako erakusketa badela astronomia taldea ezagutarazteko modu bat, baina

argazkilaritza gustuko duten horiei ere egin die deia: "Argazkilaritza munduan sartuta eta gaueko argazkilaritzari buruzko interesa duenak posible du gurekin kontaktuan jarri eta egiten diren behaketa nahiz halako saioetan parte hartzea".

Erakusketaren ordutegia honakoa da: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30, eta domeka nahiz jaiegunetan, 12:00-14:00.

## Denboraldi berrirako eta Bergara Hirirako prest dago BKE

Denboraldi berria hastear dela BKEko futbol eskolan (2012tik 2015era jaiotakoak) eta alebin, infantil, kadete nahiz juvenil mailan aritu nahi duten jokalarri guztiek gaur dute azken eguna izena emateko [www.bergarakedenda.com](http://www.bergarakedenda.com)-en. Klubak adierazi du jokalarri berriek izena ematerakoan *kuota+pack* delakoa hautatu behar dutela; aurreko

urteko jarraitzen dutenek, berriz, kuota soilik. Bestalde, jakinarazi du "beharrezkoa den arroparen bat" faltaz gero, dendan erosi beharko dela. Kadete, juvenil eta senior mailako taldeak entrenatzen hasiak dira, eta datorren astean infantil eta alebin txanda izango da. Futbol eskola urriaren 2an hasiko da.

Bestalde, bihar jokatuko dute Bergarak eta Zumaiakok Gizonen XXXI. Bergara Hiria Futbol Txapelketa, Agorrosinen, arratsaldeko bostetan.





Joseba Ezkurdia eta Jon Mariezkurrena. BAIKO

## Pilotari profesionalak, frontoiaren urteurrenean

Masters CaixaBank ligako partidua jokatu dute domekan, 17:00etan, Olalde pilota elkartearen eskutik: Ezkurdia-Mariezkurrena eta Larrazabal-Zabaleta, nor baino nor gehiago. Sarrerak 25 eurotan daude salgai Internet bidez, eta baita leihatilan ere

### Mireia Bikuña Madrid ANTZUOLA

1898ko abuztuaren 28an inauguratu zuten Antzuolako Udal Pilotalekua. Lau pilotari ekarri zituzten orduko hartan esku-pilotan egiteko. Laurak azkoitiarrak: Tomualdo Larrañaga, Jose Maria Urzelai, Francisco Elorza eta Francisco Aranbarri. Egun handia izan zen. Pilota partiduaz gain, meza eman zuen apaizak eta dultzaina doinuekin girotu zuten herria Benigno Altubek eta Seber Altubek.

125 urte pasa berri dira ordu-tik, eta urteurrena ospatzeko, oraingo honetan ere pilota izango da protagonista. Baina, pilota profesionala. Izan ere, Masters CaixaBank ligako partidua ekarriko du herrira Olalde pilota elkarteak. Domekan izango da, 17:00etan. Hain zuzen ere, nor baino nor gehiago ariko dira Ezkurdia-Mariezkurrena eta Larrazabal-Zabaleta bikoteak. Uztailean hasitako txapelketaren final laurdenetako ligaxkaren azken jardunaldia izango da.

Partidu nagusiaren aurretik, bigarren mailako beste bat jokatu da Salaberria-Erostarbe eta Mata-Bikuña bikoteen artean.

### Sarrerak salgai

Domekako jaialdirako sarrerak eskuratzeko bi modu daude: alde batetik, *Entradasfronton.com* atarian eta, beste alde batetik, partiduak hasi aurretik leihatilan. Bietan, 25 eurotan.

### Urteurreneko ospakizunak

Profesional mailako pilota partiduak Olalde pilota elkarteak ospakizun urte honetarako programatuta zituen hitzorduetako bat zen. Baina ez da bakarria izan. Pandemiak bertan behera utzitako emakumezkoen San

**ABUZTUAREN 28AN  
BETE ZITUEN 125  
URTE ANTZUOLAKO  
FRONTOIAK; 1961EAN  
ESTALI ZUTEN**

Isidro txapelketa berreskuratu dute. Izan ere, pilota osasuntsu dago herrian. Olalderen eguneroan 37 neska-mutikok dihardute pilota eskolan infantil mailara arte. Gainera, bost pilotari federatuta daude.

Horregatik guztiagatik, eta pilotari gaztetxoek jarduna eta entrenamenduen kalitatea bermatze aldera, hainbat lan egin dituzte pilotalekuan bertan. "Frontisa eta ezker paretak konpondu eta margotu, frontoiko eta aldageletako argiteria aldatu, aldagelak eta komunak berri eta konpondu, eta frontoiko gune batzuetarako sarbidea egokitu egin dituzte. Eraikinak behar zituen eraberritzeak eta dotore geratu da", esan du Olaldeko kide Pedro Iturbek.

Zintzilik geratzen zaie frontoiaren kanpoko aldean dagoen pilotaleku txikia estaltzea. Proiektua luzatu egin da, baina lan horiek egiteko asmoa badute. Frontoi txikia handiaren osagari izango litzake horrela.

## Udal batzordeetan parte hartzeko deia egin du Udalak

Maiztasun ezberdineko batzorde irekiak dira, eta interesa duen edonork parte har dezake

### M.B.M. ANTZUOLA

Uztaileko osoko bilkuran adostu zituen udalbatzak zeintzuk izango ziren udal batzordeak eta nortzuk izango diren arduradunak. Sei izango dira: Sormena, Euskara, Hirigintza, Ongizatea, Ogasuna eta Ingurumena. Udako oporren ostean hasi dira lanean.

Era berean, zehaztu dituzte batzorde bakoitzak izango duen maiztasuna eta ordutegia: Sormena batzordea hilaren 5ean batzartuko da, 18:30ean; Ongizatea, hilaren 6an, 12:30ean;

Hirigintza, hilaren 12an, 18:00etan; Euskara eta Ogasuna batzordeak irailaren 19an (lehena, 18:30ean eta bigarrena, 12:30ean), eta Ingurumena, urriaren 2an, 18:00etan. Batzorde guztiak dira irekiak eta udalak dei egin du udal horietan parte hartzeko. "Landu beharreko gaietan interesa duten pertsona guztiak parte har dezakete. Interesatuak zuzenean aurkez daitezke batzordera, edo lehena deitu udaletxera, deialdia jaso ahal izateko", esan du Olatz Lezeta alkateak.

## Elkartasun jaira tortillak eramateko eskatu du Anelkarrek

Anelkarrek tortilla pintxoak salduko ditu gaur, barikua. Batutako dirua elkartasun proiektuetarako izango da

### M.B.M. ANTZUOLA

2011n hasi zen Anelkar Gobernu Kanpoko Erakunde udako oporren osteko lehen egunak jai giroan ospatzen. Aurten ere ez dute hutsik egingo, eta gaur, barikua, Elkartasun Festa ospatuko dute Zurrategin, 19:30ean. Festako izarrak herritarrek egindako patata tortillak izaten dira. Herritarrek eraman eta pintxotan saltzen dituzte. "Geroz eta tortilla gehiago, orduan eta pintxo gehiago saltzeko aukera izango dugu. Beraz, herritarrak animatu daitezela tortillak egi-

tera, eta pintxoak erostera. Iaz 50 tortilla ekarri zituzten", esan du Anelkarreko kide Josune Iturbek.

Izan ere, Elkartasun Festan jasotako dirua elkartasun proiektuetara bideratuko dute. Anelkarrek Kongon eta Senegalen ditu hezkuntzara bideratutako egitasmoak. Azken horretan, haurtzaindegi bat eraikitzen dihardute. Emakumeekin egiten dute lan han. Bestalde, Kongora bidaliko duten dirua, hezkuntza eredu bera indartzeko erabiliko dute.

## 'Piko', 'Isuo' eta 'Bargi'-ren kontzertua bihar

Oporretatik itzulera goxatzeko asmotan, musikaz beteko dute gaztetxea bihar, zapatua, 18:30etik aurrera Paxkal Irigoyen *Piko*-k, Iosu Isaias Villanueva *Isuo*-k eta Mikel Bargiela *Bargi*-k. Hiru musikariak dira Mukuru kolektiboko kideak. Bargiela antzuolarra da, eta hainbat urtetan Klak'son taldeko kide izan ostean, *Isurio*-ri batu zaio.

## Oza Oihanera irteera iraileko hirugarren aste bukaeran

Camilleren bidearen bi etapa egiteko irteera antolatu du mendizale elkarteak. Irailaren 16an eta 17an egingo dute, eta dagoeneko izena emateko aukera dago, *Labur.eus/sendacamille* helbidetan. Irailaren 16ko ibilaldia Gabarditoko aterperaino egingo dute, gaua han pasatzeko. Bigarren egunean, berriz, Ozako Oihana izango dute helmuga.



# Ur saneamenduko lanak Arantzeta auzoan

Elgetako Udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak adostutako akordioaren bitartez gauzatuko dira lanak. Baserritarrek sarera lotzeko aukera izango dute; oraingoz, bakarrak agertu du interesa. Udalak ordainduko du inbertsioaren %66

## Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Uztail amaieran egindako osoko bilkuran udalbatzak ahobatez onartu zuen Elgetako Udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Arantzeta auzoan ur-hornidura lanak egiteko adostutako hitzarmena. Lanen esleipena egiteke, bi erakundeek duten aurreikuspena da 113.623 euro inguruko inbertsioa suposatuko dutela lanek. Adostutakoa da Udalak ordainduko duela %66; hau da, 75.000 euro inguru.

Ibon Unzetabarrenetxea alkateak azaldu zuen aurreko korporazioaren urteetako lanaren ondorioz heldu dela akordioa. Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren hasiera bateko baldintza zen behin lanak eginda auzoko baserri guztiak lotzea ur saneamendu sarera. "Aldiz, bik bakarrik eman zuten baiezkoa". Negoziazioek luze jo dute eta azkenean adosturiko gastu banaketa hitzartu dute bi erakundeek. "Aukera hau aprobetxatu behar dela uste dugu", esan zuen alkateak.

Asmoa da Arantzeta auzoan egingo den instalazioak aukera ematea etorkizunean sarera lotu nahiko luketen baserriek horretarako aukera izatea. Udal arduradunek azaldu dute oraingoz Arantzeta baserria izango dela sarera lotuko den bakarra.

Oposizioak hitzarmenaren aldeko botoa eman zuen. "Hala-ko proiektuen alde gaude eta

aldeko botoa da gurea, baina baditugu hainbat kezka edo zalantza", adierazi zuen Mikel Larreak. "Instalazioa egiteko lurrak Udalak jarriko dituela da konpromisoetako bat. Lur publikoak edo pribatuak dira? Zelan gauzatuko da lursail horien eskuratzeara?". Horrekin batera galdetu zuen ea badagoen gainerako auzoak kontuan hartzen dituen proiektu integralik. "Etor-kizunean egon daitekeelako interesatuta beste auzo bat eta eskubide berdina eduki beharko luke. Ez dakigu Gipuzkoako Ur Kontsortzioak formula hau berriz erabiliko lukeen".

Udal idazkari Gotzon Goikoe-txeak esan zuen berak dakiela ez dagoela plan integralik, baina formula berdina erabili zela Artekaleko urak bideratzeko proiektua egiteko. Ibon Unzetabarrenetxeak esan zuen ulertzen zituela kezka horiek guztiak, eta ez zekiela zehatz lursailak zeintzuk diren. Gehitu zuen interesatutako beste auzorik balego lehenengo eskaera egin beharko lukeela. Aukera hori ez dagoela itxita azaldu zuen.

## ORAINGOZ ARANTZETA BASERRIA DA UR-SARERA LOTZEKO INTERESA AGERTU DUEN BAKARRA

## Izendapen aldaketak

Gainerakoan, jeltzaleen eskaeraz hainbat aldaketa daude agintaldiko lehen osoko bilkuran egindako kargu banaketan, esanguratsuen Bideberri Man-komunitatearekin lotutakoa da. Ibon Unzetabarrenetxea eta Saioa Alberdirekin batera Mikel Larreak osatzen zuen Elgetako ordezkari erakunde horretan. "Nik eraman behar ditut Bideberriren diru kontuak hemendik abendura arte eta ez da logikoa aldi berean juntakide izatea. Kargu bateraezin arazoak ikusten ditut", azaldu zuen. Gainerako ordezkari jeltzaleak denboraz larri ibiliko direla irizita ordezkari hori EH Bilduko kide batek betetzea adostu dute, eta Maialen Arnedo izango da. "Zintzotasunez jokatzeari lehenetsi dugu", esan zuen Iker Lakak. "Eskertzen diogu gobernuari kargua eskaintzea. Aurrerago hitz egingo dugu".

## Euskararen inguruko mozioa

Jeltzaleek aurkeztuta, udalbatzak ahobatez onartu zuen udalei euskara hutsean aritzea eragotzen dien Auzitegi Konstituzionalaren epaiaren aurkako mozioa. Elgetako udalbatzak kezagarritzat eta larrizat jotzen du sententzia, eta bat egiten du euskalgintzako eragileek azaroaren 4rako Bilbon deituta mobilizazioarekin.



G.A.

## Giro ederra Zabaletako jaietan

Meza, luntxa, hiru txirilo bola jokoa, auzo-afaria eta erromeria izan zituzten San Bartolome egunean, abuztuak 24, Zabaleta auzoan. Bola txapelketa klasiko handi bat da Zabaletako jaietan. Aurten, Iban Aranzabal nagusitu da zortzi txirilo jota. Mateo Guenaga, Sebas Arantzabal, Juanjo Uranga eta Asier Gibelatz sailkatu ziren jarraian.



SAN ROKEKO JAI BATZORDEA

## San Roke eguneko ospakizunak

Suak, brindisa, aurreko urteetako argazkien emanaldia, bazkaria, erromeria eta igel jokoa izan zituzten. Harrera oso ona izan zuen bazkarirako bertan erretako bildotsak. Igel jokoa Beñat Leanizbarrutia izan zen nagusi eta jai batzordean aldaketa irudikatzeke lekuko ematea ere egin zuten. Jose Mari Unzetabarrenetxeak jaso zuen lekukoa.

## OHARRAK

### Liburutegia zabalik astelehenetik aurrera

14:30etik 20:00etara egongo da zabalik astelehenean. Hurrengo hiru egunetan, 10:00etatik 13:30era.

### Erretiratuen irteera Peru Harrira eguaztenean

Xalbadorpek antolatuta egun osoko txangoa egingo dute.

### Herri eskolan ikasturte hasiera irailaren 7an

Ikasturtea ate joka da; 09:00etan joko du txirrinak, eguenean.

### Azoka eta Udazken jaia irailaren 23an

Baserritarren azoka, Intxortako igoera eta patata tortilla lehiaketa izango dira, besteak beste.



Elgetako udalbatzako kideak uztaileko osoko bilkuran. L.Z.L.





Bi turista Arantzazuko turismo bulegoan, abuztuan, azalpenak entzuten. GOIENA

## Egonaldi luzeagoak egin dituzte aurten turistek

Herriko ostalariak pozik daude abuztuan turista askok hartu dutelako atseden haienetan. Leku askotatik etorri dira eta plan ezberdinak egiteko asmoarekin. Txokolateixara ere joan dira asko eta txokolatea eta txakolina erosi dute

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Freskuraz gozatzen, mendi ibilaldiak egitera zein lasai egotera etorri dira aurtengo udan turistak Oñatira. Aurreko urteetako egonaldiak baino luzeagoak egin dituzte orokorrean eta inguruak bisitatzeko egun pasako irteerak ere egin dituzte, euskal kostaldera eta hiriburuetara, gehienek.

### Askotariko planak

Abuztua hilabete "ona" izan dela adierazi dute herriko ostalariak. "Zortzi eta bederatzi gaueko egonaldiak egin dituztenak izan ditugu eta hori arraroa da. Jeneralean, egun gutxiagotarako erreserbak izaten ditugu baina aurten logela bat baino gehiago bete dugu egonaldi luzeak egiteko. Azkenean, gertuko harre-

mana ere sortu da euren eta gure artean. Lan handia egin dugu aurten, bai. Ezeztapenen bat izan dugunean ere berehala bete da, oso pozik gaude", dio Zumeltzegi dorreko Edurne Gorostidik.

Etxe Aundin ostatuta hartu dutenek ere hiru gau egin dituzte, gutxienez. "Askotariko planak egiten dituzte turistek.

Eguaztenean heldu zen, esaterako, Cadizeko familia bat, bazkal ostean. Argiñanoren jatetxea eta Hondarribia ezagutzeko asmoarekin etorri dira", zehaztu du Xegun Altolagirrek. Andaluziatik ez ezik, Valentziatik, Madrildik, Asturiasetik, Herbehereetatik, Alemaniatik edo Frantziatik etorritakoak ere hartu dute ostatu Etxe Aundin. "Europa aldetik etorritako asko Portugalera bidean atseden hartzeko gelditu dira hemen; horietako batzuk etxerako bueltan ere bai, berriz".

Amerikatik heldutakoak izan dituzte, bestalde, Arantzazu hotolean. "Arrazoi oso ezberdinetatik etorri dira. Estatu Batuetako turista batzuk, esaterako, mendi ibilaldiak egitera etorri dira, eta Ekuador, Kolonia eta Venezuelatik etorritakoak, berriz, Arantzazuko Amabirjina gertutik ikustera. Ekuadorretik, esaterako, 40 bat laguneko taldea etorri da. Aita Santuak Portugalen gidatu zituen jardunaldietan izan ziren eta hona etorri ziren gero", dio Jesus Marchanek.

### Txokolatea eta txakolina

Txokolateixara ere heldu dira herriko ostatuetan egonaldiak egin dituzten turistak. Joan den urtean baino turista gutxiago etorri izan diren errezeloa dute, zenbakiak oraindik atera ez badituzte ere, baina telefonoak sarri jo du eta lanean gelditu barik ibili diren egunak ere izan dituzte. Txokolatearekin bueltatu dira etxera han izandako bisitariak. "Gehienek tabletak erosi dituzte. Jogurtarekin nahastutako txokolate zuriak, esaterako, oso estimatuak izan dira. Txokolate beltza eta laranja dutenak ere oso ondo saldu ditugu eta baita %95a kakaoa

diren tabletak ere. Bestalde, txokolateaz gain, bertako produktuei buruz galdezka ere ibili dira eta txakolin botilak ere saldu ditugu", azaldu du Ane Astigarragak.

Bertan ostatua hartu barik eguna pasatzera Oñatira etorri direnak ere egon dira. "Hori jatetxean nabaritu dugu guk, esaterako. Adibidez, Gernikan hotela hartuta izan eta Oñati ezagutzera etorri diren turistak. Jatetxean ere izan dugu lana, bai", azaldu du Zumeltzegi dorreko Edurne Gorostidik. Dena den, egonaldia Oñatin egin duten beste turista batzuek, herria "nahiko pobre" ikusi dute komertzio eta taberna aldetik.

### Langileak hemendik aurrera

Uztailaren amaieran langileak eta turistak nahastu ziren herriko ostatuetan eta berriz gertatu da hori iraileko lehen aste honetan. Batzuen oporrak bukatu gabe egonda, lanean has-teko egunak iritsi zaizkie askori eta lanera etorritako bezeroz hasi dira berriz logelak betetzen. "Bilboko emakume bat zortzi egunetan egon da hotolean, lasaitasun bila etorrita. Ikasturte berria hasi da eta dagoeneko etorri dira langileak turisten gelak betetzera", dio Gorostidik. Dena dela, euren ohiko zerbitzuak eskaintzen jarraituko dutela diote herriko ostalariak, "datorrena datorrela ahalik eta erosoan eta gusturen" egoteko Oñatin.

## MENDI IBILALDIAK EGITERA EDO ARGIÑANOREN JATETXEA IKUSTERA ERE ETORRI DIRA

### Laguntzaileek garraioetan onurak izateko bidea, abian

Mendekotasuna duen pertsona batek garraio publikoa hartzen duenean, Gipuzkoako garraio agintaritzaren barruan dauden herrietan, laguntzailearendako bidaia doakoa izatea ahalbidetuko duen prozesuari hasiera eman dio Oñatiko Udalak. Gipuzkoako garraio agintaritzaren barruan dago Oñati eta duela hilabete gutxi han onartutakoa

berretsi zuen Oñatiko udalbatzak uztailean egindako ohiko osoko bilkuran. Prozesua hastea erabaki zuten udal ordezkariak eta lanketa amaitzen dutenean jakinaraziko diete herritarrei zer eta nola egin behar duten hori erabiltzeko.

Hori bezala, aho batez onartu zuen udalbatzak Espainiako Auzitegi Konstituzionalak udal legearen aurka -udalei euskara hutsez aritzeko aukera ematen dien legearen kontra- emandako epaia ere.

### Biainek hartuko du Gerrikagoitiaren zinegotzi postua

Jon Kepa Gerrikagoitia zinegotzi jeltzaleak karguari uko egin dio eta Angel Mari Biain Zubia-girrek beteko du bere lekua. Berez, Miren Elgarrestari zego-kion kargua hartzea baina hark ere uko egin dio eta, hautagaien zerrendan zortzigarrena zen Angel Mari Biainek beteko du lekua. Uztaileko osoko bilkuran onartu zuten.

### Usakon bainatzeko debekuak indarrean jarraitzen du

Astelehenean egindako azken probek ez zuten emaitza onik eman: bakterio kontzentrazio altua. Hortaz, hurrengoan emaitza jakin arte, behintzat, eutsi egingo diote Usakon bainatzeko debekuari. Astelehenean egingo dituzte proba berriak eta martitzenean jakingo dituzte emaitzak. Udako bainu denboraldia irailaren 10ean amaituko da.

### Herri Egunean postuak jartzeko eskaera-epea, zabalik

Herri Egunean salmenta postua jarri gura dutenek horretarako eskaera egin behar dute eta irailaren 10a da hori egiteko azken eguna. Unibertsitatearen eta institutuaren arteko espazioan jarriko diren salmenta postuetakoek egin behar dute eskaera. Udal webgunean dago eskaera orria. Irailaren 30ean ospatuko da aurten Herri Eguna.



# Oinezkoendako bideak bermatzen ari dira orain

Goribarko biribilgune berritik Kasablanka aldera eta Torreauso aldera oinez joateko bidea irisgarria eta segurua izateko lanak ari da egiten Udala. Autobus geltokietako markesinak eta beharrezko seinaleak ere jarriko ditu obra horiekin batera

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Errepide ertzeko hesiak, seinaleak eta argiteria jartzen ibili dira azken egunetan eta erdian lorezaintza lanak egitea baino ez da falta Goribarko biribilguneko lanak bukatzeko. Foru Aldundiak egin ditu lanak, martxoaren amaieran hasita. Lan horiekin batera, Torreausotik biribilgunera zein hortik Kasablankarako bidea bermatu gura du Udalak oinezkoendako, irisgarri eginez, eta horretan ari dira orain.

## Markesinak ere bai

Biribilgune berritik kale aldera zein Torreauso alderako bideak segurua egitea da Udala egiten ari den lan horien helburua. "Falta zen San Pedro eta Kasablanka modu seguru batean lotzea. Semaforoak eta zebra bidea jarri ziren, baina osotasuna falta zitzaion asmo horri eta irisgarritasun lan hauekin emango zaio", adierazi du Udaleko hirigintza batzordeburuak, Iñigo Ruizek.

Irisgarritasun lan horiek hobetzeko eta autobus geltokia egokitzeko obrak Echaide enpresari esleitu zizkion Udalak. Urbietatik Kasablanka aldeko lanak hasita daude dagoeneko eta beste aldekoak, biribilgu-



Biribilgunetik Kasablanka alderako errepidea irisgarria izateko lanak. O.E.G.

## URRIAN AMAITUKO DITU UDALAK OINEZKOENDAKO IRISGARRIAK IZANGO DIREN BIDEAK

netik Torreausora bitartekoak, gero egingo dituzte, urrira bitartean. Lan horiez gain, Aldundiak biribilgunearen alde banatan egin dituen autobus geltokiak ere atonduko ditu Udalak: markesinak eta behar-

rezkoak diren seinaleak jarriko dituzte. Lanen aurrekontua da 111.000 euro.

Munazategiko biribilgunearekin batera, Goribarkoak ere ibilgailuendako zein gidariendako segurtasuna bermatzeko aukera ematen duela adierazi du Ruizek: "Herriko sarrera-irteerak modu egokian bermatu ahal izatea gura izan da. Industria eta kamioi asko dituen errepidea da hau eta gura da modu seguruan egitea sartu-irteerak". Biribilgunearen aurrekontua izan da 554.000 euro.

## Danborradarako entseguak datorren astean hasiko dituzte

Umeak irailaren 7an dute lehen entsegu eta nagusiek, berriz, 11n; batzuenak zein besteenak, Eltzian dira

## O.E.G. OÑATI

Iraillean sartu ahalaz bat hasiko dituzte jaietako danborradako entseguak. Umeek, esaterako, irailaren 7an, 12an eta 14an egingo dituzte ohiko entseguak, 18:30etik 19:30era, eta 19an eta 21ean, orokorrak. Antolatzaileek gogora arazi dute larruzko gerrikoa eraman beharko dutela umeek entseguetara.

Nagusien danborradako entseguak, berriz, irailaren 11an hasi eta, bi astez, astelehenetan eta eguaztenetan, egingo dituzte, 20:00etan; 11an, 13an, 18an eta 20an ohikoak eta 26an orokorra. Bestalde, aurreko urtean egindako danborradaren ordu-tegi aldaketa mantendu egingo dute aurten, eta 22:30ean irten-go dira Eltziatik, danbor jotzaille, musikari, kinto eta danborradako gainerako kide guztiak. Aurtengoan 2006. urtean jaiota-



lazko nagusien danborradan. GOIENA

ko neska-mutilak irtengo dira dantzan, guztira 118 kinto.

Ane Galdos Biainen lanak irabazi du azal jaietako egitarauko azal lehiaketa eta berak egindako irudiak ilustratuko du iraillean etxeetara banatuko duten programa.

## Zizelkatze ikastaro berria egingo dute abendura bitartean

Oñatiko Zizelkatzaileak taldeak, egurra lantzeko ikastaro berria antolatu du. Irailaren 13tik abenduaren 13ra izango da, eguaztenetan, bi orduz, Eltzian: 14:45etik 16:45era eta 17:00etatik 19:00etara. Prezioak hauek dira: 40 euro langabetuek, 60 euro langileek eta 50 euro bazkideek. Izena emateko mezua bidali behar da: [zizelkatu@gmail.com](mailto:zizelkatu@gmail.com).



Artzaina eta txakurra. O.E.

## Biribilgunekoak, bukatuta

Foru Aldundiak egin du Goribarko biribilgunea, GI-2630 errepidean. Martxoaren amaieran hasi ziren Orsa enpresako langileak lanekin eta bukatu dituzte. biribilgune berriak 40 metroko kanpo diametroa hartu du, sei metroko zabalera duen eraztun erreia eta 12,5 metroko barne erradioa. Urak bideratzeko hodia ere aldatu dute.



Bukatu berri dagoen Goribarko biribilgunea. GOIENA

## Eireren doinuak zein kale antzerkia, Bidebarrietan

Gaur arratsaldean, 18:30ean, hasiko dira Bidebarrieta kaleko jaiak. Gaur eta bihar, esaterako, zuzeneko musika kontzertuak egingo dira. Bihar, zapatua, adibidez, Eire taldeak joko du, 2022. urtean Zumaian sortutako pop musika taldea. Eire Salegik eta Eire Maiak osatzen duten, eta hortik dator kio izena taldeari. Gaur, berriz, Arrasateko

Txakurrak taldea da entzun ahal izango den bat; punk-rock musika, "baina azkarra eta zuzena".

Domeka gauean amaituko dira Bidebarrietako aurtengo jaiak eta iluntzean, udako Kanean kultura egitarauaren barruan antolatutako kale antzerkia egingo da, adibidez, azken urteetan moduan. Hortzmuga taldea etorriko da beste behin, eta bere eskutik, 19:00etan, *Agurea, urpekaria eta itsasoa* antzezlanaz gozatu ahal izango dute txikienek familia osoarekin.





Itziar Zelaia zuzendaritza batzordeko kidea, Josu Osa lehendakaria, Iñigo Erle pilotaria eta Ander Biain entrenatzailea. L. ZEBERIO

# San Migel txapelketako 40. edizioa martxan da

Datorren martitzenean hasiko da San Migel txapelketa Zubikoan. Iñigo Erle oñatiarra izango da herriko ordezkari bakarra eta Ander Etxaniz bergararra izango da bailarako bigarren ordezkaria Aloña Mendiko pilota sailak antolatutako txapelketan

## Julen Murua Mesonero OÑATI

San Migel txapelketaren 40. edizioa jasoko du Zubikoako pilotalekuak irail osoan zehar eta urriaren 1era arte. Gipuzkoako, Nafarroako, Bizkaiko eta Erriokako 32 pilotarik neurtuko dituzte indarrak txapelketan; Gazteen mailan zein 23 urtez azpikoen mailan lehiatzen diren pilotariak izango dira, eta maila bakoitzean zortzi bikotek jokatu dute.

Final-laurdenetan hasiko da txapelketa bi mailetan, eta irailaren 5ean, 7an, 12an eta 14an jokatu dituzte partidak 19:00etan hasita; finalerdiak ere ordu berean izango dira hilaren 19an eta 21an, eta txapelketako finalak Oñatiko jaietan jokatu dira, urriaren 1ean 17.00etatik aurrera.

Aloña Mendiko pilota saileko ordezkariak gogotsu daude San Migel txapelketaren 40. edizioa hasteko, eta maila oneko partidak izatea aurreikusten dute; Ander Biainek, Aloña Mendiko

pilota saileko entrenatzaileak, dio "bi mailetan oso bikote parekatuak" sortu direla eta ez duela "batere garbi zein izango den txapelketaren nondik norakoa".

Josu Osak, saileko lehendakariak ere maila oneko pilota partidak aurreikusten ditu, eta espero du "pilotariak gogotsu etortzea eta daukaten guztia ematea". Horretaz gain, herriarrei ere pilotalekura hurbiltzeko gonbita luzatu nahi izan die: "Zaleei San Migel txapelketa entzutetsu honetara gerturatzeko deia luzatu nahi diegu. Irailean zehar martitzenean eta eguenetan partidak izango dituzte eta pilotalekura hurbiltzera animatzen ditugu".

**MAILA HANDIKO TXAPELKETA IZATEA ESPERO DUTE ALOÑA MENDIKO PILOTA SAILEKO KIDEEK**

## Txapelketa berezia Elerentzat

Etxean jokatzeko beti izaten da berezia, baina Erlek azpimarratu nahi izan du San Migel txapelketak duen "xarma eta berezitasuna". Uda garaian partida batzuk jokatu ditu oñatiarrek eta "zorionez, txapelketa-egoera onean" iristen dela aitortu du.

Beñat Zubizarreta ataundarra izango du bikotekide, eta txapelketaren parekotasuna nabarmendu badu ere, txapela lortzeari ez dio uko egiten: "Bikoteen arteko parekotasunak txapelketa irabazteko aukerak zabaldu egiten ditu, eta, beraz, ez ditut baztertzen txapela lortzeko aukerak".

## Etxaniz ere gogotsu

Ekain Lizeaga astigartarra izango du bikote Ander Etxaniz pilotari bergararrak, eta adierazi du espero duela "aurreko urteko arantza kendu eta txapelketa polit bat egitea eta ahalik eta aurreren amaitzea".



Iazko Herriko Pilota Txapelketako finalistak. HERRIKO PILOTA TXAPELKETA

## Herriko Pilota Txapelketak gaur ekingo dio bigarren faseari

Gaur hasi eta hilaren 23ra arte jasoko ditu Oñatiko plazako pilotalekuak Herriko Txapelketako kanporaketak

## J.M.M OÑATI

Multzokako fasea amaitu eta fase erabakigarriari hasiera emateko prest daude pilotariak. Gizonezkoek gaur ekingo diote final zortzirenei; emakumezkoak, berriz, finalerdietan hasiko dute bigarren fasea, eta hilaren 15ean jokatu dituzte partidak.

Txapelketako finalak hilaren 23an jokatu dira Plazako pilotalekuan –eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian jokatu dira partidak–, eta dagoeneko antolakuntzak argitaratu du zeintzuk diren egun horretako egitaraua osatuko duten ekintzak.

## Finalen aurretik bazkaria

Iaz bezala, aurtuen ere bazkaria izango da Nekazarien elkartean. Bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude, eta bertaratu nahi duenak Arrano tabernan erosi beharko du bere txartela. Kopurua mugatua dela adierazi dute antolakuntzako kideek, eta, beraz, erosi nahi duenak azkar ibili beharko duela diote.

Arratsaldean, Herriko Txapelketako bi finalak jokatu ostean, pilotari profesional ohiak lehiatuko dira. Aurtengo bikoteak Mikel Goñi-Urruzola eta Urmeneta-Pascual izango dira.

## Kiroldegiko ikastaroen izen-emate epea amaitzear

Hilaren 6an amaituko da kiroldegiko 2023-2024 ikasturteko ikastaroetan izena emateko epea. Izena eman ahal izateko hiru modu ezberdin daude: Zubikoako harrerara hurbilduta, 943 716 375 telefono zenbakira deituta edota Zubikoako Kiroldegiko webgunearen bitartez ([zubikoakiroldegia.oñati.eus](http://zubikoakiroldegia.oñati.eus)).

Ikastaro guztiek egun bakoarreko hastapen saioak izango dituzte; pilateseko ikastaroak izan ezik, honek bi hastapen saio izango baititu.


Helduendako ikastaroez gain, gazte zuzendutako ikastaroak ere izango dira: zunba, krossfit, body pump, yoga eta fit bike saioak eskainiko dituzte.

## Mendi Martxarako baimena aurkeztu behar dute gazteenek

Hilaren 16an ospatuko da Oñatiko Mendi Martxaren zortzigarren edizioa eta, urteroko legez, bi ibilbide izango ditu. Ibilbide horietako edozeinetan parte hartu nahi duen 16 urtez azpiko gazte orok dagoeneko badauka egunean bertan Oñatiko Plazan aurkeztu beharreko dokumentua. Ezinbestekoa izango da baimena aurkeztea martxan parte hartu ahal izateko.

Antolakuntzak adierazi du dokumentua izen-ematean jarritako helbide elektronikora bidali dutela, eta, dokumentua jaso ez duenak, haiekin harremanetan jartzeko aukera duela [onati.mendimartxa@gmail.com](mailto:onati.mendimartxa@gmail.com) helbidera mezu bat bidalita.





# 19. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

## Eskerrik asko parte hartzeagatik!

Bidali zure argazkiak irailaren 18ra arte  
posta elektronikoz ([argazkiak@goiena.eus](mailto:argazkiak@goiena.eus))  
edo Whatsapp/Telegram bidez  
(688 69 00 07). Lehiaketaren oinarriak  
irakurri eta sariak ezagutzeko, sartu  
'Goiena.eus'-en.



Tarragona | Argazkia: Yolanda Ruiz (Eskoriatza)



Zuzen, buruz behera | Argazkia: Gemma Sanchez (Arrasate)



Pobes | Argazkia: Gorka Arizmendiarieta (Elgeta)




Oporto (Portugal) | Argazkia: Aizpea Ajuriagerra (Aramaio)



Edozein herriko jaixetan! | Argazkia: Aitziber Linaza (Antzuola)



Cabo de Gata | Argazkia: Fatima Martin (Oñati)



Maroko | Argazkia: Maju Uriarte (Bergara)



Laku berdea (Lanzarote) | Argazkia: Iker Isasmendi (Aretxabaleta)



J.M.Blank (Lleida) | Argazkia: Aiora Elkorobarrutia (Leintz Gatzaga)



Argazki guztiak kanal berezi honetan:  
<https://labur.eus/udakoargazkiak-2023>

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**EROSKI**  
ARRASATE

**GURE AMETSA**  
Restaurante · Jatexea

BERGARA  
**EREIN DA JAN**

**Halcon** BIDAIAK  
ARRASATE BERGARA



**Xabier Urzelai** ARETXABALETAK

Futbolean ibilbide ezberdinak egin dituzte egungo UDAko presidente Agurtzane Elkorok, Realeko atezain ohi Sokoa Azkaratek eta Oihana Aldaik, Mondrako eta Eibarko jokalarari ohi Maitane Roak, eta iaz arte Leintz Arizmendiko kapitain izan den Olatz Legardak. Baina, denek izan dute kirol lorpenen bat ospatzeko motiboa, eta diote, tristea izan dela Munduko Txapelketan Espainiako selekzioaren ospakizunetan gertatu den guztia. Hala, afera horren gainean eta ondoren sortutako guztiaren gainean berba egiteko batu ditu GOIENAK.

Agurtzane Elkorok hiru berbatan laburtu du Rubiales auziarekin gertatu den guztia. "Penagarria izan da, lotsagarria, eta nazkagarria. Baina, ez da isolatutako gertaera bat izan, behin bakarrik gertatu den zerbait. Arazo hau egiturazkoa da, oinarrian dago, eta bistan dago boterea eta dirua dagoen tokietan matxismoa dagoela. Hain zuzen, boterea eta dirua dagoelako ez du inork bere jarlekua utzi nahi, eta Rubialesekin hori ari gara ikusten garbi". Eta zentzu horretan, Elkorok garbi dauka aldaketak sakonekoak izan behar duela. "Baina ez Espainiako Futbol Federazioan soilik; uste dut aldaketak oinarritzak izan behar duela, eta baita gurean ere. Eta gurean diodanean ez da futboleko soilik, baita bestelako kirol federazioetan ere. Federazio horietako agintariak zeintzuk izan behar diren gutxi batzuen artean erabakitzen da, eta horrek ere ez du laguntzen. Eta horrekin batera, garbi daukat klubentzuzendariaren eta federazioaren ere emakume gehiago behar direla, gauzak beste modu batean ikusten ditugulako".

#### Zapuztutako ospakizuna

Oihana Aldai maila goreneko ospakizun baten protagonista

**"UDA-KO PRESIDENTE MODUAN EZ DUT ARAZORIK IZAN, ERRESPETATUA SENTITU NAIZ BETI"**



**AGURTZANE ELKOROK**

UDA-KO PRESIDENTEA ETA JOKALARI OHIA



Ezkerretik hasita Elkorok, Azkarate, Legarda, Roa eta Aldai, eguaztenean Ibarren. XABIER URZELAI

## Egiturazko aldaketen beharra ikusten dute

**FUTBOLA** Luis Rubialesen auziaren bueltan sortu denaren gainean berba egiteko GOIENAK ibarreko bost jokalarari ohi batu ditu. Urte hauetan emakumezkoen futboleko egon diren aldaketen testigu izan dira, baina diote bide luzea dagoela egiteko

izan zen duela lau urte. Hain zuzen, 2018-2019 denboraldian Realekin Erregina Kopa irabazi zuen aretxabaletarrak. "Jartzen naiz Munduko Txapelketa irabazi berri duten jokalarientzuzendariaren eta federazioaren erabakia da Munduko Txapelketa bat irabazi dutelako, dagoen lorpenik handiena delako, eta apenas egin dugulako horren gainean berba. Egia da gertatu denaren gainean ere berba egin behar dela, oso larria delako eta sala-

garria, baina zarata handia sortu da kontu honen guztiaren gainean, foku mediatikoa hori egon da eta oso tristea da, bai".

Sokoa Azkaratek emozioz jarraitu zuen finala, bereziki berdegunean zeuden hainbat jokalarirekin tratatu pertsonala daukalako. Eta bat dator Elkorok eta Aldaik egindako hausnarketarekin. "Pena da hau guztia, hain justu, finalaren ondoren gertatu izana, behin txapeldun izan direnean. Izan

ere, hilabete batzuk lehenago ere jokalariek planto egin zuten, salatu zuten federazio barruan gertatzen ari zena, bistan zegoen ikusten zituzten hainbat gauza ez zitzaizkiela gustatzen, baina orduan komunikabideek, eta gizarteak berak, bizkarra eman zien. Eta orain, pena da halako gertaera batek egon behar izan duela gizartearen babesa lortzeko, eta orain hasi gara denak esaten jokalarari horiek ze arrazoi zuten".

**"RUBIALESEK ONDOREN IZANDAKO JARRERA OLDARKORRAK EZ DU BATERE LAGUNDU"**



**MAITANE ROA**

MONDRAKO ETA EIBARKO JOKALARI OHIA

**"GERTATU DENA SALATU EGIN BEHAR DA. PENA DA KIROL LORPENA ESTALI DUELAKO"**



**OIHANA ALDAI**

REALEKO ETA EIBARKO ATEZAIN OHIA

**"NESKEK ORDUTEGI TXARRAGOAK IZATEA... HALAKOAK ERE ZUZENTZEN DABILTZA KLUBAK"**



**OLATZ LEGARDA**

LEINTZ ARIZMENDIKO JOKALARI OHIA

**"VALENTZIAN, GOGOAN DUT HARMAILETATIK SEKULAKOAK ENTZUN NITUENEOA"**



**SOKOA AZKARATE**

REALEKO ATEZAIN OHIA

Aurrekoek moduan, Olatz Legardak eta Maitane Roak ere sorpresaz hartu dute hau guztia, sorpresa lehenengo, eta pena eta amorrua gero. "Nik uste dut Rubialesek ospakizunen ondorengo egunetan izandako jarrerak ere zerikusi handia izan duela. Barkamenak zintzotasunez eskatu beharrean jarrera oso oldarkorra erakutsi du, eta izan duen jarrera txarrak ere erreazioa sortu du guztiongan. Ze jende dago gaur egungo futbolarren atzean? Galdera hori egin diogu gure buruari", dio Roak.

#### Bizipen pertsonaletatik tiraka

Agurtzane Elkorok eta Sokoa Azkaratek dira lagun talde honetako veteranoenak, eta diote urte hauetan guztietan gauzak onerako aldatu direla, nahiz eta bistan dagoen bide luzea geratzen dela oraindik egiteko. "UDAko presidente moduan daramatzadan urteetan ez dut nirekiko matxismo zantzurik ikusi, ez herritarren partetik, ez jokalarien partetik eta ezta gainontzeko klubetako ordezkarien edo federazioen partetik ere. Alde horretatik ez daukat inongo kezarik, errespetatua sentitu naitzelako". Jokalarari moduan bizi izandakoez galdetuta, irribarre batekin hasi da sasoi batekoak gogorarazten: "20-30 urte egin behar dira atzera gure futbol bizipenaren gainean berba egiteko [Barreak], baina gogoan dut, esaterako, Eibarrera jokatzera joaten ginenean, gizona zeko aldageletan aldatzen zirela, eta gu barrakoietan sartzen gintuztela. Eta Unbeko kasua aipatzen dut bat esatearren, baina leku askotan izaten genituen hala-koak".

Elkorok moduan, gainontzeko neskek ere ondo urratu izan dituzte belaunak areazko zelaietan, kategorian berean, gizona zeko belarrezko zelaietan jokatzen zuten bitartean. "Halakoak





Futbol jokalaririk ohiak, aste barruan lbarren. x.u.

denok bizi izan ditugu", dio Atxabalpeko areazko zelaiko area txikiak ondo baino hobeto ezagutzen zituen Sokoia Azkaratek –gaur egun Eibarrek entrenatzen du bertan, eta belarrezko zela txukuna dago–, "eta esango nuke herri mailako klubetan halakoak ere zuzentzen joan direla". Belar artifizialdun zelaiek, sikiera, hori ekarri dute, alegia, gizonezkoen eta emakumezkoen bereizketa horiekin amaitzea. Entrenamenduetako eta partiduak jokatzeko ordutegiak, oraindik ere, egongo da zer hobetu, seguru.

#### Goiko kategorietan, okerrago

Hori bai, goragoko kategorietan harmailetatik datozen eraso matxistak geroago eta nabarmen-

nagoak izan ohi dira. "Jokalariekin edo klubetako ordezkarien artean nik ez dut inoiz halakorik ikusi. Baina harmailetan bai, hor denetarikoa ikusi eta entzun izan ditugu. Gainera, kontutan izan ni atezaina nintzela, azken leerroan egoten den jokalaria, eta atezainak harmailetatik esaten den guztia entzuten du. Anekdoten artean, gogoan dut Valentzia Kopatik kanporatu eta hurrengo denboraldia Valentzian bertan hasi genuela. Eta, nire atzean zeuden ikusleek partidu osoa igaro zuten zera kantatzen: 'Esto no es un portero, es una puta de cabaret'. Momentu horretan badakizu pertsona horiek ez zaituztetela ezagutzen eta ez dutela zure kontra ezer pertsonalik. Euren helburua zu par-

tidutik ateratzea dela, eta egin behar duzuna dela kontzentrazioari eustea. Baina ez da erraza, bereziki jokalaririk gaztea bazara. Gogoan dut taldekide batek aldaketa eskatu behar izan zuela partidu hartan, ezin izan zituelako irainak jasan" dio Azkaratek.

#### Rubiales gehiago ez

Halako kasurik errepikatu ez dadin egin beharrekoen artean, Elkorok zorrotz egin du berba. "Egungo federazioetako egiturak hautsi egin behar dira, garai batetik datozen egiturak dira, eta boterearekin eta diruarekin lotura zuzena daukate". Hala, bost lagun hauek garbi daukate Rubiales gehiago ez egoteko aurrerapausoak heziketatik etorri behar duela, eta gizarte mailan egin beharreko hausnarketatik. Sakoneki lanketa egin behar dela, eta ez futboleko soilik. Baina, nahiz eta Munduko txapelketa irabazi izana bigarren mailan geratu, uste dute sortu den olatu honek lagun dezakeela gauzak aldatzen. "Jende askori begiak zabaldu dizkiolako. Matxismoaren kontrako lasterketan aurrerapauso handia egin genezakeela uste dut. Ardura postuetan dauden gizonezkoek bestelako jarrera bat izan behar dutela ikusi dute, eta sinistuta nago atzetik datozen emakumezko jokalaririk gazteek etorkizunean bestelako errealitate bat biziko dutela".

## Foku mediatikotik aldentzea

Egun beteak izan dira Gipuzkoako futbol federazioeko presidente Manu Diazendako. Rubiales afera gertatu berritan, GOIENA bergararrarekin harremanetan jarri zenean, Diazek Munduko Txapelketako finaleko sari banaketan jazotako gertakariak "oso kritikagarriak" direla adierazi zuen, eta aurreratu zuen Euskadiko federazioa –Gipuzkoakoa barne– ez zela Rubialesek deitutako batzarrera joango. Eta batzarrak emandakoa ikusi ondoren, Diazek Espainiako federazioeko zuzendaritza batzordeko kide izateari uzteko erabakia hartu zuen.

Astelehenean, berriz, lurraldetako federaziotako ordezkariak Madrilen batzartu dira bitarteko presidente Pedro Rocharekin, eta Gipuzkoako federaziotik erabaki dute aurrerantzean afera honen bueltan adierazpen gehiago ez egitea: "Uste dugu Rocharen

lantaldeari lanean utzi behar diogula, eta egun hauetan izan dugun protagonismo mediatikotik neurria hartu behar diogula. Esan behar genituenak esan ditugu, eta uste dugu Gipuzkoako federazioaren ikuspuntua garbi geratu dela. Aldaketak oinarritzat izan behar du, eta orain, berba gutxiago egin eta gauzak egiteko ordua da".



Manu Diaz. GOIENA

#### Emakumezkoen kongresua

Bestalde, Gipuzkoako futbol federazioaren eta Diputazioaren eskutik datorren urtean nazioarte mailako emakumezkoen futbol kongresua antolatuko dute

Gipuzkoan. "Duela sei hilabete hasi ginen Foru Aldundiarekin batera kongresu honekin lanean, ez du Rubialesen aferarekin zerikusirik, baina gertatu denak erakutsi du halakoen beharra dagoela". Aurreratu dute kongresu horretan puntako futbol jokalariek hartuko dutela esku.



## Realaren eta Getaferen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Getafe norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida irailaren 22tik 24rako asteburuan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: irailaren 17a

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



goiena<sup>™</sup>  
kide

Okm:  
batzen gaituen  
distantzia



# Musika akustikoa, Kulturartetik JAMEra

Euskal Herriko zein atzerriko musika estilo ezberdinak jasoko ditu Oreixe Akustikoak. Irailaren 8an hasi, eta bi asteburutan banatuta, sei kontzertu izango dira Arrasateko Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean, 19:30ean; sarrerak, bost eurotan

**Julen Murua Mesonero** ARRASATE Datorren egubakoitzean emango dio hasiera Arrasateko Udalak Oreixe Akustikoa musika zikloari eta hilaren 17 arte izango da kontzertuez gozatzeko aukera. Orain arte Kulturate Akustikoa bezala ezagutu den kultur eskaintzak, haren hama-bosgarren edizioa ospatuko du; aurtengoan, gainera, hainbat aldaketa aurreikusten dira.

Orain arte Kulturate Akustikoa bezala ezagutu bada ere, izena

aldatu eta Oreixe Akustikoa bezala izendatu du Arrasateko Udalak kultur eskaintza hau. Kontzertuak jasoko dituen tokiak eta orduak ere aldaketak izan dituzte; izan ere, kontzertuak Kulturateko areto nagusian izatetik Juan Arzamendi Musika Etxeko (JAME) auditoriumean izatera igaroko dira.

Karmelo Alberdik, Udaleko Kultur Programatzaileak, dio kontzertuak jasotzen zituen lekua aldatzea izan dela "kultur es-



JAMEren eraikina. ARRASATEKO UDALA

kaintza honen izenean aldaketa eragin duena". JAMEko Auditoriumean kontzertuak izateak "akustikoki laguntzeaz gain, ikusle eta entzuleentzat baldintza hobekak eskaintzea ahalbidetzen digu ikuspenari dagokionez", aitortu du Alberdik.

Ordutegiari dagokionez, kontzertuak, aurreko urteetan ez moduan, 19:30ean izango direla gaineratu du Alberdik: "Konturatu gara emanaldiak berandu xamar amaitzen zirela eta uste dugu ordutegi egokiago bat ezarri dugula". Sarrerak astelehenetik, hilaren 4tik, aurrera egongo dira salgai Arrasateko Udalaren webgunean *-Arrasate.eus-* bost euroren truke.

## Emakumezkoak, nabarmen

Oreixe Akustikoaren edizio honetan askotariko musika estiloez gozatzeko aukera izango dute bertaratuko direnek: Olaia Inziarteren pop iluna; Emilia y Pablaren folklore latinoameri-

karra edota Baskeryren blues edo country-a, esaterako.

Hala ere, egitarauan antzeman daiteke talde edo bakarlari guztiek komunean daukaten ezagarririk bat: emakumeak protagonista diren taldeak direla. Alberdik dio beti saiatu direla ematen bere lekua emakumeari antolatzen dituzten emandiri guztietan, baina azpimarratu du, oraingoan "bereziki nabarmena" dela hauei eskaini dien tokia. Aitortu du badagoe emakume sortzaileak bultzatzeko asmoa: "Zalantzarik gabe kalitatezko kontzertuak eskaini eta kalitatezko lanak argitaratu dituzte, eta, hori da aukeraketa hau egitearen arrazoi nagusia".


Edizio berri honetarako osatutako egitarauarekin "oso gustura" geratu dela adierazi du Alberdik, eta uste du "kalitate handiko kontzertuak entzuteko aukera" izango dutela bertaratuko diren guztiek.

## Oreixe Akustikoaren egitaraua



### OLAIA INZIARTE

- **Noiz joko du:** Irailak 8, egubakoitza, 19:30.
- **Nondik dator:** Oronoz.
- **Musika mota:** Pop iluna.



### SARA AZURZA

- **Noiz joko du:** Irailak 9, zapatua, 19:30.
- **Nondik dator:** Donostia.
- **Musika mota:** Pop, soul, funky eta elektronika.



### EMILIA Y PABLO

- **Noiz joko dute:** Irailak 10, domeka, 19:30.
- **Nondik datoz:** Madril eta Txile.
- **Musika mota:** Folklore latinoamerikarra eta flamenkoa.



### BASKERY

- **Noiz joko dute:** Irailak 15, egubakoitza, 19:30.
- **Nondik datoz:** Stockholm, Suedia.
- **Musika mota:** Folka, bluesa, countrya eta rocka.



### VERDE PRATO

- **Noiz joko du:** Irailak 16, zapatua, 19:30ean.
- **Nondik dator:** Tolosa.
- **Musika mota:** Herriko folklorea.



### SOFIA COMAS

- **Noiz joko du:** Irailak 17, domeka, 19:30.
- **Nondik dator:** Madril.
- **Musika mota:** Poesiak.





Ines Osinaga bere azken lana aurkezten Durangoko Azokan. MIREN ARREGI

# Ines Osinagak diskoa aurkeztuko du Itziarren

Euskal Herriko eta Kubako zenbait musikari arituko dira arrasatearrarekin batera oholtza gainean bihar, zapatua, Itziarreko elizan eskainiko duen kontzertuan. Dagoeneko edukiera beteta dago *Itsasoa Da Bide Bakarra* jaialdirako

**Oier Zumarraga** ARRASATE  
Ines Osinagak Itziarreko elizan aurkeztuko du bere azken lana zapatuan: *Itsasoa Da Bide Bakarra*. Iaz Durangoko Azokan egon ondoren, orain jaialdia egiteko erabakia hartu du eta aurreratu duenez, lagun izango dituen musikari euskal herriarrez eta kubatarrez gain, sorpresa gehiago izango dira. Proiektuaren lehen zatia Kuban garatu zuen musikariak, Habanan. Hainbat emakume musikari ezagutzeko aukera izan zuen, eta handik ekarritako materialarekin osatu zuen sorkuntza prozesua Euskal Herrian. Beraz, Itziarren ez ezik, Habanan ere proiektua aurkez-

tuko du urriaren 6an. Osinagak adierazi duenez, ez da bira arrunta izango, soilik bi kontzertu joko baititu. Publikoak denetariko musika generoez gozatzeko aukera izango duela gehitu du, bere hitzetan diskoa musikalki oso anitza eta aberatsa baita. Lana soinu organikoaz eta produkzio elektronikoaz osatua dago; "bidaia luzeko abestiak" dira.

**Sorpresaz beteriko emanaldia**  
Osinagak, besteak beste, alboan izango ditu Yaima Orozco –gitarra, klabea eta mood guajiroa–, Naile Sosa –perkusioa– eta Irina Gonzalez –gitarra–. Baina baita Olatz Salvador, Miren Amuriza,

Garazi Eiguren eta Janire Etxabe ere. Hala ere, sorpresaz beteriko emanaldia izango dela ziurtatu du: "Denbora asko daramat kontzertua prestatzen eta gogotsu nago oholtza gainera igotzeko; izugarria izango da".

Bestalde, larunbatera begira sentimendu kontrajarriak dituela aitortu du: "Alde batetik urduri nago, baina baita hunkituta eta pozik ere".

**Edukiera beteta**  
Jaialdirako edukiera dagoeneko beteta dago eta 19:00etan irekiko dituzte ateak jarraitzaileentzat. Kontzertua Itziarreko elizara lekualdatu dute, eguraldiaren iragarpen eskasa dela eta.

# Jonan Ordorikak hutsune sakona utzi du musikagintzan

Eskarmentua luzea zuen ekoizle eta musika teknikari oñatiarra, abuztuaren 7an hil zen, 56 urte zituela

**Oier Zumarraga** OÑATI  
Hainbat urte egin zituen musika munduaren bueltan Jonan Ordorikak. Sortzaile askorekin egin du lan bere ibilbide oparoan zehar; besteak beste, Ruper Ordorika anaiarekin. Azkenekoz,

*Amour eta toujours* (2021) lanean aritu ziren elkarrekin. Azken hamarkada Mamia Estudioan igaro zituen nahasketa mahaia-aren alboan. Bertatik, Joseba Irazoki eta Rafael Berrio bezalako musikariak pasa ziren.

Baita, Willis Drummond, Glaukoma edota Betagarri bezalako taldeak ere. Horrez gain, Lou Reed musikariaren omenezko lanaren sustatzaileetako bat ere izan zen Ordorika 2014. urtean. Bertan, beste hainbat euskal artistarekin batera omenaldi diskoa argitaratu zuten.

**Utzitako hutsunea**  
Ordorikaren heriotzaren berri izatean, hainbat izan ziren sare sozialetan mezuak zabaldu zituzten lagun eta ezagunak.

## Goienakideen txokoa

### IRAILEKO SARIAK

**Liburu-irakurgailua**  
Kobo Nia e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook



**Sarrerak**  
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



**Otarrea**  
Bidezko merkataritzako produktuak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

**PARTE HARTZEKO:**  
Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sonen oina" [batzordearen zerbakia] 988 6900 07 zerbakia.  
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen etean egingo da zozketa. Haren zehazkiak 2023/09/01 lehenengo sariaren zozketaren ondorioz zozketatzen dira. Zozketaren emaitza 2023/09/01 lehenengo sariaren zozketaren ondorioz zozketatzen dira. Zozketaren emaitza 2023/09/01 lehenengo sariaren zozketaren ondorioz zozketatzen dira. Zozketaren emaitza 2023/09/01 lehenengo sariaren zozketaren ondorioz zozketatzen dira.

Puntuo aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 45€  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia



## LORAMENDI EUSKARA ELKARTEAK ANIZTASUN ETA BARRIKETAN PROIEKTUETARAKO KOORDINATZAILEA BEHAR DU

### ESKAINTZEN DA:

- Aniztasun eta Barriketan proiektuetan koordinatzaile eta dinamizatzaile lanak egitea.
- 16 orduko lanaldia.
- Urrian hasteko.

### ESKATZEN DA:

- Bigarren mailako lanbide heziketa, gradua edo diplomatura-lizentziatura titulua izatea.
- Harremanetarako gaitasuna izatea.

### BALORATUKO DA:

- Aretxabaletarra izatea eta bertako euskalkia menperatzea.
- Hizkuntzarekin eta kulturartekotasunarekin loturiko ikasketak izatea.
- Dinamikoa eta saiaturia izatea.

Interesatuak bidali curriculum vitae  
irailaren 8a baino lehen  
euskara@loramendielkartea.eus  
helbidera edo bulegora gerturatu  
(Durana 11, Aretxabaleta)



## Korosti inmobiliaria

**Bergara: Lizaria, 3 logela, trastelekua, garaje itxia, bizitzera sartzeko.**  
**220.000€**



**Bergara: Fraiskozuri, 102m2, 4 logela, igogailua, eguzkitsua.**  
**179.000€**



**Elgeta: Salbador, 80 m2, 2 logela, igogailua, ganbara, ESTREINATZEKO**  
**166.000€**



Ibargarai 3 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 97  
[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

Informazio  
gehiago:



## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



### ERRUTINARA ITZULERA

Oporrak bukatuta, gizartea normaltasunera itzuli da eta horren lekuko izango da *Uda giroan* saioa.

*'Uda giroan'* Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00



### NOLA JOAN DIRA OPORRAK?

Debagoiendarrak oporretan nola ibili diren erakutsiko dute, besteak beste.

*'Uda giroan'* Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00.



### HEMENGO TOMATEA

Tomatearen ezaugarriak ezagutu eta Anne Otegi sukaldaria elkarriketatuko dute.

*'Uda giroan'* Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00



### ESKOLARA ITZULERA

Ikasle gaztetxoek ikastetxetara nola itzultzen diren erakutsiko dute, besteak beste.

*'Uda giroan'* Eguena, 18:00, 20:00 eta 22:00



### GATZAGAKO JAIK

Andramaixetako lehen jaiegunaren erreposaoa egin eta Dorleta Elkorobarrutia alkatea elkarriketatuko dute.

*'Uda giroan'* Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:  
[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## ZORION AGURRAK



BERGARA  
**Asier Garitano Agirre**  
Irailaren 7an, 10 urte.  
Zorionak txapeldun!  
Gozatu zure urtebetetze eguna.  
Patxo haundi haundi bat etxeko danon partetik, bereziki zure lehengusuen partetik!!



OÑATI  
**Peru Erle Agirre**  
Irailaren 5ean, 4 urte.  
Zorionak, Peru!  
Primeran zelebrau zure urtebetetze eguna eta segi beti bezain alaitxu. Patxo haundi bat etxeko danon partetik!




OÑATI  
**Asier Hernandez Juan**  
Irailaren 2an, 2 urte.  
Zorionak, Asier!  
Ondo-ondo pasa zure urtebetetzea! Musu handi bat.



ARETXABALETA  
**Aitzol Puga Saez**  
Abuztuaren 27an, 15 urte.  
Zorionak, txapeldun! Jarraitu zaren bezalakoa izaten eta zure ametsengatik borrokatzen. Asko maite zaitugu.



BERGARA  
**Unai Egaña Zabaleta**  
Abuztuaren 25ean, 11 urte.  
Zorionak, Unai!  
Musu haundi bat zure urtebetetzea familia guztiaren partetik. Bereziki Ibai, Urko, Ekain, Haizea eta Amets.



BERGARA  
**Arene Gorriti Esnaola**  
Abuztuaren 19an, 3 urte.  
Zorionak, preioxoa! Segi horren alai izaten! Asko maite zaitugu denok! Musu pila bat zuretzat!



OÑATI  
**Garazi Etxezarreta Castillo**  
Abuztuaren 18an, 3 urte.  
Zorionak, bitxi! Egun polita pasau! Patxo potolo bat familia danaren partetik!



ESKORIATZA  
**Rebeca Romero**  
Abuztuaren 18an, 46 urte.  
Zorionak, amatxo! Disfrutatu pila bat zure egunean. Asko maite zaitugu.



OÑATI  
**Aimar Igartua Zubia**  
Abuztuaren 8an, 6 urte.  
Zorionak eta urte askotarako, ganberro! 6 urte gure artian zorientasuna eta alaittasuna emuten. Asko maite zaitugu.



ARRASATE  
**Julen Uribeetxeberria Errasti**  
Abuztuaren 7an, 8 urte.  
Zorionak, Julen! 8 urtetar bete berri gaurkuen! Segi bizitzako momentu danak zuketzen eta beti bezain zorientatu!



BERGARA  
**Unai Beistegi Frias**  
Abuztuaren 5ean, 12 urte.  
Zorionak, Unai!  
Asko maite zaitugu eta jarraitu zaren modukoa izaten.



BERGARA  
**Ines Larrañaga, Iñaki Osa eta Naia Osa**  
Zorionak, amama Ines "Inaxi", 96 urte, Iñaki 79 eta gure Naia 8 urte. Beste buelta oso bat eguzkiari. Guretzat, familiarentzat, zuen ondoan izatea plazera da. Ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Laztan handi bat hiruroi.





**BERGARA**  
**Iñaki Zabala Ibarguen**  
Irailaren 2an, zorionak, aitita Iñaki! Ederto pasau zure urtebetetze egunean eta besarkada estu bat familia osoaren partetik!



**ARAMAIO**  
**Anne Kortabarria Aginagalde**  
Irailaren 1ean, 9 urte. Zorionak, Anne! Jarraitu gure bizitzako egunak alaitzen.



**ARETXABALETA**  
**Konsuelo Zubizarreta Etxabe**  
Irailaren 1ean, Zorionak, amama Konsuelo! Oso ondo pasa zure urtebetetze egunean. Besarkada bat, familia osoaren partetik!



**ESKORIATZA**  
**Nikole eta Josu Intxausti Maturana**  
Abuztuaren 29an. Zorionak, bikote! 11 eta 9 urtetxo, ze azkar pasatu dan! Segi gozatzen! Maite zaituztegu!



**BERGARA**  
**Aner Lopez Usaola**  
Abuztuaren 28an, 5 urte. Zorionak, haundikote! Askoko maitte doun Malenen, Maddiren, aitaxoren eta amatxoren partetik.



**BERGARA**  
**Alazne Elorza Garcia**  
Abuztuaren 28an, 8 urte. Zorionak, Alazne, polit hori! Oso ondo ospatu eguna eta muxu pilo bat, zure familiaren partetik.



**OÑATI**  
**Aitor Velasco Juan**  
Abuztuaren 28an, 2 urte. Zorionak, Aitor! Ondo pasa zure eguna! Musu potolo bat!



**OÑATI**  
**Irai Lizarralde Suarez**  
Abuztuaren 27an, 4 urte. Zorionak, txiki! Ospatu topera zure urtebetetzea eta segi beti bezain alai! Musu handi bat etxeko guztien, eta bereziki, Araneren partetik.



**ARRASATE**  
**Laia eta Mara Del Pozo Martin**  
Abuztuaren 25ean, 9 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasau eta asko gozatu zuen eguna. Besarkada handi bat familiaren partetik.



**BERGARA**  
**Sare Loidi Astigarraga**  
Abuztuaren 25ean, urtebete. Zorionak, potxola! Jarraitu beti bezain irrifartsu! Musu handi bat etxekoaren partetik!



**OÑATI**  
**Oliver Perez Arregi**  
Abuztuaren 24an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Jarraitu egunero futbolian itten eta Karenekin hainbeste jolasten! Super ondo pasau!



**ARETXABALETA**  
**Noah Oyarzabal Errasti**  
Abuztuaren 23an, 6 urte. Zorionak, Noah. Jaso itzazu patxo erraldoiak familia guztiaren, eta bereziki, Dararen, Pauren eta Onaren partetik.



**OÑATI**  
**Mikel Sanchez Arroiabe**  
Abuztuaren 22an, 10 urte. Zorionak, Mikel! 10 urte! Jarraitu holako mutil jatorra izaten! Patxo bat danon partetik!



**OÑATI**  
**Ane Zulueta Igartua**  
Abuztuaren 21ean, 8 urte. Zorionak, Ane, 8 urte jada! Egun zoragarri bat euki daizula eta patxo haundi bat etxeko danon partetik!



**ARRASATE**  
**Iزارo Aizpuru Jauregi**  
Abuztuaren 21ean, 7 urte. Zorionak, Iزارo! Zarena zarelako, asko maitte zaittugu.



**OÑATI**  
**Aimar Garcia Lopez**  
Abuztuaren 21ean, 9 urte. Zorionak, Aimar! Jada 9 urte! Jarraitu zaren bezalakoa izaten. Musu erraldoia bat familia danaren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Iزارo Garcia Sanchez**  
Abuztuaren 17an, 3 urte. Zorionak, Iزارo! Ondo pasau eta gozatu, printzesa. Musu handi bat zure familiaren partetik.



**OÑATI**  
**Iزار eta Ekain Agirre Fuente**  
Abuztuaren 16an, Iزارrek 6 urte eta Ekainek urte bat. Ederki ospatuko dugu familian. Egun oso polita pasa. Musu erraldoi bat amatxoren, aitaxoren eta familixa guztiaren partetik.



**ARRASATE**  
**Anitz Mancebo Osa**  
Abuztuaren 16an, 9 urte. Zorionak 9. urtebetetzean. Gozatu zure urtebetetze egunaz eta ez aldatu! Izugarri maite zaitugu! Familia eta lagunaren partetik.



**OÑATI**  
**Miren Sanchez Arroiabe**  
Abuztuaren 13an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Jarraitu beti bezain alai eta sinpatika! Patxo handi bat!



**BERGARA**  
**Zura Rodriguez Santamaria**  
Zorionak, maitxia! 10ean, 5 urtetxo borobil! Etxeko danon partetik besarkada erraldoi bat! Musu bat Mioren, Xakiren eta Aixaren partetik be!



**BERGARA**  
**Martin Olabarria**  
Abuztuaren 10ean, 6 urte. Zorionak, pittin! Heldu da: sei urte! Ondo pasatu eguna! Patxo eta besarkada bat, bereziki Danelen eta Suaren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Laia Hernandez Gartziaetxabe**  
Abuztuaren 9an, urtebete. Zorionak gure etxeko txikiari! Oso ondo ospatu, bihotza. Musu potolosa etxekoaren partetik!



**BERGARA**  
**Arane Mendizabal Coranti**  
Abuztuaren 4an, 5 urte. Zorionak, Aranetxo, familixako danen partetik! Jarraitxu irribarretxo horrekin! Etxeko danok maitte zaittugu.



**ARETXABALETA**  
**Iker Hernandez Gartziaetxabe**  
Abuztuaren 4an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo ospatu zure eguna oporretan. Musu erraldoi bat etxekoaren partetik!



**BERGARA**  
**Leah Zabaleta Rodriguez**  
Abuztuaren 3an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasau zure egunian! Musu potolo bat danon partetik!



**OÑATI**  
**Maren Igartua Zubia**  
Abuztuaren 2an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Bi urtetxo jada. Segi beti bezain alai! Maitte zaittugu!



**OÑATI**  
**Aiora Fernandez Galdos**  
Abuztuaren 2an, 11 urte. Zorionak, laztana, familixa danaren partetik! Ondo pasau zure eguna!



**ARETXABALETA**  
**Kerman Etxebarria Zabala**  
Abuztuaren 2an, 6 urte. Askoko maitte zaitxugun danon partetik, zorionak, Kerman! "Kame hame ha!"



**BERGARA**  
**Ekain Ugalde Iruin**  
Abuztuaren 1ean, 2 urte. Zorionak, bihotza! Jarraitu gure etxeak alaitasunez betetzen zure irribarrearekin. Askoko maitte zaittugu.



**OÑATI**  
**Maddalen Intxaurtieta Arregi**  
Uztailaren 30ean, 8 urte. Zorionak, Maddalen! Patxo handi bat aitaxoren, amatxoren eta familixa danaren partetik!



**ESKORIATZA**  
**Izaskun Uribarri Jausoro**  
Uztailaren 28an, urtebetetzea. Zorionak, amandria! Egun on ona pasa! Askoko maitte zaitugu! Etxekoak.



**OÑATI**  
**Nora Kortabarria Sainz**  
Uztailaren 28an, 8 urte. Zorionak, gure printzesa! Gozatu eta ospatu zure urtebetetzea. Laztan handi bat etxekoaren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Lide Urteaga Larrea**  
Uztailaren 27an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ze nagusi egin zaren! Milaka patxo handi, txapeldun!



**BERGARA**  
**Ander Ortiz Lizarralde**  
Uztailaren 26an, 13 urte. Zorionak, mutil handi! Disfrutau zure egunaz eta patxo potolo bat etxeko danon partetik. Maitte zaitxugu.



**OÑATI**  
**Oinatz Urzelai Aizpeolea**  
Uztailaren 25ean, 12 urte. Zorionak, Oinatz! Ondo pasa zure eguna. Topera disfrutau! Musu handi bat etxeko denen, eta bereziki, Auritzen partetik.



**BERGARA**  
**Laura Aguiar Anjos**  
Uztailaren 21ean, 4 urte. Zorionak, Laura! Oso ondo pasa zure eguna! Patxo potolo bat familiaren eta lagunaren partetik!




**ARRASATE**  
**Markel Zubano Trenado**  
Uztailaren 20an, urtebete. Zorionak, maitia, urtetxo bat! Disfrutau zure eguna! Askoko maitte zaitugu! Patxo haundi bat zure familiaren partetik.

**ZORIONTEKO HIRU BIDE**


- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu.
- Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara batera edo delitu 943 25 05 05 telefonora.



ESKER ONA



**Begoña Abarrategui Beitia**




Juan Mari Loitiren alarguna  
2023ko abuztuaren 29an hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko irailaren 1ean.

ESKER ONA

**Esteban Otadui Iribekanos**




2023ko abuztuaren 24an hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko irailaren 1ean.

ESKER ONA

**Roberto Aldalur Uriarte**



2023ko abuztuaren 29an hil zen, 80 urte zituela.

*Mendian lar artean aurkitzen da loretxo bat...*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


Aretxabaletan, 2023ko irailaren 1ean.

## HILDAKOAK

**Mari Karmen Akizu Gastañaga.** Aretxabaletan, abuztuaren 23an.  
**Esteban Otadui Iribekanos.** Arrasaten, abuztuaren 24an. 66 urte.  
**Maria Carmen Ayastuy Egaña.** Gasteizen, abuztuaren 24an.  
**Carmelo San Torcuato Marzana.** Bergaran, abuztuaren 24an. 95 urte.  
**Milagros Ibarzabal Bidea.** Aretxabaletan, abuztuaren 25ean. 83 urte.  
**Marisa Zubillaga Zabala.** Antzuolan, abuztuaren 26an. 76 urte.  
**Esperanza Jauregi Ezkurra.** Arrasaten, abuztuaren 26an. 87 urte.  
**Jose Mari Arondo Villeras.** Bergaran, abuztuaren 26an. 76 urte.  
**Miguel Cortabarría Ayastuy.** Oñatin, abuztuaren 26an. 87 urte.  
**Begoña Abarrategi Beitia.** Arrasaten, abuztuaren 29an. 84 urte.  
**Roberto Aldalur Uriarte.** Aretxabaletan, abuztuaren 29an. 80 urte.  
**Carmen Tejedor Buron.** Eskoriatzan, abuztuaren 30ean. 81 urte.

ESKER ONA

**Kontxi Rodriguez Uranga**



Jose Mari Inurritegiren alarguna  
2023ko uztailaren 24an hil zen, 97 urte zituela.

Eskerrik asko une hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza hurrengo larunbatean, irailaren 9an, izango da, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.  
Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2023ko irailaren 1ean.

ESKER ONA



**Milagros Madinazkoitia Urzelai**



2023ko uztailaren 31n hil zen, 97 urte zituela.

Eskerrik asko une hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza larunbatean izango da, irailaren 2an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.  
Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2023ko irailaren 1ean.

**ESKEKAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 175 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 175 € / Goiena Klubeko bazkideendako 155 €

**Goiena: irakurriena Debagoiengan.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



ESKER ONA

**Jose Mari Martinez Gutierrez**



2023ko uztailaren 23an hil zen, 73 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko irailaren 1ean.

ESKER ONA

**Carmelo San Torcuato Marzana**



2023ko abuztuaren 24an hil zen, 95 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko irailaren 1ean.

URTEURRENA

**Encarna Larrañaga Lizarralde**



1925-03-25 / 2022-08-26

*Aitzan jaiou zen ta ezkondu zen  
Askarruntzera Enkama,  
mahaiaren bueltan kontu kontari  
zenbat alditan izana.  
Istoriaok gure gogoan  
gorde dira banan-bana.  
Besteok zaintzen nola gogotik*

*egiten zenuen lana  
gure artean dugu oraindik  
zurekiko harremana.  
Seme-alabak eta bilobak  
josirik elkarrengana,  
urtebeteren ostean ere  
maite zaitugu amama.*

2023ko irailaren 3an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina elizan urteurreneko meza ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2023ko irailaren 1ean.

URTEURRENA

**Maritxu Maiztegui Goitia**



2022ko abuztuaren 21ean hil zen, 93 urte zituela.

*Emakume dotore zein langilia,  
Ama indartsu eta noblia,  
Amama maittakor zein paregabia,  
Etxeko eredu eta zutabia.  
Gure babesgunia.*

2023ko irailaren 2an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiaren urteurreneko meza ospatuko da.

Aldez aurretik, esker on bertaratuko zareten guztioi.  
Oñatin, 2023ko irailaren 1ean.




OROIGARRIA

## Maria Carmen Ayastuy Egaña

'Mari'

Gasteizen hil zen 2023ko abuztuaren 24an.



*Lagun leiala, bizitzarekin gogor borrokatuz joan zara. Gure bidaietan gidari, horrela jarraitu zauden lekutik lagunduz, Mari.*

Bidaietako lagunak: Yolanda, Inma, Edurne eta Arantza. Oñatin, 2023ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA

## June Ferreira Tejero

2023ko abuztuaren 7an hil zen, 15 urte zituela.



*Joan zara gugandik urrun, baina ingurukoengan utzitakoa, beti egongo da gurekin.*



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak. Leintz Bailaran, 2023ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA

## Gaizka Agiriano Uriarte

2023ko abuztuaren 5ean hil zen, 59 urte zituela.



*Hutsune galanta utzi duzu, Enkarnaa!! Zenbat istorio elkarrekin. Zenbat pasadizo, parranda eta borroka. Zuk ereindakoak emango du fruitua. Gu guztiongan zaudelako orain, betiko!*



Arrasaten, 2023ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA

## Txema Abarrategi Garaigordobil

2023ko abuztuaren 20an hil zen.



*Zuk familia, euskera, bertsoak eta mendia maite zenituen beste botako zaitugu faltan.*

*Zure solasaldiak beti egongo dira gure artean.*

Aramaioko zure kuadrilla. Aramaion, 2023ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA

## Txema Abarrategi Garaigordobil

2023ko abuztuaren 20an hil zen.



*Goienari emandakoagatik eskerrik asko, euskaltzale!*



Goiena Komunikazio Taldea. Aramaion, 2023ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA

## Txema Abarrategi Garaigordobil

2023ko abuztuaren 20an hil zen.



*Eskerrik asko herrigintzari eskaintako guztiagatik.*



Aramaioko Udala. Aramaion, 2023ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA



## Jose Mari Arrondo Villeras


Abuztuaren 26an hil zen, 76 urte zituela.



*Ezin geldi egon! Horretxek xaxatu gaitu gainontzeko musikarixok! Eta bizi-irakaspena da mugimenduan egotia ze horrek eta musikak berak batu gaitu, lagun talde izateraino. Holaxe gogoratulo dogu tronpa-jotzaile zirikatzailea: Musika buruan eta musikarekin munduan. Bergarako Musika Bandan eta Bergarako orkestra Sinfonikoan lekua izango dozu beti. Entzungo dituzu gure notak zaren lekutik. Musikak elkartuko gaitu, Jose Mari.*


Begarako Musika Banda eta Bergarako Orkestra Sinfonikoa. Bergaran, 2023ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA



## Jose Mari Arrondo Villeras

Abuztuaren 26an hil zen, 76 urte zituela.



*Eskerrik asko gure ondoan egon zaretenoi; jaso dugun maitasun eta babesa, baita hileta-elizkizunean agurra hain polita egitearren. Bergarako Musika Bandari eta guztioi, bihotz-bihotzez, besarkada estu bana senideon izenean.*

Bergaran, 2023ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA



## Iñaki Agirre Laborda

2023ko abuztuaren 9an hil zen, 66 urte zituela.




*Iñaki, beti izango zaitugu gogoan.*

Nagixak kuadrilla. Bergaran, 2023ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA

## Luis Mari Urzelai Lonbide

2023ko abuztuaren 22an hil zen.



*Eskerrik asko bihotz-bihotzez.*

Urzelai Idigoras senideak. Begoña Idigoras, Joxe Jabier Urzelairen alarguna. Ilobak: Aitor eta Sonia Herran, Nerea, Iñaki. Iloba txikiak: Miren, Xabier, Alaitz eta Uxue.

Aretxabaletan, 2023ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA

## Mari Karmen Akizu Gastañaga

2023ko abuztuaren 23an hil zen.



*Begia eta lana jarrita familia den ortuari beti emankor izan zaitugun baratze horren zaindari. Kimu berriak utzi dituzu: lore eta ortuari; uzta berriak haz dakizkion zuk landutako lurrari.*

Zure ilobak. Aretxabaletan, 2023ko irailaren 1ean.

**BABESLEA**

# Oroilore

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

*Guri deitu zuzenean edo, nahiago baduzue, jakinarazi zuen aseguri-konpainiarri gurekin nahi duzuela agurtu maite duzuenara.*

*Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuentzako, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordeta zuentzako, gure beharra duzuenarako.*

**Mario, Iban eta Maribi**



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



# AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 1

### BERGARA Kofraixa jaiak

18:00etan, Martintxoren jaitsiera; 18:30ean, moztorra bizikleta martxa Soraluzera; 20:30ean, poteoa mariatxi doinuekin; 21:45ean, afaria; 22:00etan, Arima Galduak; eta 23:00etan, DBQ. *Osintxun.*

### OÑATI Bidebarrietako jaiak

18:30ean, jaien hasiera; 19:00etan, txorimaloak eta pintxo-poteoa; 20:30ean, Beerpong txapelketa; eta, 22:00etan, Feline, Txakurrak eta Ezta Illen taldeak. *Bidebarrietan.*

### BERGARA San Lorentzo auzoko jaiak

19:00etan, etxafuegoak eta poteo musikatua; 20:30ean, barbakoa herrikoia; eta, 22:00etan, Ilargi behaketa. *San Lorentzo auzoan.*

### ANTZUOLA Elkartasun festa

Anelkar taldearen eskutik. Tortilla pintxoak salduko dituzte. Batutako dirua Kongora eta Senegalera bideratuko dute. *Zurrategi plazan, 19:30ean.*

## ZAPATUA 2

### OÑATI Bidebarrietako jaiak

11:00etan, haurrendako jolasak eta puzgarriak; 16:00etan, mus txapelketa; 19:00etan, txorimaloak; 20:30ean, DJ Izaskun eta Xabi Sound; eta, 22:00etan, Eire, Etxekalte eta Xsakara. *Bidebarrietan.*

### BERGARA San Lorentzoko jaiak

11:00etan, puzgarriak; 12:00etan, triki-poteoa; 12:30ean, toka txapelketa; 17:00etan, apar festa eta dardo txapelketa; 18:00etan, txokolate-jana; 18:15ean, buruhandiak; 19:00etan, oinetako-jaurtiketa txapelketa; 21:00etan, sardina-jana; eta, bingo-jokoa. *San Lorentzo auzoan.*

### BERGARA Kofraixa jaiak

11:00etan, sukaldaritz lehiaketa; 11:30etik 13:30eran, haurrendako

jolasak; 13:30tik 14:30eran, helduendako jolasak; 14:30ean, bazkaria; 17:00etan, haurrendako puzgarriak; 19:00etan, Skapie elektro-txaranga; 23:00etan, Laket taldearekin erromeria; eta 02:00etan, DJ Arno. *Osintxun.*

### ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua

Arrasateko ondare historiko kulturala ezagutzeko. Izenak emateko: 943 25 20 00 edo *Arrasate.eus.* *Herriko Plazan, 11:00etan.*

### ARRASATE Zarugaldeko jaiak

11:30ean, jolasak eta tailerrak; 12:45ean, bolo-boloa; 13:00etan, poteoa; 16:00etan, mus eta partxis txapelketak; 17:00etan, ur-jolasak; 18:30ean, *Zeuk ein, zeuk jan* merienda; 18:50ean, bonba japoniarrek; 19:00etan, Txikitxu-Arrostaitz taldekoen emanaldia; 21:30ean,afaria; 23:00etan, dantzaldia AZ Gaubelak taldearekin; 23:30ean, zezen-suzkoa; eta 23:45ean, AZ Gaubelak. *Zarugalde kalean.*

### ARETXABALETA Emakumezkoen Euskal Herria Kopa: Eibar-Alaves

Hirugarren eta laugarren postuak zehazteko partidua. Sarrera, debalde. *Ibarra futbol zelaian, 12:00etan.*

### LEINTZ GATZAGA Bisita gidatuak Gatz Museoan

12:00etan, euskaraz eta 13:00etan, gazteleraz. Izena: 943 71 47 92 edo *reservas@gatzmuseoa.com.* *Gatz Museoan.*

### ANTZUOLA 'Piko', 'Isuo' eta 'Bargi' musikarien kontzertuak

Hiru musikariak Mukuru kolektiboko partaide dira. *Gaztetxean, 18:30ean.*

## DOMEKA 3

**BERGARA Kofraixa jaiak**  
06:00etan, salda banatzea; eta 12:30ean, harri-jasotzaileak eta aizkolariak. *Osintxun.*

### ARRASATE Galarrako kobara mendi irteera

09:30ean euskaraz eta 11:30ean gazteleraz. Izena emateko: 943 25 20 00 edo *Arrasate.eus.* *Meatzerrekan, 09:30ean.*

### ARAMAIO Marixekako jaiak

11:00etan, salda eta txorizoa; 12:00etan, meza; 12:45ean, kantu poteoa; 14:30ean, bazkal ordua; eta, 18:00etan poniak eta jolasak. *Marixekan.*

### OÑATI Bidebarrietako jaiak

12:00etan, Oñatzeko dantzarien emanaldia; 14:30ean, bazkaria; 18:00etan, arratsalde pasa girotua; 19:00etan, haurrendako antzerkia; eta, 22:00etan, jaien amaiera. *Bidebarrietan.*

### LEINTZ GATZAGA Bisita gidatuak Gatz Museoan

12:00etan, euskaraz eta 13:00etan, gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo *reservas@gatzmuseoa.com.* *Gatz Museoan.*

### BERGARA 'Lerroak. Lineas' erakusketa: azken eguna

Eva Kareagaren eskulturak, grabatuak eta argazkiak ikusteko aukera. *Aroztegin, 12:00etan.*

## MARTITZENA 5

### OÑATI San Migel pilota txapelketa

Gaurtik hasita. Bi kategoria: gazteak eta 23 urtez azpikoak. *Zubikoan, 19:00etan.*

### BERGARA 'Gure bizilagunik onenak' bisita gidatua

Saguzarrak hobeto ezagutzeko jarduera, familiendako. Izena emateko: 943 76 90 03. *Laboratoriumen, 21:00etan.*

## EGUAZTENA 6

### ESKORIATZA 'Mugimendu askea eta kalitatezko eskaintza' tailerra

Haurdun daudenendako eta ume jaioberriak dituzten familiendako. *Jose Arana gunean, 17:00etan.*



HORTZMUGA TEATROA

### OÑATI 'Agurea, urpekaria eta itsasoa' kale antzerkia

Itsasoak elkar ezagutzen ez duten bi pertsona elkartuko ditu, izenik gabeko leku batean. Zer esan ez dakitela, elkar laguntzen eta beren buruak erreskatatzen ikasiko dute. *Etzi, domeka, Bidebarrietan, 19:00etan.*

### OÑATI Kirol jardueratako izen-ematea: azken eguna

Hilaren 12tik 16ra egingo diren ate irekietan parte hartu gura dutenendako izen-ematea. *Zubikoan.*

## EGUENA 7

### ARETXABALETA Ixadebalde azoka

Asensio, Kilima, Tak, Amaia ume denda, Belar Meta, Hankabeltz eta Almila Shop dende egingo dute. Orduetgia: 10:00-13:30 eta 16:30-20:00. *Aretxabaletan.*

### OÑATI Traste zaharrak eta garbigune ibiltaria

Egun osoan zehar batuko dute materiala. *Azokan, 10:30ean.*

### ARRASATE Arrasateko trikiti eskolako kalejira

Hauspo Egunaren baitan. *Arrasateko kaleetan, 18:00etan.*

### OÑATI Haur danborradaren entsegua

Lehenengoa izango da. Larruzko gerrikoa eraman behar dute parte-hartzaileek. *Eltzian, 18:30ean.*

### LEINTZ GATZAGA Andramaixak

19:00etan, bederatziurrenaren amaiera; eta 19:30ean, gazta mokadutxo. *San Migel plazan.*

### BERGARA Eleder Magoaren ikuskizuna

Debalde. *San Martin plazan, 19:30ean.*

## EGUBAKOITZA 8

### ARETXABALETA Ixadebalde azoka

Asensio, Kilima, Tak, Amaia ume denda, Belar Meta, Hankabeltz eta Almila Shop dende egingo dute. Orduetgia: 10:00-13:30 eta 16:30-20:00. *Aretxabaletan.*

### BERGARA Aukeren azoka

Bedelkarreko dende udaberritudako produktuak ipiniko dituzte denda aurrean, prezio berezietan. Orduetgia: 10:00-13:30 eta 16:30-20:00. *Bergaran.*

### LEINTZ GATZAGA Andramaixak

12:00etan, Otxandiokei ongi etorria eta meza nagusia; 13:00etan, salda eta pintxoak, eta buruhandiak, bonba japoniarrek eta jolasak; 17:30ean, apar festa; 21:00etan, bolatokiaren irekiera; 22:00etan, Erne, Kaleko Urdangak, Azken Sustraiak eta Lehen Lerroa taldeak; eta 23:00etan, bolo txapelketa. *Leintz Gatzagan.*

### ARRASATE Hauspo Eguna

17:00etan, 1-6 urte artekoendako jarduerak Herriko Plazan; 18:00etan, Eskola plazara ekimena;





ETXEPE

**OÑATI Etxepe taldearen emanaldia**

Youth United taldearekin batera egingo dute emanaldia, Atzeko Kaleko jaien baitan. Euskal musikari trap doinuak gehitu dizkio Arrasateko taldeak.

Debalde izango da.

*Irailak 8, egubakoitza, Atzeko kalen, 22:30ean.*

eta, 20:00etan, Xabi Solano Maizaren emanaldia Portaloian. *Arrasaten.*

**OÑATI Atzeko kaleko jaiak**

17:30ean, etxafuego jaurtiketa eta zinta lasterketa; 19:30ean, txorimalo eta erraldioen kalejira; 20:00etan, Hotz Oñatikoen eskutik tortilla pintxoaren salmenta; 22:30ean, Youth United eta Etxepe; eta ostean, DJ Pertxas & Sunset. *Atzeko kalen.*

**ESKORIATZA San Pedroko eta Intxaurtxuetako jaiak**

18:00etan, txupinazoa; eta 18:15ean, buruhandiak; 19:00etan, Ad Libotum txaranga; eta 23:00etan, guatekea. *San Pedro eta Intxaurtxueta auzoan.*

**ZAPATUA 9****ARETXABALETA Ixadebalde azoka**

Asensio, Kilima, Tak, Amaia ume denda, Belar Meta, Hankabeltz eta Almila Shop dendek egingo dute azoka. Orduetgia: 10:00-13:30 eta 16:30-20:00. *Arretxabaletan.*

**BERGARA Aukenen azoka**

Bedelkarreko dendek udaberri-udako produktuak ipiniko dituzte denda aurrean, prezio berezietan. Orduetgia: 10:00-13:30 eta 16:30-20:00. *Bergaran.*

**BERGARA San Martin feria**

Besteak beste, gazta lehiaketa eta askotariko produktuen salmenta postuak egongo dira *San Martin plazan eta Seminarixoko patioan, 10:00etan.*

**LEINTZ GATZAGA Andramaixak**

10:00etan, txistulariak; 11:30ean, Potx magoa; 13:00etan, Los Tenampas; 16:00etan, puzgarriak; 17:00etan, briska eta mus txapelketak; 19:00etan, Arizmendi txaranga; 21:30ean, herri afaria; eta 23:00etan, Ken Bat taldea. *Leintz Gatzagan.*

**ESKORIATZA San Pedroko eta Intxaurtxuetako jaiak**

10:00etan, txistularien kalejira, 11:30ean, gimnasia erritmiko erakustaldia; 12:30ean, umeendako jolasak; 12:30ean, Kaiña-Bi trikifarra; 14:30ean, herri bazkaria; 19:00etan, Tiki-Ttaka Irratia; 19:00etan, parrillada; 22:45ean, suzko erruberak; eta 23:00etan, Iratzat taldea. *San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetan.*

**ARETXABALETA II. Ikazkin Trail lasterketa**

UDAK antolatuta. *Durana kalean, 10:00etan.*

**ARRASATE 'Arrasateko industria ondarea' bisita gidatua**

Industrializazioak hirigintza iraultza berria eragin zuen XX. mendean, eta horren adibide dira ibilbide honetan ezagutuko diren hainbat

eraikin eta istorio. Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00. *Biteri plazan, 11:00etan.*

**OÑATI Atzeko kaleko jaiak**

13:00etan, auzokoen omenezko salda; 14:30ean, bazkaria Iturririko jatetxean; 19:00etan, garagardo dastatzea; 19:30ean, txorimalo eta erraldioen kalejira; 20:30ean, OstiKda! elektro-txaranga; 24:00etan, piroteknia ikuskizuna eta zezen-suzkoa; eta jarraian, Lizartxo taldea. *Atzeko kalen.*

**OÑATI Gari Baños Memoriala**

Gazte mailako txirindulari lasterketa. *Unibertsitate etorbidean, 16:00etan.*

**ARRASATE O Val Das Moura taldearen emanaldia**

Hauspo Egunaren baitan. *Herriko Plazan, 19:30ean.*

**BERGARA Dantza txapelketa**

Bikote nagusiendako 38. dantza solte txapelketa, Moises Azpiazuren omenez. Euriarekin Seminarixoan. *San Martin plazan, 19:30ean.*

**DOMEKA 10****LEINTZ GATZAGA Andramaixak**

10:00etan, txistulariak; 12:30ean, herri kirolak; 13:30ean, triki-pintxo poteoa; eta, 18:30ean, Alarma Morea. *Leintz Gatzagan.*

**ZINEMA****BERGARA****SEMINARIXOA****Todos somos Jane**

Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.

**Ruby: aventuras de una kraken adolescente**

Domeka: 17:00.

**GASTEIZ****FLORIDA****Barbie**

Egubakoitza: 19:30, 21:45.

Zapatua eta domeka:

11:45, 19:30, 21:45.

Astelehenetik

eguztenera: 20:00.

**Campeonex**

Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:00.

Zapatua eta domeka:

11:30, 17:00, 19:30,

22:00.

Astelehenetik

eguztenera: 17:00,

19:45.

**El espíritu de la colmena**

Egubakoitzetik

domekara: 21:30.

Astelehenetik

eguztenera: 19:15.

**El viaje de Harold**

Egubakoitza: 17:15.

Zapatua eta domeka:

11:30, 17:15.

Astelehenetik

eguztenera: 17:30.

**La guerra de los Lulus**

Egubakoitza: 17:00,

19:15.

Zapatua eta domeka:

12:00, 17:00, 19:15.

Astelehenetik

eguztenera: 17:00.

**La manzana de oro**

Egubakoitzetik

domekara: 17:30,

19:45.

Astelehenetik

eguztenera: 17:30.

**Me he tragado un extraterrestre**

Egubakoitza: 17:30.

Zapatua eta domeka:

12:00, 17:30.

Astelehenetik

eguztenera: 17:30.

**Mi soledad tiene alas**

Egubakoitza: 21:45.

Zapatua eta domeka:

11:30, 21:45.

Astelehenetik

eguztenera: 19:45.

**Notas sobre un verano**

Egubakoitzetik

domekara: 17:00,

18:45.

Astelehenetik

eguztenera: 17:00.

**Oppenheimer**

Egubakoitzetik

domekara: 20:30.

Astelehenetik eguenera:

19:00.

**The equalizer 3**

Egubakoitzetik

domekara: 17:15,

19:30, 21:45.

Astelehenetik eguenera:

17:15, 19:30.

**Passages**

Egubakoitzetik

domekara: 19:30,

21:30.

Astelehenetik eguenera:

19:30.

**Ninja turtles**

Egubakoitza: 17:30.

Zapatua eta domeka:

12:00, 17:30.

Astelehenetik

eguztenera: 17:30.

**KRITIKA****Barbie**

**Zuz.:** Greta Gerwing. **Herr.:** AEB (2023). **Aktoreak:** Margot Robbie, Ryan Gosling. **Iraupena:** 114 minutu. ★★★★★

**Mundu paraleloak****ANTONIO ZABALA**

*Barbie* izan da, zinema munduari dagokionez, udako izarra. Ikusleak gogotsu joan dira panpina famatuaren gorabeherak ikustera. Filmak ikuspegi kritikoa izan arren, Barbie panpinaren jarraitzaileak eta hain jarraitzaile ez direnak joan dira pelikula ikustera. Gerwinek paraleloak diren bi mundu elkartzen ditu. Fantasia eta errealtatea nahasten dira. Fantasiatzko munduan Barbie erregina da, han emakumeak gizartearen gailurrean daude eta gizonezkoak bi pauso atzetik doaz. Baina mundu errealean, gauzak guztiz aldatzen dira: gizonezkoek bere nahiak inposatzen dituzte, eta emakumeen eskubideak eta indarrak askoz murriztuagoak daude. Horrela

filmak bi mundu horien artean dagoen desoreka eta alde kritikatzeko du.

Gerwingen proposamena originala da. Panpinen mundu koloretsua oso ondo islatzen eta egokitzen du, batez ere arrosa koloreko, artifiziosua eta gustu eskasekoa. Ondo nahastuta daude dibertsioa eta ukitu kritikoa. Barbie eta Kent harrিতa geratzen dira mundu erreala ezagutzerakoan. Bigarren zatian filma zerbait jaisten da. Istorioan, panpina fabrikatzen duen enpresaren mandatariak eta aholkulariak agertzen dira, eta gidolariak ez dakite oso ondo nola bideratu eta etekina atera pertsonaia horiei. Eta istorioari bukaera egokia emateko garaian, gatazka azkarregi eta errazegi konpontzen da.





AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

## Ondarea

Immateriala edo materiala, askotariko formak izan ditzake kultur ondareak. Denak ere interesgarriak izanagatik, tokian tokiko paisaian eta gizartearen utzi ohi duen arrastoagatik, industria-ondareak sortzen dit halako interes berezi bat.

Aipatu tokiok memoria-leku izaten dira usu; iragan aski hurbilean indarrean izan ziren gizarte ereduaren lekuko isil bezain biziak. Esango nuke nekez aurkitu genezakeela garaiko gizarte-klase banaketa, lan baldintzak, industria teknologia, langile mugimenduaren bilakaera... bezalakoak ezagutzeko modu hoberik.

Opor garaia baliatu ohi dugu toki esanguratsu hauek gerturatu eta etxeko guztiok errealitate hauek ezagutzeko.

Aurten, Saguntoko Labe Garaiak izan zirenean arrastoan joan gara, XX. mendearen hastapenetan bi euskaldunek sortu zuten *hiri-faktoria*-ra, hain zuzen, zeina sei mila langiletik gora izatera iritsi baitzen. Zirrara sortu ohi duten leku horietako bat: arkitektura, laurogeiko hamarkadako eraldaketa industriala, tokiko testigantzak...

Iruditzen zait agenda publikoetan toki nabarmena hartu beharko lukeela gure historia garaikideko memoria-leku hauen errekuerazio eta kontserbazioak.

BUKATZEKO



Antzuolako Mairuaren Alardea 2023ko herriko jaietan, uztailen. AITOR AGIRIANO

# Antzuolako Mairuaren Alardeak saria jasoko du

Antzuolako Mairuaren Alardeak domekan, hilaren 3an, jasoko du Hondarribia, Berdintasunaren Hiria saria. Antzuolako Alardeak urteetan zehar izan duen bilakaera eta erakutsitako balioak goraiatu nahi izan dituzte epaimahaikideek, sari honekin

**Julen Murua Mesonero** ANTZUOLA  
Abuztuaren 27an aditzera eman zuten Jaizkibel Konpainiak aurtengo Hondarribia, Berdintasunaren Hiria sariaren irabazlea zela Antzuolako Mairuaren Alardea. Domekan, 18:30ean, jasoko dute saria Hondarribiko Itsas Etxean.

Konpainiak sare sozialetan zabalduetako mezu baten bitartez

adierazi du saria banatu dela "Antzuolako Udalarri eta prozesu guztian parte hartu duten herritarrei, tradizioa biziberritzearekin batera bi ildo jorratu dituztelako: genero berdintasuna eta arrazakeriaren kontrako borroka".

Xabier Legorburuk, Antzuolako Alardeko kideak dio ezustean harrapatu dituztela sariak: "Inon-

dik inora ere ez genuen espero Jaizkibel Konpainiak gu aitortzea sariaren irabazle gisa". Hala ere, onartu du alardearen baitan parte hartzen duten guztiarentzat; hots, antolakuntzako kideentzat, alardeko kideentzat, udalarentzat edota herritarrentzat oso positiboa dela: "Kanpotik horrelako aitortpen bat etortzea garrantzitsua eta polita da guretzat. Gure

balioak aintzat hartzen dituen saria da, eta balio handia ematen dio gure lanari".

Horretaz gain, Legorburuk dio haiek bilatzen dutela "atxikimendu bat herritarren aldetik alardean parte hartzeko" eta sari hau lagungarria dela haien zentzuan "herritarrek ikusteko lan ona egiten ari garela, balio egoikiak plazaratzen ditugula alardearen bitartez eta alardea gaur egungo balioetara egokitzen ari garela".

### Bilakaeraren eredu

"Herrian berdintasunaren gaiaren baitan zegoen arazoak jabetuta" sortu zuen Jaizkibel Konpainiak Hondarribia, Berdintasunaren Hiria saria Izaskun Larruskainen, konpainiako kide baten, hitzetan; eta ordutik, berderatzi urte igaro dira dagoeneko. Gainera, Larruskainek, adierazi du haien helburua zela "herria ez izatea ezaguna plastikoko beltzaren hiria bezala; beraz, bira bat eman behar genion horri Hondarribia beste arazo batzuek ezaguna izateko".

Pertsona eta elkarte ezberdinek jaso dituzte sari hau urte hauek zehar, eta, "poliki-poliki gero eta indar handiagoa hartzen eta oihartzun handiagoa sortzen" ari dela ere aitortu du. Aurtengoan, Antzuolako Mairuaren Alardeak jasoko du sari hau. Aurtengo epaimahaia osatu dutenak Maddalen Iriarte, Garbiñe Biurrun, Fermin Muguruza, Arantxa Urretabizkaia eta Nieves Alza izan dira, eta, Larruskainek azaldu duenez, horiek aitortu dute Antzuolako Mairuaren Alardea sariaren irabazle gisa "urteetan zehar izan duen bilakaera positiboa ikusita".

## 'HEMEN DEBAGOIENA', UDA GIROAN

GOIENA TELEBISTAN

IRAILEAN, 18:00 / 20:00 ETA 22:00

UDAREN HONDARREAN, ITXURA ETA EDUKI FRESKOAK



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

